

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
Sendia	9
Apaizgaitegira	13
Apaiztu	29
Lauzurica eta Iñarra: Arrasatera!	33
Herriaren zerbitzuan	57
Obrak parrokian	67
Frantziskotarrekin	71
339 Apaizen idazkia	79
Ikastola	89
Parrokiako hilarriaren kasua	93
Arrasateko semekotzat	101
Mondragoeko parrokoa	107
Kultura	117
Bere heriotza	137
Iñarra erretoreari buruz esan da	143

HITZAURREA

Ondoko lerroak prestatzeari ekin genion urtebete bat geratzen zitzaigun Jose Luis Iñarra zenaren heriotza gertatu zenetik hogeita hamar urte betetzeko. Hain justu, Arrasateko beste abade baten urrezko ezteiak ospatzen ari ginen eta egun hartako bazkalkide izan ginen Eusebio Iñarra eta biok eta liburuxka honen gaineko ideiaz ihardun genuen bota. Efemeridea aprobeztatu behar genuela iruditu zitzaigun, hogeita hamabost urtez Arrasateko parroko izandakoa gogoraraztea justiziakoa zelakoan. Eta hementxe gaude.

Badira gure bizitzan berezko zeinuz betiko grabatuta geratzen diren pertsonak eta, nolabait esatearren, gurekin euren ofiziotik identifika ditzakegunak. Ama eta aita ditugun moduan, baditugu ere geure medikuak edota geure kalezainak. Eta arrasatear askok “badugu” geure parrokoa ere. Arrasaten Jose Luis Iñarraz gain beste zenbait erretore ere ezagutu ditugu, baina Iñarra da, duela hogeita hamar urte joan zitzaigun arren, “*parrokua*”. Horrekin ez ditugu gutxiesten, inondik ere, besteak. Baina Don Jose Luis modu berezian dago itsatsita gutariko askoren gogoan eta arrasatear ugariren baitan bizirik jarraitzen du haren itzalak. Bestela, Eusebiorekin gertatzen dena ikusi besterik ez da egin behar, arrasatear adinduon gogorapen kolektiboan “*parrokuaren loba*” baita.

Urtebeteko lan polita izan da datozen orrialdeetan islatzen dena. Gustura egin dugula esango nuke. Iñarrak merezi zuen ahalegina, batez ere Arrasatetik egindako bere ibilbidearen testigantza finkatua uzteko. Lortu al dugu? Saiatu egin gara, behintzat. Eta saiatze horrek beste baieztapen eder batera eramán gaitu: Jose Luis Iñarrak egundoko oroitzapena laga zuen arrasatearren artean.

Eskerrak eman nahi dizkiogu lagun andana bati. Euren iritzi eta ezaupideak aldatu ditugu hona. Angel Ibisate, Pedro Salaberrí, Pablo Barrena, Javier Etxebarria, Gotzon Velez de Mendizabal, Benito Nafarrete, Joseba Arregi, Raimundo Velez de Mendizabal, Joxe Arriaran, Justina Aranburu, Pilar Arzamendi, Jose Antonio Altuna, Eugenio Etxebeste, Clemente López Cano eta Mertxe Trojaola elkarrizketatu ditugu. Hurbildik ezagutu zuten Arrasateko erretore zena. Horien ekarpenari esker Jose Luis Iñarraren nortasuna hobeto balora dezakegu orain.

Eskerrak ere Arrasateko Udalari, liburua argitaratzeagatik.



*“Sendi argazkia
Oiartzunen. Jose Luis
Teodoro 2 zenbakiarekin
markatutakoa da”*

SENDIA

Bere abizenaren jatorriak tokiko zenbait belaunalditan atzera eramaten gaituelarik, Jose Luis Teodoro Iñarra Orkaizagirre Oiartzunen jaio zen, 1907ko apirilaren 15ean. Honela dio bataio agiriak:

“En el Valle de Oyarzun, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a diez y seis de Abril de mil novecientos siete, yo el infrascrito Presbítero D. José Manuel Sein, Coadjutor de la iglesia parroquial de San Esteban Protomártir de este Valle, con licencia expresa del Párroco que también suscribe, bauticé solemnemente un niño, a quien puse por nombre José Luis Teodoro. Es hijo legítimo de D. José Francisco Iñarra e Inchaurrandieta, carpintero, y de Dña. Antonia Orcaizagirre Zalacain, esta natural de Urnieta y él de este Valle, feligreses de esta Parroquia. Nació según declaración del padre a las siete de la mañana día de ayer en la casa denominada Epenzane de la calle de Mendiburu. Son sus abuelos paternos D. Francisco Iñarra y Dña. Tomasa Inchaurrandieta, naturales de este Valle; y los maternos D. Antonio Orcaizagirre y Dña. María Ignacia Zalacain, naturales de Urnieta. Fueron padrinos D. José Luis Lecuona y en representación de la abuela materna, la abuela paterna, a quienes advertí el parentesco espiritual y obligaciones que los primeros contrajeron. Siendo testigos D. Francisco Larrañaga y D. Estanislao Olaiz, naturales y vecinos de este Valle, carpinteros. Y por ser verdad, lo firmamos fecha ut supra. José Manuel Sein-Martín Erice»

Haur hura Jose Luis Teodoro bataiatu zuten arren, sendian eta baita lagun zirkulu hurkoetan ere Teodoro esango diote. Iñarra Orkaizagirre sendian zortzi seme alaba jaio ziren: Eusebio (1902), Ildefonsa (1904), Jose Luis Teodoro (1907), Francisca (1909), Hermenegildo (1912), Juana (1914), Gregorio (1918) eta Dolores (1920). Ildefonsa artean umetxo hil zen. Gainerakoetatik Oiartzunen geratu zen bakarra Hermenegildo izan zen. Juana Iruñera ezkondu zen, Patricio Arinarekin, eta Dolores, Arabako Lukuko Bixente Muruarekin ezkondu, Brasiletik zehar ibili ondoren Gasteizera itzuli ziren.

Goiko agirian sendia Epenzane etxean bizi zela irakurri dugu, baina aurki Oiartzungo posta etxe izandako beste batera joan ziren bizitzera, eta aurretiazean “Posta” gaitzizena eraman zuten senitartekoek. Horrela, arrasatear

arruntentzat herriko erretorea Don José Luis Iñarra zen bitartean, gizon hura Oiartzungo laguntzat “Posta”ko Teodoro zen.

Jose Luisen haurtzaroan Oiartzunek 4.000 inguru biztanle zituen, gehienak –denak ez esatearren– euskaldunak. Bertako euskalkiari dagokionez, Luis Luziano Bonapartek, 1863gn urtean Oiartzungo euskara Ipar Goi Nafarra edo “Alto Navarro Septentrional” bezala sailkatu zuen. Bataio agirian garbi geratu den moduan, Jose Luisen aita zurgina zen eta Errenteriako Uranga izenekoa lan-elkarte txiki batean ari zen bi kiderekin. Era xumean bazen ere, negozioak sendia aurrera ateratzeko ematen zuen. Garai hartan Oiartzunen baziren industria txiki batzuk, batez ere aurreko bizimodu desberdineko arrastoak –errotak, olak, karobiak eta abar– eta nekazaritzak garrantzi handia zuen bertako ekonomia apalean. Jose Luisen Eusebio anaia zaharra¹ ere haroztegi hartan aritu zen lanean.

Jose Luis haurrak San Esteban parrokian hartu zituen Lehen Jaun Harzea eta Sendotza sakramentuak. Azken hori, eliz bideari ekin baino pixka bat lehentxeago.

Haur ikasketak herriko eskolan egin zituen. Latina eta espainiar literatura ere ikasi zituen, parrokiako erretorearekin.

Iñarratarrak euskaltzaleak ziren, eta abertzaleak. Manuel Lekuonak esan ohi zuen, bera Miguel Antonio Iñarra Mitxelena (1864-1898) apaizarekin euskaltzaletu zela, horrek zeukan bibliotekan ordu asko eman zituela aitortuz. Miguel Antonio euskal idazlea zen eta linguista, eta bertsoetarako sekulako zaletasuna zuen. Haren artikulu batzuk Resurrección Maria de Azkuek argitaratu zituen “Euskaltzale” aldizkarian. Manuel Lekuonaren osaba zen Miguel Antonio eta baita Jose Luis Iñarraren aitarena ere. 1896an lehen aldiz ospatu ziren Gipuzkoan Euskal Jaiak, Diputazioak sortuta. Eta Arrasaten burutu ziren. Urte hartako uztailean sarrailgintzako herrira iritsitako euskaltzaleen artean Miguel Antonio Iñarra izan zen, poesia norgehiagoko epai mahaikide bezala joanda.

1. Eusebio Iñarra oso txistulari ona izan zen, Oiartzungo Udal bandan arituz. Klaseak ere ematen zituen eta Oiartzungo geroko txistularirik onenek berarekin ikasi zuten.

Artean zortzi urteko mutikotxo bat zela, 1915eko abuztuaren 5ean Oiarzungo Euskal Jaietan esku hartu zuen “Posta”ko Teodorok, herriko hiru ehun hurrek abestu baitzuten plazan, Francisco Redondoren zuzendaritzapean. Piano jolea Zeledonio Mujika izan zen eta armonioa Aita Donostiak jo zuen.


“Posta” etxeak kultura etxe bat zirudien. Kantu eta musikarako zaletasuna erroetaraino sartuta zegoen senitarteengan. Juanitak soprano bezala kantatzen zuen, Doloresek mezzo. Gregoriok atabala jotzen zuen eta Hermenegildok zein Eusebiok txistua. Bada anekdota bat, Pedro Zumelaga arrasatearrari gertatua: Arrasatetik Oiartzunera joan zen, gerra garaian zenbait arrasatear fusilatu zituzten kanposantua ezagutzera. Gregorio Iñarra zuen bidaia lagun. Hilerrira heltzeko “Posta” etxetik igaro behar zuten eta justu handik pasatzen ari zirela Pedro txundituta geratu zen, etxe hartatik ateratzen zen musika eta ahots zoragarria zirela eta. Diskoren bat zelakoan horrela adierazi zion Gregoriori. *“Nire arreba Lola da”* erantzun zion. Handik zenbait urtetara, Juanita Iñarrak kantu emanaldi bat eskaini zuen Arrasateko Ideal Zineman.

Antzerkirako zaletasuna ere ez zen nolana hiko gazte haien artean. Jon Oñatibia herrikideak antzerki talde bat osatu zuen 1934an eta Manuel Lekuona eta bere anaia Martinen “Eun Dukat” obra antzeztu zuten. Taldean aritu ziren Eusebio, Dolores eta Juana anaia-arrebak. Arrasaten ere eskaini zuen obra hura taldeak, Gurea zineman, eta antzezleetakoen artean Iñarra ahizpak izan ziren.

Jose Luis Teodorok –ordurako apaiztua– ez zuen antzerkiko esperientzia hartan esku hartu ahal izan, noski, baina bai ordea zenbait urte lehenago Gasteizko Apaizgaitegiko beste batzuetan. Zenbait ikaskideren artean 1931an Kukulamera² deritzan antzerki taldea sortu zuten. Salvador Rada, Alberto Mitxelena, Martin Lekuona, Iñaki Larrañaga, Iñaki Azpiazu eta beste batzuek osatu zuten “Todor”-ekin antzerki mugimendu hura. Iñarrak beti gorde zuen antzerkirako zaletasuna eta Arrasateko bere etxean antzerki liburu ugari bildu zituen. Jacinto Benavente bide zeukan idazlerik kuttunetakoa alde horretatik.

2. 1931ko Gimnasium aldizkariaren VI zenbakian irakur daiteke: “Kukulamera. En Bilbao lo llaman Oldargi, en Donostia Saski Naski, en Guernica Elai Alai, en Zarauz Naste Borraste. Nosotros lo llamaremos Kukulamera. ¿Y qué es Kukulamera? Kukulamera es una nueva modalidad de teatro basko. Cuadros de costumbres populares, típicas, que trasladadas al escenario envueltas en música y luz adquieren un poder evocador sorprendente”

*“Agirre Eliza Apaizgaitegiko
zenbait txoko. 1925ean heldu zen
bertara Iñarra”*



APAIZGAITEGIRA

Eliz ikasketak egin nahi zituela eta, Jose Luis Teodorok Andoainera jo zuen 1921ean, bertako Apaizgaitegira. Aurreneko lau urteak egiten ziren Andoainen, Gasteizera igaro aurretik. Andoaingo Apaizgaitegiaren zergatikakoa aurkitzeko 1735eraino igo behar da, Juan Martin Segarra Etxebestek inguruko herrietarako ikastetxe bat sortzen duenean. Mendizabalen desamortizazioak ikastetxearen azkena ekarri zuen eta handik zenbait urtetara Eliz Barrutiko Gotzainak eraikina Apaizgaitegi Txiki moduan erabiltzea erabaki zuen. Bertan Humanitateetako lau urteak ikasiko ziren, Gasteizkoaren balio akademiko berdintsuarekin. Halaber, oinarritzko heziketarako ikastetxe bat eta laikoentzako gregoriar kantuko eskola bat ezarri zituen. 1910etik aurrera Gipuzkoako apaizgai gazte asko handik igaro zen, beti ere laurogei baino gehiago ezin zitezkeela izan, kapazitatea kopuru horretaraino bakarrik zuen eta³.

Andoaingo Apaizgaitegi Txikia erre egin zen 1924ko abenduaren 28an eta bertako zerbitzuak eta baita ikasleak ere, ordura arte uda apaizgaitegia zen Saturrarangora eramán ziren. Baina hurrengo ikasturtean Jose Luis Iñarra gaztea Gasteizera aldatu zen. Urte batzuk geroago Jose Luisek esan ohi zuen moduan, Gasteizko urteak oso gustura eman zituen, gorabehera ugari bizi behar izan zituen arren. Ordurako Latineko lau urte gaindituta zituen, eta bosgarrena egiteko Agirre Apaizgaitegira sartu zen.

Gasteizen bi Apaizgaitegi ziren garai hartan. Biak, gainera, diametro txiki-ko alderdi batean kokatuta, hiribilduko kasko zaharrea, hain zuzen. Apaizgaitegi Txiki edo Seminario Agirre bezala ezagututakoa, alde batetik. Eraikina Escauriaza-Esquibel jauregi izandakoa zen eta bertara apaizgai gaztetxoak biltzen ziren, batez ere. Domingo Ambrosio de Agirre indianoak sortutako Fundazioaren arautegiak zioenez, ordea, latina eta humanitatez gain goi mailako ikasgairen bat ere irakatsi behar zen. Horregatik, Filosofiako lehen ikasturtekoek Logika ikasgaia Agirre Apaizgaitegian ikasten zuten. Iñarra gaz-

3. Andoainen ere egon zen Jose Luisen anaia zaharra, Eusebio, urte batzuk lehenago.

tea Gasteizera 1925eko irailean heldu zenean, Agirre Apaizgaitegiko errektorea Esteban Zubillaga zen. Baina 1926ko irailean Jose Miguel Barandiaran izendatu zuten kargurako eta horrela iraun zuen Apaizgaitegi Txikia 1930ean desagertu arte.

Bigarrena kontzilio-Apaizgaitegia zen eta eraikinak orube handi bat hartzen zuen Santa Maria Katedralaren ondoan. Goian aipatutako Fundazioaren arautegiak agindutakoa kontuan izanda, Jose Luis Iñarrak 1925-26 lehen ikasturte hura Agirre Apaizgaitegian eman behar izan zuen. Apaizgai nagusiak hartzen zituen Kontzilio-Apaizgaitegiko errektorea Ramon Laspiur zen eta errektore-ordea Jose Miguel Barandiaran.

Filosofiako lehen urtetik –hau da 1926-27tik– izan zuen Iñarrak irakasle moduan Barandiaran. Sei urte izan ziren, denera, eta irakasle-ikaslearen arteko harremanaz gain beste lotura batzuk ere landu zituzten. Eta orduantxe sortu zen hamarkada luzez iraun zuen bien arteko adiskidantza sakona. Bestalde, han ari zen ere Manuel Lekuona, Iñarraren senitartekoa, eta bi oiar-tzuarrak ederki asko konpontzen ziren, euskaltzaletasuna oso begi onez ikusten ez zuen giro hartan. Roman Laspiur errektoreak, 1928ko martxoaren 15ean zioen: *“Hizkuntza ofiziala gaztelania da, nahiz eta batzuetan zenbait euskal kanta baimen daitezkeen”*

Baina Iñarra gogo biziz saiatu zen bere izpirituak agintzen zionari men egiteko, buruak bestela adierazten bazion ere. Denetariko mezu kontrajarriak jasotzen zituen, ordurako burua ongi jantzia zuen gazte hark. Pedro Dancausa irakasleak egun batean euskal Estatutuaren kontra hitz egiten zien bitartean hurrengo egunean Leonzio Aravio-Torre euskal gogoaz mintza zitekeen. Eta Francisco Tabar euskarari buruz gaizki esaka hasten zitzaien moduan, goiz hartan bertan Manuel Lekuonarekin euskaraz hobeto idazten ikasten zuten. Han ziharduen ere, besteak beste, Antonio Pildain irakaslea, zenbait urte geroago apaiz bezala Madrileko Gorteetan euskal diputatu izatera iritsiko zena.

Manuel Lekuonak Kardaberaz Akademia edo “Academia del V. Cardaveraz” –gero Kardaberaz Bazkuna bezala ezagutuko zena– sortu zuen 1924an Apaizgaitegi zaharrean, eta bere ingurura gazte mordoxka bat bildu zuen, euskal kulturaren ahalegintxoren bat burutu nahi zutenak. Haien artean, 1925etik Jose Luis Teodoro Iñarra egon zen.


Iñarra Gasteizera heldu zenean Eliz Barrutiko Gotzaina Fray Zacarías Martínez Núñez zen, karguan 1928ra arte iraun zuena. Gotzainaren gainean esan daitekeena, oiartzuarraren moduko ikuspegitik ikertua, espainiar zale petoa zela⁴ eta Kardaberazkoak eta ingurukoak ez zirela harekin oso eroso sentitzen. Urte hartako ekainean Mateo Mujika izendatu zuten Gasteizko Gotzain eta irakasle zein ikasle euskaltzaleen mugimenduak errazagoak bilakatu ziren aurrerantzean. Nahiz eta, bidea arrosaz beterikoa eduki zutenik pentsatu behar ez den. Ezta hurrik ere!

1930eko irailaren 22an Kontzilio Apaizgaitegi berriaren bedeinkapena egin zuen Mateo Mujika Gotzainak eta sei egun beranduago inaugurazio ofiziala izan zen, Alfonso XIII Espainiako Erregea, Aita Sainduaren Nuntzioa eta Santiago eta Valentziako artzapezpikuen presentziarekin. Jose Luis Iñarra eta bere ikaskideak, urte haietan Gasteizko kanpo aldean zegoen Apaizgaitegi berrira igaro ziren. Denera, 650 inguru ziren. Errektorea Roman Laspiur izendatu zuten eta, ustekabean, Barandiaran hautatu zuten haren ordeko.

Laspiur eta Barandiaranen arteko giroa ez zen osasuntsua gertatu. Bestalde, egoera politikoak ez zuen bizitza erlijioso laguntzen. 1930eko abenduaren 12ko iraultzarako ahaleginak - Jakako gertaerak tartean- bere adarra izan zuen Gasteizen eta armak banatu ziren gazteen artean. Batzuk Apaizgaitegiko ateetaraino iritsi ziren. Hori dela eta, Apaizgaitegiko ordezkari bat urte hartako Gabonak Gotzainari zorientzera joan zirenean Mateo Mujikak armak hartzeko aukeraz hitz egin zien. 1931ko urtarrilaren 12an Barandiaranek baimena eskatu zion Gotzainari Apaizgaitegiko morroi eta zerbitzariak somatenera deitzeko. Eta armatu egin ziren, Apaizgaitegiko ondasunak eta erlijiosoen bizitzak defendatzeko. Urte hartako apirilaren 14an Errepublikak aldarrikatu zen eta uhin politikoak goi erpina erdietsi zuen. Eta 18an Errepublikak behartu zituen somatenak armak entregatzera.

Errepublikaren aurka Mateo Mujika Gotzainak egin zituen adierazpenengatik Espainiatik atera zuten 1931ko maiatzaren 17an, eta Frantziako Poitiers-ko La Puye-n bizi izan zen, urtebete bat inguru, 1932ko maiatzaren 13an itzultzeko baimena eman zioten arte. Baina ezin zuen Gasteizera itzuli eta

4. Don Jose Miguel Barandiaranek idatzi zuenez, Fray Zacarías Martínez Núñez “españolista oportune e importune” zen. “Jose Miguel de Barandiarán. Diario Personal. Volumen I (1917-1936) Colección Sara nº 6 Tomo II (Jose Miguel Barandiaran Fundazioa-2005)



*“Gasteizko Kontzilio-
Apaiztegi berrian 1930-1933
bitartean ikasi zuen Iñarrak”*

Burgoseko Bujedo herrixkako Monastegian kokatu zuen bere egoitza. Han 1933ko apirilera arte egon zen, orduantxe eman baitzioten Gasteizera aldatzeko baimena.

Egoera okertzen ari zela ikusita, 1931ko maiatzean Laspiur errektoreak Apaizgaitegia itxi nahi izan zuen baina Barandiaranek aurre egin zion. Eta bertako zenbait nagusi eta teologiako ikasle zaintza lana egiten hasi ziren... Barandiaranek prestatutako eskuko lehergailuek lagun⁵. Ideia bat egin deza-

5. Barandiaranek aitortzen duenez, Gasteizko gizakume bat joan zitzaion adieraziz: “esadazu zenbat arma behar dituzun zure konfiantzako pertsonen artean banatzeko, eta ekarriko dizkizut” Op.cit. Liburu horretatik atera ditut, gehien bat, egun haiei buruzko lerro hauetako zehazkizunak.

gun, Barandiaranek bere Egunerokoan idatzitako pasarte batzuk aldatu nahi ditut hona. Gogor inpaktatu ninduten adierazpenek, ataundar jakintsuari buruz nuen kontzeptua ez baitzen ezkontzen ondoko idazkietan deskribaturikoarekin. Urte hartako maiatzaren 12an eta 13an honela idatzi zuen:

“... Eran las doce de la noche. Se oyen varias descargas de arma de fuego hacia el Prado. Me visto, me armo y me apresto a salir de la habitación, cuando llegan a la puerta tres superiores que creen que las detonaciones que se han oído han sido producidas por mí.... Durante el día fabrico bombas de mano, por si ocurre algo que haga que necesitemos.

... A la noche varios superiores y alumnos teólogos vigilan el Seminario, pues no podían dormir por el pánico producido por las noticias de incendios de conventos que llegan de Madrid y de otras poblaciones. A las doce de la noche oigo una detonación (al parecer de pistola) junto a la tapia del Seminario. Me levanto y armado salgo de mi habitación. Exploro los contornos con el reflector. Se oyen varias descargas de mauser en diferentes partes de la ciudad. Me retiro a dormir”

Azkenik, ordea, tentsio politikoak gora egiten zuela ikusita apaizgaiak etxera bidali zituzten. 1931-32 ikasturtean nabaritu egin zen bizitza erlijiosoan Gobernutik egiten ari zen inguraketa eta ikasleen kopurua jaitsi egin zen Gasteizko Apaizgaitegian, ehun bat gutxiago izan zirelarik.

Apaizgai euskaldunek bikoiztuta pairatu zuten egoera hura. Han ez zen euskaltzaletasunerako giro. Erlijioaren kontrako kale presioa arinduz zihoan neurrian Apaizgaitegiaren barrukoa bestelakotzen joan zen, aurreko ezkorre-
ra itzuliz. Horrela, 1932ko martxoaren 29an Laspiur errektoreak errieta egin zien, bazkalorduan jangelan irakurtzeko sermoiak euskaraz prestatu zituzten ikasleei... behin apaiztuz gero bederatzi bat urterako Villafria-ren gisako erdal herrixketara bidaliko zituela mehatxatuz. Eustakio Agirreurreta Zuzendari espiritualak, berriz, Apaizgaitegiko kaperan errosarioa euskaraz egitea debekatu zuen. Eta euskaldunen kontrako eraso egin zen, hain zuzen, urtebete bat lehenago – Errepublikaren sortzean, hain justu- *“Ebro ibaian zehar orma bat eraiki beharko litzateke”* adieraziz bere burua separatistatzat hartu zuen errektorearen aginduz. Baina eguzkia nora zapia hara, baita teoriaz behintzat herri-tarren izpiritu zaintzaileak izan behar zuten gizakume haien artean ere.

Dena den, egia da apaizgaien artean zatiketa nabarmena zela ikusmolde politikarengatik. Filosofia eta Teologia komunitateetan, batez ere, abertzaletasuna zen nagusi, normala oso kontuan izanda ikasleen jatorria. Jose Luis Iñarra, Teologiako ikaslea urte hartan, Barandiaranen ideiekin lerrotu zen, guztiz, eta berarekin beste ikasle mordoska bat ere: Jose María Agirrebalzategi, Iñaki Azpiazu, Eustakio Mokoroa, Lorenzo Zubeldia, besteak beste. Barandiaranek zuzentzen zuen “Gymnasium” aldizkariko lankideak ziren haiek euren ordu libreetan. Gotzainik gabeko urte hartan Apaizgaitegiko errektore eta errektorordearen arteko harremanak biziki ozpindu ziren eta Barandiaranek integrista izatea egotzi zion Laspiur bere nagusiari. Horrek, berriz, Apaizgaitegia Batzoki erraldoi bat bilakatzen ari zela leporatu zion ataundarrari.

Mateo Mujika Gotzainari 1932ko ekainean Bujedora hurbiltzeko baimena eman zioten. Handik gutxira Eliz Barrutiaren buletinean eskutitz bat argitaratu zuen, apaizgaiak ez zirela politika arazotan sartu behar aholkatuz. Eta Bikario Orokorrari agindu zion informazio-ikerketara bat irekitzea, bera erbestean egon zen bitartean Apaizgaitegian izandako auziak zehazteko. Horren ondorioz, Gotzainak irailean lehen erabakiak hartu zituen: Roman Laspiur errektorea kargutik kendu eta Apaizgaitegitik atera zuen. Berarekin batera Dimas Sotes Nagusietako bat ere kaleratu zuen, baina azken hori arrazoi desberdinarengatik: salatua zegoen abertzaleen teoriak hedatzeagatik. Barandiaran ez zen Gotzainaren erabakietatik aske geratu eta aurrerantzean “Gymnasium” aldizkaria ikasturtean zehar ez ateratzea agindu zion. Gehienez jota, apaizgaiak udako oporretan burutu lanak argitaratuko ziren.

Errektore berri bat izendatu zuen irailean bertan Gotzainak, Eduardo Eskarzaga, alegia. Eta izendapenarekin Apaizgaitegiko giroa onbideratu zela esan daiteke. Sintonia hobea zen Eskarzaga eta Barandiaranen artean⁶ eta horrela ulertu zuten ikasleek ere, eta urriaren lehenean egin zen ikasturtearen inaugurazioan, errektore berria Gela Nagusira sartzean haiek zutik ipinita txaloka hasi zitzaizkion.

Asko idatzi da Mateo Mujika Urrestarazu Gotzainaren ibilbideaz eta II Errepublikan eta Francoren diktadurapean jasan behar izan zituen erbestera-

6. Barandiaranek zuzendutako publikapen bat atera zen 1935ean: **Huellas de arte y religiones antiguas en el Pirineo Vasco**. Homenaje al M.I.Sr. Dr. D. Eduardo de Escarzaga y Solaun. Vitoria. (Seminario Diocesano)

tze zigorretaz. Oso lan zaila izan zuen Gasteizko Eliz Barrutian eta bertako Apaizgaitegia uneko tentsioen islapen zuzena zenez gero, ez zitzaion samur gertatu eliz orekari eustea. Bere burua hamaika aldiz defendatu behar izan zuen salakuntza desberdinetatik. Gasteizko Apaiztegian izan zuen jokaera defendatuz, honela idatzi zuen Erromatik 1936ko urrian, Cabanellas jeneralaren aginduz Espainiara sartzea debekatua zegoela jakinarazi zenean.

«1.º Precisamente cuando Alfonso XIII se veía abandonado de todos, incluso de los militares, en las postrimerías de su reinado, invitado por mí, asistió a la inauguración del seminario recién construido y fue entusiastamente ovacionado por la numerosa comunidad: 600 seminaristas.

2.º Surgió la sublevación de Jaca y visitando a los seminaristas les hablé de la necesidad extrema en que nos hallábamos de pedir con implorantes ruegos al Señor la continuación de la monarquía, porque en España la República había sido y sería manantial inagotable de toda clase de maldades; no me equivoqué en mis apreciaciones.

3.º Comprobada alguna denuncia de que el profesor de música del seminario hacía política nacionalista⁷, previo breve proceso, le obligué a salir del seminario y a dejar su cargo; de esto hace cuatro años.

4.º Visitó el seminario hace dos años con apostólica comisión el Ilmo. Monseñor Jesús Mérida, de Granada. El vicario general de aquella fecha y yo le encargamos se ocupara de averiguar y ver si en este centro se hacía política nacionalista para poner remedio eficaz al mal en caso afirmativo. Por el carácter reservado del informe ignoramos su contenido pero a ese informe oficial apelamos, seguros a priori de que no será desfavorable a nosotros ni siquiera en ese punto concreto.

5.º Todavía se murmuraba contra lo que tanto amo yo: el seminario, y para cerrar el paso a todos exigí del muy ilustre señor rector en presencia del

7. "Historia del seminario Diocesano de Vitoria" (Andres Ibañez Arana-2005) urtean, honela irakur daiteke: "Parece que debe referirse a D. Dimas Sotés... pero hay datos que no cuadran... La reforma de 1932 no tiene en su conjunto visos de represión del nacionalismo... Yo tenía una vaga idea de que D. Dimas no era nacionalista... más bien era lo contrario" (327 orrialdea)

claustro de profesores, el día 7 de marzo fiesta de santo Tomás de Aquino, me dijera bajo juramento si en el seminario hacían los profesores, el mismo rector u otros alumnos, etc., política nacionalista o cualquiera otra política de partido; y el rector, tan competente profesor como santo sacerdote, juró solemnemente que en aquel centro no se hacía política nacionalista ni otra partidista”⁸

Mujika Gotzainak beste erabaki batzuk ere hartu behar izan zituen 1932an, Apaizgaitegian diziplina eta eliz ordena jartzeko. Besteak beste, irakasleei egunkaritan idaztea galarazi zien. Uzten zien, ordea, zientzia eta kultura aldizkaritan esku hartzea⁹.

Gasteizko Apaizgaitegian den Jose Luis Iñarraren espediente akademiakoak ustekabea eman zidan, bila ibili nintzenean, artxiboan Teodoro Iñarra Orcaizaguirre izen-abizenekin ageri baita eta ez da Jose Luis izena aipatzen. Ikasleen zerrendetan ere beti erregistratu zen Teodoro bezala, 1931-32 ikasturtera arte, zeinean Jose Luis Teodoro ipini zituen. Azken ikasturtean, berriz, Luis Teodoro, Luis T. eta Jose Luis T. erabili zituen. Lehen ere esan dudan moduan, etxeko giroan Teodoro deitzen zuten, eta berari ere laket zitzaion deitura hori erabiltzea, berea dela ezagutzen dudan lehen lan literarioan Teodoro izenaren euskal aldaerarekin izenpetu zuen eta.

Espedientea 1925-26an irekitzen da, Latineko bosgarren ikasturtean, eta 1932-33an amaitzen da, Teologiako laugarrenarekin. Tarte horretan hogeita lau ikasgai eman zituen, ondoko kalifikazio motarekin: sei ikasgaitan “meritus” (ongi) bana lortu zituen; bederatzitara “benemeritus” (oso ongi) eta beste bederatzitara “meritissimus” (bikain) Beharrezko ikasgaietatik kanpo eman zitezkeen artean Euskara nabarmentzen da, Manuel Lekuonarekin irakasle gisa, “meritissimus” kalifikazioarekin.

Aipatu dut gorago Antonio Pildain irakaslea. Eta gehitu behar dut Iñarrak begirune berezia ziola. Pildainek, Barandiaran, Manuel Lekuona eta Leoncio

8. Bernardo Estornés Lasa - Auñamendi Entziklopedia (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org)

9. Barandiaranek honela zioen bere Egunerokoan, 1933ko urtarrilaren 31an: “¿Y dónde están esas revistas científicas y culturales en que podamos escribir de materias religiosas? Teníamos Gymnasium y lo suprimió el mismo Obispo” Op.Cit.

1925-26 N.º 31-E

CARRERA LITERARIA

N.º 7

D. Teodoro Iñarra Ocaizapúa el día
 de de en la parroquia de
 de Oyarzun, provincia de Guipúzcoa

Curso académico	Curso probado	ASIGNATURAS	CENSURA EN LOS EXÁMENES	
			Ordinarios	Extraordinarios
1925-26	5.º de lab.	Retórica y comp. lat.	m	—
" "	" "	Hist. Literat. y comp. hisp. - Prob. per	B	—
" "	" "	Agricultura e Ind. Agr. - Matemáticas, vie	B	—
1926-27	1.º de fil.	Hist. Natur. Fisiol. e Higiene	Mb	—
" "	" "	Física y Química	B	—
" "	" "	Biología	Mb	—
1927-28	2.º de fil.	Geol. Paleont. Prehist. Griego Público	Mb	—

“Espediente akademikoan Teodoro Iñarra bezala erregistratu zuten”

Aravio-Torrerekin, solasaldi erlijioso zientifikorako “Lyceum Cassiciacum” zeritzan taldea sortu zuen 1924ko urrian. Eta Apaizgaitegiko horma hotzen artean laukotearen ekarpenaren emaitzak berotasun puntu bat jartzen zuen. 1926-27 eta 1932-33 bitartean, aipatutako lau irakasleak ditugu Iñarrarengan eragin gehien izan zutenak. Pildain, 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde politikoetan Gorteetarako diputatu izan zen hautatua euskal-nafar gutxiengoren aldetik eta Lizarrako Estatutuaren defentsan aritu zen Madrilen. 1936ko maiatzean Las Palmaseko Gotzain izendatu zuen Aita Sainduak.

Ikaskideen artean, Txomin Jakakortajarena euskaltzale berastegierra Andoaindik izan zuen Iñarrak lagun, nahiz eta hura urtebete zaharragoa zen eta ikasketak Gasteizen ikasturte bat lehenago amaitu eta apaiztu. Jakakortajarenarekin gainera lan tokiko auzokide izan zen zenbait hilabetez, Iñarra Ziriano erretore izendatzean oso kilometro gutxira – Nafarreten hain zuzenbaitziharduen ikaskide ohiak. Jakakortajarenak erbesterako bidea hartu behar izan zuen 1936an eta urte luzez Argentinan bizi izan zen.

Martin Lekuona herrikidea izan zen Iñarraren beste lagun bat, ikasturte desberdinekoa zuen arren. Manuel Lekuonaren anaia txikia 1907an ere jaio zen eta Iñarraren ibilbide berdintsua egin zuen Gasteizeraino. Apaiztu berria, Arabako Musitu herriko eliz ardura eman zioten, Erreterriako parrokiara bidali aurretik. Erreterrian, ELA-STVko afiliatuak azken Aita Santuen enzikliken bideetatik bideratzen ahalegindu zen. Luis Mitxelena gazte bat ere izan zuen eliztarren artean eta Lekuona izan zen hura euskal literaturaren ildoan jarri zuena. Martin Lekuona faxistek atxilotu zuten 1936ko urrian eta handik zenbait egunetara fusilatu egin zuten Hernaniko Galarretan.

Jose Luis Iñarrak soldadutzarako deia ere jaso zuen, 1928ko abuztuaren 1ean, eta apaizgaitegian zegoen arren militar jantzia ipini behar izan zuen. Berarekin Gasteizko Apaiztegian zeuden gehienei bezala berari ere hiri hartako kuartelera egokitu zitzaion zerbitzua, armada kontuetan oso denboraldi laburra eta modu arinean eman zuelarik. Martin Lekuona izan zuen soldadukide kuartelean.

Iñaki Azpiazu azpeitiarra ere ikasturte berdinekoa izan zuen, nahiz eta hiru urte gazteagoa zen. Iñarrarekin 1933an apaiztu ondoren, Lilleko Unibertsitatean graduatu zen Zientzia Politikoetan. Erbesteko bidea hartu behar izan zuen 1937an, eta urte luzez Argentinako Espetxeetako Kaperau Burua izan zen. Argentinan hil zen 1988an.

Jose Mari Agirrebalzategirekin –Oñatiko Protokoloen Artxibaria, urte luzez– ere lotzen zuen Apaizgaitegiko egonaldiak. Biak elkartzen zirenean, bere umore onari ezin balazta ipiniz, Iñarrak ikaskide ohiari “Baltzategiko Rodrigo Artzaia” abesten zion agur gisa, Buenaventura Zapirain eta Toribio Alzagaren “Txanton Piperrri” operaren zatia gogoraraziz.



*“Soldadutzarako deia 1928an jaso zuen.
Lagun izan zuen Martin Lekuona
herrikide eta ikaskidea”*

Lehen ere aipatu dut apaizgaien ezagutza eta lanerako gogoia bideratzeko asmoz, Apaizgaitegian aldizkari bat sortu zela. Eragilerik zuzenena –eta baita zuzendaria ere– Jose Migel Barandiaran izan zuten. Lehen zenbakia 1927ko urtarrila-otsailekoa da, baina zenbait arazo tarteko martxoaren 21era arte atzeratu zen. Apaizgaitegiko zirkulu batzuetatik, ordea, ez zen publikapena begi onez ikusten. Barandiaranek honela idazten du egun hartan bere Egunerokoan:

“Salió el primer número de Gymnasium. En la tapa hay una tricomía que representa al proyectado seminario, hoy en construcción. Aparece en campo verde el edificio, resaltando el color de los techos. Estos colores, rojo y verde, junto con el blanco del papel, han sido interpretados por una persona como representación de la bandera nacionalista vasca. Por esto, de prisa y corriendo, se ha dado orden a la imprenta para que las letras del título se hagan en color azul (antes iban en negro) para los demás ejemplares”

Tituluak ez ezik, Apaizgaitegiko teilatuen gorria ere apaldu zen marrazkian, kargu batzuen mesfidantza gainditzearen. Egia esan, xedea ez zuten bat ere erreza aldizkariaren kudeaketaz arduratzen zirenek. Aldizkarian apaizgaiek, batez ere teologoen, idazten zuten, zientzia eta literaturan treba zitezten asmoarekin. Azken zenbakia 1932ko maiatza-ekainekoa izan zen. Mujika Gotzaina erbestetik itzuli zenean, Laspiur Errektorea kargutik kentzeaz batera mezua bidali zion Barandiarani eliz barrutiko Bikario Nagusiaren bitartez: Gymnasium aldizkaria ez zen aurrerantzean publikatuko. Aitzakia, ikasle lan-kideek zuzendariarengandik aldeko tratua jasotzea zen. *“Dios me lo dió, Dios me lo quitó”* idatzi zuen Barandiaranek bere Egunerokoan, urte hartako irailaren 28an, eta salaketari buruz gehitzen zuen:

“Lo cual yo sé que es absolutamente falso. Pero aún cuando ello fuese verdad, la medida no estaría justificada, pues para corregir los abusos no hace falta suprimir las realidades... El pretexto de que hay favoritismos ha venido a cortar y destruir, sin honra, ni gloria ni un gesto de agradecimiento mi labor de seis años”

Tentsioak handiak izan ziren beti Teologia Fakultateko nagusien eta Barandiaranen artean. Haietako askoren ikuspuntu teologikoa ez zen ezkonzen Barandiaranek defendatzen zuenarekin, ezta ataundarrak Gymnasium aldizkaritik teorizaziorako erakusten zuen irekitasunarekin ere.

Xixili abeslari

(Deunaren egunean Kardabeizataren Batsatean irakutia)

EGUN-batsa... Ego-aize afaiza...
Jauregi-aufeko esi ezearen galur-galurean, ena-
ra-saila efenkada luzean...

Ba' dijoaz...

Etzan giro sasoi artan Efoma' n. Ain zegon nastia...
Giristiñoak ez dute arnas-artzerik oraintxe. Maiztxo
erasotzen diete Iliritar Marko Aureli Pretoreak. Ler-
tzeke zorian ekaitza...

Enarak aizkatu-bildur noski, ixil-ixilik, ots gabe
langari atolnia kendu-ta, eguna zabaldu orduko etxe
bafutik landa zan Xixili. Goizeko intzean basountza
eriosuar itufi otzera... Xixili Katakunbetara, Mezatan
Jauna artzera.

Balerino gaztea eman diote senartzat. Jentila.

Eztai-egunean Xixili'k Jaunari:

—Nere burua emango dizut, Zuk Balerino giris-
tinotzen ba-didazu.

GYMNASIUM

Telatu-ondoko leio biribiletatik eguzki-erāñua da-
tor goñi-goñi.

Xixili, beti abeslari, antxe dago esku-beatzez,
«Irtutan bakara» kanta-kantari...

Iñara'tar Todor'ek,

“Gymnasium aldizkarian 1931ko irailean
azaldu zuen bere lehen artikulua, euskaraz”

Dozenaka izan ziren Gymnasium-eko orrialdeetan maiz idatzi zuten apaizgai euskaltzaleak. Zerrendan Iñaki Azpiazu, Justo Jauregi arrasatearra, Ignacio Etxaide, Ramon Ertze, Juan Thalamas Labandibar, Txomin Jakakortajarena, Martin Lekuona eta abar luze bat. Horien artean zegoen Jose Luis Iñarra ere, “Iñarra’ tar Todor” bezala ageri zena.

“*Xixili abeslari*” titulupean Jose Luis Teodoro Iñarrak artikulu bat atera zuen “Gymnasium” aldizkarian, 1931ko iraila-urriko zenbakian. Bertan, euskara eder batean, Zezilia deunaren gaineko istorio bat kontatzen du, “Iñarra’ tar Todor’ek” izenpetzen duen gazteak. Tituluaren behe aldean irakur daiteke “*Deunaren egunean Kardaberaztarren batzarrean irakurria*”. Jaia azaroaren 22an ospatzen dela kontuan izanda, lana Iñarrak 1930ekoan irakurri zuela suposatuta behar da.

Zergatik aukeratu zuen Iñarra gazteak Santa Zeziliaren gaineko gai hori? Izango al zuen zer ikusirik Oiartzungo “Schola Cantorum” delakoarekin? Izan ere, Kantaren Eskola hori Santa Zeziliaren zaindaritzapean eta elizaren babespean sortu zuten 1922an herri hartan, helburua Jainkoaren aintza eta arimen onbideratzea zuelarik¹⁰. Eskola hartan aritu ziren Jose Luis Teodororen ahizpak eta bera ere oso erlazionatua egon zen abesbatzako kideekin.

Eliz ikasketak aurrera zeramazkien moduan, karrerako graduak ere bereganatzen zituen. Horrela, 1931ko martxoan – 20, 21 eta 22an- Prima Clerical Tonsura deritzana hartu zuen, ordena txikiekin batera; ostiario eta irakurle tituluak jaso zituen eta baita exorzista zein akolitoa ere. Biharamunean, Handik urtebetera – maiatzaren 21ean, azpidiakono egin zen Gasteizko Apaizgaitegian, Plazido Angel Rey de Lemos Pelusioko Artzapezpikuaren eskutik. Eta 1932ko abenduaren 17an, Bujedo herrian, Mateo Mujika Gotzaina buru izan zuen zeremonian diakonatu zen.

Mateo Mujikak Eduardo Eskarzaga Errektoreari idatzi zion 1932ko abenduaren 13an Bujedotik Gasteizera:

“... El sábado próximo, día 17, después de conferir órdenes investiré de su dignidad pontificia al egregio arquitecto del Seminario Don Pedro Asúa.

10. Datu horiek Juan Mari Lekuonak eman zituen « Oiartzungo Schola Cantorum » artikuluan (Oiartzun urtekaria ; eta Udalaren web orrian irakurgai dagoena)

Podéis venir dos del Seminario, tú y el Señor Vicerrector, y como para órdenes vendrán también el Secretario de Cámara y el Sr. Maestro de Ceremonias, todos impondréis a una conmigo las manos a los nuevos sacerdotes y comeremos aquí. Los ordenados desayunarán aquí y retornarán para el mediodía a Vitoria. Que vengan todos, vosotros y ellos, todos, para las ocho y media.”¹¹

11. “Historia del Seminario Diocesano de Vitoria” (Andrés Ibañez Arana). 368 orrialdea

*Iñarra, 1933ko urtarrilaren 22an
apaiztu zen.*



APAIZTU

Jose Luis Iñarra 1933ko urtarrilaren 22an, igandez, apaiztu zen Bujedoko “Casa Noviciado de los Hermanos de la Doctrina Cristiana” deritzanean eta Mateo Mujika Gotzaina izan zen zeremonia zuzendu zuena. Apaiz berriaren fitxan “José Luis T. de Iñarra” agertzen da. Iñarra gazteak bere Gotzaina estimatu egiten zuen, urte dezente geroago ere egingo duen moduan. “Egunean eguneko” titulatu zuen esku koadernoan irakur dezakegu, 1970eko irailaren 20an:

“San Mateo. Gure gotzai izan zana gogoan egun guztian”¹²

Lehen meza Oiartzunen eman zuen zazpi egun beranduago, urtarrilaren 29an, bataiatua izan zen elizan bertan. Urte bereko uztailean Arabako Zirriano apaiz ekonomo izendatu zuten eta enkargatu moduan Miñao Gutxian. Urtebete bat beranduago, 1934ko irailaren 25ean Miñao Nagusiko ekonomo eta Erretanako enkargatua izatera igaro zen. Apaiztu berriaren aurreneko lantokien osagai soziologikoaz jabetuta, Laspiur errektorearen mehatxua - behin apaiztuz gero bederatzi bat urterako “Villafria”-ren gisako erdal herrixketara bidaliko zituenekoa- ez ote zen bete pentsatu behar da.

Don Jose Miguel Barandiaranek bere Egunerokoan honela idatzi zuen, 1936ko ekainaren 23an:

“En compañía de mi sobrino Rosario voy a Retana a explorar el galgal del “Alto de San Andrés” sito en aquel pueblo. Ha resultado un montón de escombros de una antigua ermita. A 1’20 metros de profundidad había restos humanos. En la taberna de Miñano Mayor comemos el cura de este pueblo (Sr. Iñarra), el seminarista de Urbina (Sr. Ormaetxea) mi sobrino y yo. La comida de los cuatro cuesta 11 pesetas”¹³

12. Mateo Mujikaren kapelaua izan zen Benito Nafarrete aramaioarrak esanda dakit Iñarrak behin baino gehiagotan egin ziola bisita Zarautzen bera apaiztu zuen Gotzainari.

13. Op.cit.

la-ia sei urte kostatu zitzaion Barandiarani Erretanako hondar haiek iker-tzera iristea, izan ere 1930eko irailaren 21ean heldu zen lehen aldiz herrixka hartara, behin bertatik trenez igarotzean muino batean antzemandako harri piloak arreta irabazita. Bere Egunerokoan ere idatzita utzi zuenez, 1933ko azaroaren 2tik Miñaotik pasatzean asaldatu egin zen, herriko plazan gazteak dantza egiten ikusi baitzituen, “*el agarrado*” iretargiaren argitan eta infernuko hauspoaren erritmora.

Baina gorago nioen bezala, Jose Luis Iñarra apaiz gazteak ez zuen bere arabar parroketan, Jose Miguel maisu ohiarekin lotzen zuen sentimenduaren parekorik antzeman. Urte zailak ziren eta Araba, Euskal Herri osoa bezala, alderdi politiko desberdinen mezuek gainezkatzen zuten. 1933ko azaroaren 5ean euskal Estatuaren aurreproiektua onartu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Ordurako Iñarra apaizaren izena zenbait politikoren ahotan azaltzen zen, batez ere tradizionalisten artean, txarrerako. Hil berdinaren 19an Gorteetarako hauteskundeak izan ziren eta Jose Luis Oriol diputatuak arabar herri txikietan euskal Estatutuaren kontra burutu kanpainari aurre egin zion Iñarrak. Oiarzuarra Frantzisko Javier Landaburu jeltzalearen alde ageri zen.

1936ko Otsailaren 16an osterara egin ziren hauteskundeak Espainiako Gorteetara eta Gasteizko eliz barrutietan tradizionalistek, liberal demokratek, erradikalek eta cedistek euskal abertzaleen aurka zuzendutako propagandan masoitzat eta antikatolikotzat hartzen zituzten. Martxoaren 1ean izan zen bigarren bueltan, Jose Luis Iñarrak, Mateo Mujika Gotzainaren deia jarraiki, EAJ-PNV katolikoa zela adierazi behar izan zuen bere eliztarren artean. Hala ere, ustez abertzaleen alde bozka zezaketen apaizgai eta apaiz gazte asko zerrendetatik kanpo geratu ziren eta, ondorioz, Araban ez zuten jeltzaleek ordezkariarik lortu.

Hauteskunde haietan Oriol izan zen berriz ere hautatua eta, diotenez, ez zuen aurrerantzean Jose Luis Iñarra, Miñao Nagusiko apaiza ahaztu. Oriol jaunak 1936ko maiatzean Falangea finantzatu zuen, Errepublikaren kontrako konspirazioa bultzatuz. Bere boteretik 1936ko uztailaren matxinada faxista zuzen-zuzenean eragiteraino iritsitako gizakumeak ez bide zuen apaiz gaztea burutik kentzen eta, behin frankistak Arabako herrialdean nagusituz gero, Mateo Mujika Gotzainari exijitu zion, Miñaotik beste norabait eramatera oiarzuarra, zigortuta. Baina Gotzainak nahikoa zuen bere zama arintzeaz.

Uztailaren 18ko altxamenduak Miñaon harrapatu zuen Iñarra, berarekin Juanita arreba eta Primi Lekuona, On Manuelen iloba eta Juan Mariren arreba, zituelarik. Frentea zenbait kilometrotara egonda, faxistek ez zituzten inportunatu, nahiz eta Otxandioko Damian Zelaia abadea zenbait egunetan gordeta eduki zuten.

Mateo Mujika erbestean, lan toki berria eman zioten eliz barrutian Iñarri 1936ko azaroaren 25ean: Arabako Bobeda¹⁴, bertako apaiz ekonomo gisa. Hiru urte luze eman zituen karguan, harik eta 1940ko urtarrilaren 2an Francisco Javier Lauzurica Administratzaile Apostolikoak Gaubeako artzapez izendatu arte. Bertan urtebete bat iraun zuen, oiartzuandarraren iaioitasunak beste herri baterako balio lezakeela pentsatu baitzuen Lauzuricak.

14. 2005eko azaroaren 19an bisita egin zuen Eusebio Iñarrak Bobedako elizara, eta bertan organoa jotzen 86 urteko agure bat aurkitu zuen. Gizon hark aitortu zionez Jose Luis Iñarra izan zen bere lehen musika irakaslea parrokia hartan bertan.

LAUZURICA ETA IÑARRA: ARRASATERA!

Francisco Javier Lauzurica Torralba lurretan jaio zen 1890ean. Valentzia-ko Gotzain laguntzaile izan zen eta XX mendeko hirugarren hamarkadan harreman estuak izan zituen Jose Maria Escrivá de Balaguer Opus Dei-ko fundatzailearekin. Gerrak Durangon harrapatu zuen, oporretan bere senitar-tekoekin, eta Alberto Onaindia apaiz abertzaleari adierazi zion lehen bait lehen Erromara joan behar zuela Aita Sainduari espainiar elizak nola erreakzionatu behar zuen galdetzeko.

Bizkaiko gobernadoreak, Onaindiaren aholkuz, bide eman zion itsasontziz Bilbotik Baionara joateko eta handik Erromara. Baina behin Baionan lur hartuta, Dantxarineako mugan agertu zen, frankisten aurrera, bere benetako asmoa zena. Franco jeneralak Lauzuricaren jokoeraz jakin zuenean *“Ya tengo un obispo para la diócesis”*¹⁵ esan zuen. Lauzuricak 1937ko irailaren 14an hartu zuen Gasteizko eliz barrutiko Administratzaile Apostoliko goi kargua, Mateo Mujika erbestera tuaren orde. Zergatik Administratzaile Apostoliko? Mujikaren dimisiorik gabe ezin zelako Gotzain berririk izendatu.¹⁶

Lauzurica eliz barrutiko erregimen frankistaren aurpegia izan zen sei urtez. Tarte horretan, frankistak herri nagusietara sartzen ziren bakoitzean “Te Deum” arranditsua eskaintzen zuen; deitoratu egin zituen frankistek fusi-latutako apaizak – Arrasateko hiruak ere- Francoren aldean eroritakoak laututzen zituen bitartean; karta bat bidali zien eliztarrei, eskatuz: *«la total incorporación al Movimiento Nacional, por ser defensor de los derechos de Dios, de la Iglesia Católica y de la Patria, que no es otra que nuestra madre España...»* ; Escrivá de Balaguer-n “Camino” liburuaren lehen edizioari hitzaurrea egin zion, adieraziz: *“Lector, no descanses; vela siempre y está alerta, porque el enemigo no duerme. Si estas máximas las conviertes en*

15. Fondo Bernardo Estornés Lasa. Enciclopedia Auñamendi (Eusko Ikaskuntza)

16. Gotzain dimisionatuei Erromak beste eliz barruti berri bat eman behar die. Mujkari, behin dimisioa azalduta, Cinnako Gotzain titulua eman zioten. Cinnako antzinako eliz barruti bat zen – Galazia (Galata)ko Anciran - gaurko Ankara- egoitza zuelarik. Elizak “in partibus infidelium” esaten die egoitza horiei, eta ohorezko titulua bakarrik da Gotzainarena. Mateo Mujika Gotzaina Kanbon bizi izan zen.

*vida propia, serás un imitador perfecto de Jesucristo y un caballero sin tacha. Y con cristos como tú volverá España a la antigua grandeza de sus santos, sabios y héroes*¹⁷

Jose Luis Iñarra Arrasatera heldu zenean zortzi urteko eskarmentua zerman berarekin eliz funtziotan. Ez zen gutxi, baina ordura artekoak herri txiki eta zeharo desberdinak izan zituen, soziologia arras diferentekoak. Lauzuricak deitu zuenean Arrasateko eliztarren ardura hartzea agintzeko Iñarrak bere zalantzak azaldu zizkion, kargurako egokiena izango ote zen kezkatuta. Bikario Nagusiak aurreratua, Iñarrak bazuen lehendik Administratzaile Apostolikoaren asmoaren berri, eta horrek aukera eman zion oiartzuarrari bere buruari galderak egiteko, Lauzuricaren aurrera ageri aitzin.

Administratzaile Apostolikoak aurki ezabatu zizkion zalantzak: menpekotsuna zor zion bere nagusiarri eta horrek uste zuen une hartan Iñarra zela Arrasaterako aproposena. Batez ere Gaubeako eliztarrekin burutuak eskaintzen zion apaiz gazteari lan onaren labela. Hori bai, Lauzuricak garbi asko utzi zuen Iñarrarengandik eliz apostolaturako eskaintza zabal eta bakarra espero zuela, inolako desbideraketarik gabe. *“Badakit euskaltzale zarela”* esan bide zion *“Hori ez da bekatu larria... baina apaiz batek alde batera utzi behar ditu bere keria politikoak. Ez dituzu sentimenduak nahastu behar”*

Arrasaterako izendapena 1941eko urtarrilaren 13an izan zen eta handik gutxira – otsailaren 6an - sarrailegintzako hirira iritsi zen. David Esnal orduko erretorearen ordezkari zihon, hura Irunera destinatu zuten eta. Esnalek denbora gutxi zerman Arrasaten, 1936ko urriaren 24an fusilatutako Jose Joakin Arin ordezkatzera ailegatu baitzen. Jose Luis Iñarraren izendapen berria Arrasateko apaiz ekonomoa eta artzapeza tituluarekin osatzen zen. Ezaguna den moduan, aginduei jarraiki Jose Luis Iñarrak eta Jose Maria Arizmendiarrietak¹⁸ batera heldu behar zuten Arrasatera baina, itxura denez, elur jausi batek erretentitu zuen erretorea Gasteizen eta biharamunean agertu zen herrira, bere maletatxoarekin eta ilusio zein errezelo handiekin.

17. “El nudo corredizo. Euskal Herria bajo el primer franquismo” Javier Sánchez Erauskin. Txalaparta.1994

18. Roberto Agirre ordezkatzera zetoren Arizmendiarieta., hura Errenterira aldatu baitzuten erretore gisa. Iñarraren irakaslea izan zen Agirre Gasteizko Apaizgaitegian. Prefektua izatera iritsi zen, baina 1937an Lauzurica Administratzaile Apostolikoak ez zuen Agirrerengan konfiantza izan eta baztertuta geratu zen. 1937ko azaroaren 19an izendatu zuten Arrasateko apaiz lagunkide.



Urte hartan, aldaketa batzuen ondorioz, Arrasateko parrokiako apaizak Frantzisko Imaz, Luis Dolara, Justino Uribesalgo eta Dionisio Isasmendi ziren. 1941eko otsailean, Jose Luis Iñarra eta Jose Maria Arizmendiarieta gehitu ziren, azken hori apaiz lagunkide moduan¹⁹. Sasoi hartako arratsalde batean

“Hasiera batetik aritu behar izan zuen Iñarrak arrasatearren arteko gizarte elkartasuna lortzen”

19. Jesus Larrañagak bere “Don Jose Maria Arizmendiarieta y la experiencia cooperativa de Mondragón” liburuan honela dio: “El espectro parroquial va desde el puntilloso liturgista (D. Paco Imaz), el aparatoso sermoneador (D. Luis Dolara), el humilde organista (D. Dionisio Isasmendi), el ultimista (D. José Luis Iñarra) y el aprendiz de sociólogo (D. José María Arizmendi)”

Gasteiztik Arrasatera Luis Dolara zetorren eta aldamenean eserita zeudenek ongi entzun zezaten nonbait *“Orain ere beste apaiz gazte bi datoz. Ez dakit gai izango ote diren futbol talde bat besterik egiteko!”* esan zuen. Ondorioei bagaokozkie, Dolara okertu egin zela baieztatu egin behar da.

Urterik gehien zeramana Frantzisko Imaz “Don Paco” zen, 1900an Aramaion apaiztu eta handik gutxira heldu baitzen Arrasatera. Imaz, Uribesalgo, Iñarra eta Arizmendiarrjeta Apirilean jaiok ziren, 9, 14, 15 eta 22an, hurrenez hurren. Hori dela eta, Don Pacok – adindua izanik- *“Txitas de Abril”* esaten zuen beste hiruengatik. Bere aldetik Iñarrak zioen, berak parrokian Apirilean *“novena”*, *“víspera”* eta *“octava”* zituela, beste hiruen jaiotegunak zirela eta eta eliz hizkuntza erabiliz.

Erretoreak eta Don Pacok aitorlekuak elkarren ondoan zeuzkaten parrokian. Biak, gainera, modu antzeratsukoak ziren sakramentua burutzeari zegokionez. Azkarrak euren deliberamenduetan, ez zioten bekatari errukarriari galdera konprometigarriak egiten. Aitortzera joandakoetatik gehienek norekin nahi zuten barnea hustu garbi zuten arren, baziren beti zalantzan zeudenak ere eta euren kontzientziak arindu aurretik halako *“inorena ez zen lur”*-eko bankuetan belauniko itxaroten ari ziren bitartean... penitentziaz pentsatze soilarekin beldurtzen zirenak. Haietako askok arintasun handia jasoko zuten, bi aitorlekuen ondoan artean barrua deskargatu gabe zeudela Jaun hartzeko ordua heldu zitzaien goiz hartan. Hartaz jabetuta, Don Pacok aitorlekutik atera zen eta *“Bekatu larria duenak jaso beza eskua. Gainontzekook... ospa hemendik!* agindu zien.

Nolakoa izan zen herriak Iñarrari eskainitako harrera? Orduko arrasatear askoren baitan Jose Joakin Arin zenaren irudiak bizirik irauten zuen artean, hark utzitako hutsunea ez baitzuen David Esnalek bete ahal izan. Batzuen ustez, Esnal Arinen antitesia zen eliz estiloan. Hori zela eta, Iñarra heltzera-koan begiak erretore berriarengan jarri ziren, nondik joko ote zuen irrikan. Iñarrak bazekien hori, eta prest zegoen herriko eliztar guztientzako abadea izateko. Nahiz eta zaila gerta zekioken.

Jose Luis Iñarrak bazekien ere arrasateararengan artean zabalik zeudela gerrako zauriak²⁰. Baina Lauzuricak eliz apostolatua agindu zion eta horri

20. Uneko giro politikoaz ideia bat egiteko, diodan urte hartako ekainean Sobiet Batasunaren kontra borrokatzeko División Azul izenekoa osatu zuela Francoren erregimenak. Bestalde, Francok berak – Jaime de Andrade izen-goitiarekin idatzitako *“Raza”* eleberraren gaineko pelikula hasi zen errodatzen.

atxiki behar zitzaion, nahita ez. Gizarte oreka eragitea eta jartzeari heldu behar zion, aurrera joko bazuen. Kolore batekoak zein bestekoak uneoro berari begira egongo zirela ezagutzen zuen eta bere buruari zin egin zion eliztar guztiak parametro berdinarekin neurtuko zituela.

Domingo Arzamendi zen herriko alkatea garai hartan eta erretoreak bisita egin zion, agintari zibilar bere lan egitasmoaren berri eman behar ziola iruditu zitzaion eta²¹. Alkateak konfiantzazko botoa eman zion eta Iñarra lasaiago ekin ahal izan zion bere betebeharrari. Ziur aski, Domingo Arzamendik berak ahalbidetu zion Union Cerrajerako agintarienganako sarrera. Eta esan behar da horiek mesfidatiago agertu zirela Arizmendiarrietarekiko Iñarrarekiko baino. Dirudenez, lehengoarekiko deskonfiantza egunetik egunera zihoan hazten.

Union Cerrajerak 1943an entregatu zizkien Musakolako lehen etxebizitzak bere langileei eta horren kariaz auzoari eliza bat ongi etorriko zitzaioela pentsatu zuten eta Iñarrak lagundu zion enpresako zuzendaritzari proiektuaren diseinuan. Luis Astiazaran izan zen arkitektoa eta 1945eko maiatzaren 15ean inauguratu zen eliza, erretoreak bedeinkatu zuelarik, meza nagusia ospatu aurretik. Eta ordudanik Iñarra izan zen Musakolako kultuaz zuzenean arduratzen zena, 1952an Pablo Barrena bertako arduraduna izendatu zuten arte.

Adierazita geratu den bezala, Jose Luis Iñarra Gaubeako Hiriberriko erretore izatetik zetorren Arrasatera eta berarekin Miñao Goieneko emakume bat zekarren “amakasie” legez. Apolonia²² zen, “Poloni” esaten zion Iñarrak, Bobedan ere laguntzaile izan zuena. Andre isil, motel eta grisa bide zen. Ezagutu zutenek umorez diotenez, emakume hark Eguberri egunean ere ez zuen irribarrerik egiten. Herri txiki batera ohitua, ez zion eutsi ahal izan, Arrasateko erretore berriaren etxea bilakatzen ari zen lan zurrunbiloari. Garai hartan erretorearen etxean Jose Maria Arizmendiarieta ere bizi zen. Etxeak bi solairu zituen. Behekoan, bi harrera gela zabal eta sukaldea zeuden, Jose Joakin Arinek eratutako moduan. Goikoan, sei bat logela zituen – bakoitzak bere konketarekin- eta komuna dutexarekin.

Apaizen ohiko joan etorriak gutxi bailiran, Juan Mari Lekuona euskaltzale handia izango zena eta iñarratarren zeharkako senitartekoa, Arrasatera erre-

21. Gero etorri ziren Isidoro Etxebarria, Santiago Bastida, Julio Otaduy, Justo Uribarrena, Andres Bidaburu, Juan Manuel Azkoaga, Pedro Basterretxea eta Jose Antonio Altuna.

22. Ezina izan zait abizena zehaztea, baina bai jakin dut behin Miñaora itzuli ondoren ezkondu egin zela mutil zahar batekin eta, handik lasterrera banandu egin zirela.

torearekin bizitzera etorri zen 1942an. Arrazoia? Gose garaia zen eta jan egin behar zen, alde batetik, eta, bestetik, ikasketak Oiartzungo bere ohiko girotik kanpo egitea, erdaraz ongi jabetzeko, eta gainera konfiantza osoko abade baten etxean. Juan Mari Lekuonak Arrasateko biatoristekin ikasi zuen pare bat urtez, Apaizgaitegiko bidea mutil kozkortuta hartu aitzin. Neguko hileetan ez ezik, udak ere ematen zituen Arrasaten... eta, orduko bere adiskide arrasatear batzuek diotenez, orduko neska batzu Juan Mariz erdi maiteminduta zeuden. Hain sustraitua zegoen Juan Mari Arrasaterekin, non apaiztu Arrasaten bertan egin zen, 1953ko ekainaren 29an, Font i Andreu Gotzaina buru izan zuen zeremonian. Ekitaldian, Arrasateko beste lau gazte ordenatu ziren egun hartan: Tomas Iturbe, Juan Bautista San Miguel, Jose María Sarrionandia eta Bitoriano Aranburu.

Erretorearen etxea jendez beteta egon ohi zen. Parrokiako eliztarrez gain, herritik igarotzen ziren abadeak, erlijiosoak eta hainbat pertsonaia abadetxera jotzen zuten aterpe bila. Mugimendu hari ezin helduz, nonbait, Apoloniak bere herrira itzuli nahi zuela azaldu zion Jose Luis Iñarrari. Ez bide zitzaion gaizki etorri erabaki hura erretoreari, esku libreak utzi baitzizkion bere etxea beste era batera eta pertsona desberdinekin antolatzeko.

Haren ordeaz, Iñarrak bere koinata Mercedes Zapirainengan²³ pentsatu zuen, 1936tik Eusebio anaiaren alargun zegoena, bi umerekin. Eta 1944ko abenduaren 5ean, Ramón Aranbarri “Baranda”-k gidatutako kamioi batean Arrasatera heldu ziren Mercedes, Libe, Eusebio –9 eta 8 urterekin– eta erretorearen ama, bera ere alargun, Oiartzundik, bizimodu berri baterako gertu²⁴. Eusebiok ederto gogoratzen du osabak argudio orijinalak erabili zituela arreba eta bera –arteaz umetxoak– Oiartzundik ateratzen laguntzeko eta beste herri zeharo desberdinerara aldatzeko. *“Oiartzunera zetorrenean, almendrak ekartzen zizkigun, zuri goxo horietakoak... eta Arrasateko usoek haien gisako arrautzak jartzen zituztela esaten zigun... Gugan, noski, Arrasaterako gogoa pizten zuen horrela...”*

23. Eusebio Iñarraren alargunsa zen Mercedes. Mercedesen aitona, Oiartzungoa, Santa Cruz apaizaren bizkar zaina izan zen.

24. Eusebiok Arrasateri buruz duen lehen oroitzapena San Nicolas eguneko jaia da, herrira iritsi eta biharamunean ospatua. Oiartzunen abenduaren 5ean izaten zen. Beraz, 1944 urte hartan birritan abestu zituen bertso eskaleak, modu diferentean.

“Poloni” aurki aldendu zen bere herrira, eta erretorearen etxea berotasunez bete zen aspaldiko partez. Oso emakume fina zen Mercedes, polita eta langilea. Koinatuaren eskuzabaltasunak kutsatua, nonbait, ez da, beraz, harrigarria etxe hura beti jendez gainezka egotea eta denok emakume haren gaineko laudorioak egitea. Erretorearen ama, berriz, emakume isila zen eta ziur aski Oiartzungo bere ohiko ingurutik erauzia izateak areagotu zuen nolakotasun hura; eta beraren adineko batentzat, gainera, Arrasateko bizimodua ulertzea ez zen bat ere erreza. Tertuliakideak zituen Justo Jauregi abadearen ama eta Justina Aranbururena. Eta, noizean behin, Uribarri auzoan bizi zen urnietar lagun batenganaino heltzen zen, sikera harekin euskara ulergarri batean hitz egiteko²⁵. Esan behar da, bestalde, Gregorio erretorearen anaia ere abadetxera etorri zela bizitzera 1945ean, Andazarrateko osasun etxetik igaro ondoren.

Mercedesek Oiartzunen utzitako sendia bisitatzen zuen lantzean behin eta 1947ko abuztuan, Eusebio txikia berarekin hartuta, egun batzuk lasai ematera joan zen jaioterrira. Itzultzean, Zarautzeko jaiak zirela eta, Mercedesek Aiako “Arbestain Haundi” baserrian ezkontuta zeukan Maria ahizparengana iritsi ziren abuztuaren 15ean. Baserritik bertatik su artifizialak ikusi ondoren, ama eta Eusebio oheratu egin ziren, biharamuneko trena hartzeko asmoarekin. Hurrengo goizean ahizpa deitzera joan zitzaizenean hilda aurkitu zuen ohean Mercedes.

Telegrama batek eman zion heriotzaren berri Jose Luis Iñarrari, parrokiako sakristian meza emateko prestatzen ari zela. Mezua irakurri eta erretorea lurrera jausi zen, konorterik gabe. Une haietan erretorearekin zegoen Segundo Arzamendi adiskide eta laguntzaile fidelak suspertuta, Zarautzeko bidean jarri zen auto batean, berarekin Libe loba, zenduaren alaba, zeramala. Hileta elizkizunak herri hartako parrokian egin ziren eta bertako hilerrian ehortzi zuten Mercedesen gorpua.

Jose Luis Iñarrarengan sekulako galera adierazi zuen koinataren heriotzak. Baina bizitzak aurrera jarraitu behar zuen eta garbi zegoen bizimodua berregituratzea zegokiola, batez ere bi gaztetxo umezurtzak berarekin bizi

25. Antonia Orkaizagirre 1953ko azaroaren 21ean hil zen, Arrasaten.

zirelako. Eta Francisca arreba deitu zuen Arrasatera alda zedin, etxeko laguntzaile gisa. Francisca –Pakita etxekoentzat– Donostiako Harriet okulistaren etxean ari zen, sukaldari gisa, eta lan on hura utzita anaiarengana jo zuen, betiko. Bera izango zen aurrerantzean Jose Luis anaiaren laguntzailea, ama adinduaren euskarri makulua eta bi iloba umezurtzen ama. Eta denok Arrasateko abadetxean bizi izan ziren.

Handik gutxira, eta abadetxeko bi solairuek gomazkoak ziruditela, beste loba bat ere jaso zuen Jose Luis Iñarrak etxean, hain zuzen Juana arrebaren Asun alaba txikia. Hiru gaztetxoak ziren erretorearen alaitasuna, biziki gozatzun baitzuen beraiekin. Diotenez, horretan iñarratarren ezpalekoa zen, denak izan baitira oso umezaleak. Asunek urte batzuk egin zituen Arrasaten, batxilerra hasi arte, hain justu. Baina hura joanda, beste bi loba –Hermenegildoren seme Juanito²⁶ eta alaba Maite– ekarri zituen, Eskola Profesionalean ikas zezaten.

Eta zer esan, egun batzuetarako erretorearen etxean aterpe aurkitzen zuten dozenaka lagunei buruz? Apaiz²⁷, erlijioso, kulturako pertsonaiak, maila guztietako herritarrak... politikaz ihesi zebilen bat edo beste eta gotzainak. Gela²⁸ bati Gotzainaren Gela esaten zioten etxe hartan, eta bertatik Font i Andreu, Zenon Aramburu, Lorenzo Bereziartua, Jacinto Argaya, Angel Sukia eta beste batzuk igaro ziren. Toki berezia eskaintzen zitzaien Manuel Lekuona eta Jose Miguel Barandiarani. Eta behartsuak. Iñarra hurbildik ezagutu zutenen ahotan maiz entzun daitekeen baieztapena da: batez ere txiroak zituen gogoan.

26. Juanito – Jon Iñarra- Oiartzungo alkate izatera iritsi zen HB-rekin. Oiartzungo Udalaren web orrian hari egindako elkarrizketa batean honela irakur daiteke: “Arrasatera bidali ninduten ikastera, hamar urte nituela. Arrasaten apaiza zen osabarengana, Jose Luis Iñarrarengana bidali ninduten. Arrasaten 18 urte bitartean egon nintzen elektrizitateko maestria ikasten. Osaba apaizarekin oso esperientzia polita bizi nuen, beti oso irekia izan zelako nirekin. Gogoan dut Arrasateko mugimenduaren eragile nagusietako izan zen Arizmendiarieta, gu bizi ginen etxe berean bizi zela”

27. Iñarraren ama hil zen egunean, sei josulagun gazte zeuden lojatuta erretorearen etxean, Misoak ematen ari baitziren parrokian.

28. 1958ko maiatzean Jesus Guridi musika konposagileak astebete eman zuen Arrasaten, “El Caserío” bere obraren entsaiu eta emanaldietan, hil hartan aurkeztu baitzuen herriko talde batek zarzuela hura Gurea zine aretoan. Madrilera itzuli zenean Jesus Aranbarri bere lagunari esan zion Arrasaten oso abegitsu hartu zutela eta lo “Gozzainaren Gela” egin zuela.

Jose Luis Iñarrak egunez egun ikusten zuen bere ahalegina eliztarrengana hobeto heltzen zela, eta begirunez begiratzen ziotela, gero eta konfiantza handiagoarekin. Poliki-poliki herritarren errespetua irabazi zuen. Apaizekin ongi eramateaz gain, talde eraginkorra osatu zuen herriko apaizgaiekin ere, funtzio laguntzailetan erabili zuena. Facundo Sampedro, Jesus San Miguel, Pedro Iturbe, Jose Berezibar eta Javier Berezibar gazteekin, adibidez, parrokiako zentsua burutu zuen.

Parrokiako pertsonalaren artean aldaketa batzuk eman ziren eta, horrela, 1946an Luis Dolara Teruelera bidali zuten eta haren ordeztu, Apaizgaitegiko urteetatik Iñarraren ezaguna zuen Justo Jauregi-Arraburu²⁹ arrasatear semea iritsi zen. Garagartzako maisuaren semea zen eta hura hil zenean, etxea maisu berriari utzi behar izan zitzaioke, ama alarguna kale gorrira joan zen. Iñarrak eskabidea egin zuen Gotzaitegian bere ikaskidea alda zezaten Arrasatera. Justo Jauregik egundo lagundu zion Iñarrari elizako artxibategi ederreko ordenamenduan.

Apaizen taldeak konposaketa berdinarekin jarraitu zuen bosgarren hamarkadaren azken urteetaraino. Francisco Imaz “Don Paco” 1957ko amaieran hil zen, Justino Uribesalgo 1958ko urtarrilean eta handik gutxira Justo Jauregi-Arraburu³⁰ azken inkorporazioa. Haiek ordezkatzera, Tiburcio Sagasta, Teodoro Goñi eta Javier Etxebarria heldu ziren.

29. Jose Miguel de Barandiaran. Diario personal” aipatutako liburuan irakurtzen da: “Día 23, domingo (1928) En el tren de las 8h. 40m. Fui a Mondragón, y de aquí, en el autobús de Aramayona, a Garagarza. En el monte Bostate de este barrio visité las cuevas Kobaundi, Kobatxo y Kobatxiki, en donde ha descubierto yacimientos prehistóricos mi discípulo D. Justo Jáuregui. Fotografíe la montaña desde las proximidades de Garagarza, la cueva superior... y el grupo de acompañantes. Estos eran los Sres. Urrutia (párroco de Garagarza), Arrúe (alcalde de Arechavaleta), Aznar (oficinista de la fábrica “Beroa”), Escalera Maidagán, Urtubi (farmacéutico de Arechavaleta), Jáuregui (maestro de Garagarza) y tres hijos de éste (uno de ellos el mencionado Justo) y los dos hermanos Santa Marina (uno de ellos seminarista). Fui a comer a la fonda de Santa Agueda. Comí en compañía de los Sres. Arrúe y Aznar. Visité al capellán D. Leonardo de Guridi. Después volví a Garagarza y de aquí, en autobús, bajé a Mondragón. En el tren de las 5’35 volví a Vitoria.

En la iglesia de Garagarza ví un retablo plateresco del siglo XVI, con cuadros en que hay relieves que representan escenas conmemorativas de la aparición del arcángel S. Miguel en el monte Gargano”

30. “Justo de Jauregi-Arraburu y Leibar Pbro.” Horrela sinatu zuen “Anteiglesia de Garagarza (Mondragón) Datos para una monografía, extractados, principalmente, de su archivo parroquial” izenburuko lana. Lan ederra da, argitarara gabea, eta egileak bertan dioenez lanerako iturrietako bat “Resúmen de las principales curiosidades de la Villa de Mondragón, seleccionadas de un manuscrito de Don Miguel Madinabeitia, Secretario que fue de su Ayuntamiento” por D. José Luis Iñarra, Arcipreste de Mondragón (ejemplar mecanografiado existente en su biblioteca particular)” izan zuen.

Garai artan, pastoral-lanak -apaizen lanak- kultuaren inguruan izaten ziren, gehien bat. Goizean - 7rak aldera- elizara joan eta zegokien meza eman behar zuten, eta bien bitartean aitortza lekuan egon behar zuen apaiz bakoitzak, inor aitortzera joaten bazen kasu egiteko. Gero, bere kasuan, hileta elizkizunak ospatzen ziren. Ez ziren gaurko modukoak, inondik ere, goizeko orduetan burutzen baitziren eta hildakoaren sendiak ordain zezakeen mailari egokitzen ziren. Batzuetan goiz guztia eramaten zuten hiletak. Apaizak eskoletara ere joaten ziren doktrina irakastera eta batzuk Eskola Profesionalen klaseak ematen zituzten. Iluntzean izaten ziren apaizen eliztarrekiko lotura modu hertsienean burututako lanak. Ekintza Katolikoa eta Luistar eta Mariaren Alaben bilerak, adibidez. Neskak abade etxera biltzen ziren eta mutilak, berriz, "Centro de Acción Católica"ra.

"Bizitza arruntetik kanpo, Arrasateko parrokiaren gauza berezi batzuk topatu nituen baina deigarriena inprobisazioa izan zen. Ez genuen organizazio finko bat gure artean. Adibidez: Meza emateko ordua bezperan adierazten zigun erretoreak eta hileta batean nor zer egin behar zuen ez genekien erretoreak tarte labur batekin esan arte. Etxe berdinean bizi ginen, beti elkarrekin ginen... Baina Jose Luis Iñarra etzan behin ere gizon organizatua izan, inprobisazio hutsa baizik, arlo guztietan. Jose Maria Arizmendiarrietak ere ezin izan zuen sekula "hezitu". Hori izan zen Arizmendiarrietaren buruhausterik nagusienetakoa parrokiako bizitzan. Ez zegoen ez programarik, ez egutegirik, parrokoaren azken orduko erabakia, baizik"³¹

Inprobisazio horren ondorio bat apaizen arteko koordinazio makala zen. Oso bilera gutxi egiten zuten euren artean. Garai haietan apaizek kabildoan hilero bildu behar izaten zuten, gai filosofiko eta etikoak aztertzeko. Gotzaindegitik bidaltzen zitzaizkien gaiak ziren, eta behin denen artean eta bakoitzak bere aldetik aztertuz gero erantzunak Gotzaindegira igorri behar zituzten. Baina behin baino gehiagotan jaso zuen Arrasateko erretoreak Bikario Nagusiaren deia, eskatutako erantzunen eske.

"Ekonomia ere berdin zebilen... Halako batean jasotzen genuen hileko soldata... Iñarraren boltsikoan sartzen zena...bestetik irtetzen zen... Hamaika

31. Javier Etxebarriaren adierazpenak

laguntza ixilik egingo zuen! Baina ez genuen ez presupuesto ezta balantzerik ere. Esan behar ez dago, gure parrokian ez zen izan Junta Parrokialarik. Arazo bat sortzen zela? Laister konpoduko zuen parrokoak honi edo besteari deitua. Hala ere giro ona zen gure artean. Ondo konpontzen ginen hau egiteko edo bestea bultzatzeko. Erabakiak zutik hartuko genituen baina beti aurrera begira. Nik asko maite nuen erretorea. Gizon ona zen, bihotz handikoa, laguna, leuna eta hurbila, zerbitzaria inor baino gehiago, etzan geldi egotekoa, hona eta hara ibili egin behar zuen, gaixoak bisitatu, bestearekin hitz egin... elizkoia eta euskalduna. Maite zuen Mondragoe³²”

Jose Luis Iñarrak Arrasateko bere etxean jaso zuen Mateo Mujika Gotzainak 1945ean Ipar Euskal Herrian idatzitako “Imperativos de mi conciencia” dokumentua. Erregimen frankistaren begi luzeetatik urrun, eskuz esku eta etxez etxe zirkulatzen ari zen idazki hura herriaren sufrikarioaren deskribapen gordina zen. Eta goitik behera irakurri zuen gogoz Arrasateko erretoreak, izan ere idazkia azken hogeitau urteetako giroaren islapen zehatza zen, neurri handi batean Iñarrak zuzeneko eragile moduan bizi izandakoa. Apaizgaitegiko urte-etara itzuli zen bere gogoan.

Mujika Gotzainak euskal apaizen aldeko defentsa egin zuen dokumentu hartan, jazartuak, zigortuak, lapurtuak eta irainduak izan zirela adieraziz. Fusi-latutako apaizen gain honela zioen euskal Gotzainak:

“El Sr. Arin, Arcipreste y Párroco de Mondragón, respetable y respetado por todos en la diócesis, mereció siempre de mis venerables antecesores, los Obispos de Vitoria, y de mí gran aprecio y consideración. Yo le vi solícito en unir a los católicos de Mondragón, de distintas ideas políticas. Yo le vi siempre diligente en atraer a buen camino, como buen Pastor, a las ovejas extraviadas de su parroquia. Los coadjutores, señores Guridi y Marquiegui, ayudaban a su párroco con celo sacerdotal a esta santa y redentora labor. ¿Quién oyó jamás que aquellos tres sacerdotes hicieran campañas contra España, de palabra o de obra?”

Dokumentu hori argitaratu eta zabaldu aurretik, Iñarrak ezkutuko bideetatik ere jaso zuen, Iñaki Azpiazu Apaizgaitegiko ikaskide eta erbestera gogoz

32. Javier Etxebarriaren adierazpenak

kontra alde egitera behartutako adiskideak 1937ko maiatzaren 12an Mateo Mujikari bidalitako idazkiaren kopia. Hartan azpeitiarrak deitoratu egiten zuen Eliza ofizialaren jokaera. *“Bendito sea Dios y bienaventurado el contrabandista que me puso en la frontera”* hitzekin hasi ondoren, zioen:

“... Tal ocurrió con el Sr. Cura de Marín, el cual fue detenido en Gatzaga y fusilado en Oyarzun sin previa declaración ni juicio. Y advierta Sr. Obispo, que D. Jorge Iturri-Castillo fue denunciado por haber atacado el vals agarrado por su carácter antivasco, lo cual fue suficiente para ser considerado como nacionalista vasco, siendo así que mi dicho gran amigo era partidario del movimiento militar y admirador de Gil Robles”

Arin, Markiegi eta Guridi apaizen kasua dela eta, Iñarrak urtero meza bat esaten zuen haien arimen alde, Kristo Errege egunean³³. Eta zenbait barritsu buruarin kenduta – isilpeko kritika egiten zutenak- inork ez zion sekula ezertxo ere adierazi erretoreari meza haren konbenientziaz. Izan ere, herritarrok- eskuin zein ezkerrekoek, oro har- begirunez oroitzen zituzten Arrasaten aritutako hiru apaiz haiek, Oiartzungo kanposantuak 1936ko urrian fusilatutakoak³⁴.

Iñarrak sortu ez bazuen ere, zenbait zirkulutan gaitzespen handia piztu zuena Aita Hilario Gaztelumendi josulaguna izan zen. Behin baino gehiagotan ekarri zuen erretoreak eliz zeremonietara, hizlari sutsua baitzen, eta eliztarren artean zatiketa ekarri zuten sarritan haren berbek, abertzale izatezko kutsua antzeman zekiekeen eta. Aita Gaztelumendi eta Iñarra lehengusu propioak ziren, amak ahaizpak, eta biak ere Oiartzunen jaiok, Gaztelumendi hiru urte zaharragoa zelarik³⁵.

33. Espainiar elizaren goi ordezkariak Francoren aginduetara makurtzeaz gain, diktadoreak bestelako erakuspen praktikoak ere egiten zituen bere diskurtsu erdoilduen bitartez: Jakim Boor gaitzizenean ezkutatuta, 1942tik “Arriba” egunkarian masoien kontrako kanpaina eratu zuen eta hura bere paranoiaren islapen garbia gertatu zen. Francok berak idazten zituen artikulak, masoiak toki guztietan ikusten zituelarik. Hamar urteren buruan, 1952ko azaroan, “Masonería” liburua argitaratu zuen, izenorde bera erabiliz.

34. Oiartzungo kanposantura igotzeko “Posta” etxetik, hau da, Jose Luis Iñarra bizi izan zen etxetik pasatu behar da. Diotenez, hiru apaizek etxe haren ondoan konfesatu ondoren kanposanturako bidea hartu zuten “Te deum” abesten.

35. “Iokin Zaitegi” (1981) nire liburuan, “Hilari Gaztelumendi”-ri buruzko Zaitegiren aipamen bat irakur daiteke: hizlari bikaina. Zaitegi eta Gaztelumendi batera ibili ziren Josulagundian, Loiolan.

Gaztelumendik Arrasatera egindako agerpenik nabarmenetakoa Sortzez Garbiko bederatziurrenetarako Iñarrak eginiko deiari zegokiona zen. 1950ean bidai bat egin zuen Jose Luis Iñarrak Erromara, Pio XII-ak urte hartako aza-roaren 1ean “Munificentissimus Deus” buldaren bitartez aldarrikatutako Ama Birjinaren Igokundearen dogma zela eta. Erromatik, besteak beste, prozesio batean entzundako doinuaren oroitzapena eta eskuko pentagraman presaka jasotako notak ekarri zituen. Arrasaten, bi lehengusuek Sortzez Garbiko eliz funtzioetarako kanta bat osatu zuten, italiar musikan oinarritutakoari bertsoak jarri zizkiotela.

*Pozik ikusten zaitugu zerura zoazela
Ama zerura joan da, Jesus zen bezela.*

*Nik ere nahi nuke zurekin gora
Eraman nazazu zure ondora.*

*Jesus zerutik ekarri zuen behin batean
Berak ipintzen zaitu gaur zeruko atean.*

*Gorputz eta arima Jesusek ama zaitu zu
Gorputz eta arima zeruan zaitugu³⁶.*

Baina, dirudienez, Gaztelumendiren jokaerak disgustu bat baino gehiago ekarri zizkion Iñarrari, herriko mailan ez ezik baita probintzian ere, gobernadore zibilak ordenara deitu baitzuen erretorea. Gobernadoreak berak eskatuta, bestalde, josulaguna Loiolatik kanpo bidali zuten, zigortuta. Azpeitiko Olatz Ama Birjina 1952an koroatu zutenean esku hartu zuen sutsuki antolamendu lanetan Hilario Gaztelumendik. Jendetza izugarria bildu zen Loiolara eta banderen artean, denak, zuri eta urdinak ziren, mariar koloreak, alegia. Norbaitek salatu zuen espainiar banderarik ez egotea. Eta zigorra jarri zioten Gaztelumendiri: desterrua. Hamazortzi urtez penatu behar izan zuen bekatu hura.

36. Abesti hau Aramaioko eliza nagusian abesten da oraindik ere

Iñarrak bere lehengusuaz gain beste hizlari asko ere eramán zituen Arrasatera urte haietan. Haien artean Eugenio Agirretxe Errezilgo frantziskotarra zegoen. Agirretxe gerra ondoko hizlari erlijiosorik onenetakotzat hartzen zuten. Baina Gaztelumendirekin alderatuta bazuen funtsezko desberdintasun bat, euren betebeharreran nabarmen uzten zutena: errezildarra eskale ordenako kidea zen bitartean, oiartzundarra josulagunen ordena aristokratikoan ari zen. Horregatik lehenak bere hitzak gehiago zaindu behar zituen, bigarrenarentzat hain garrantzitsua ez zena. Eta horrela, Eugenio Agirretxeren diskurtsuan “euskaldun fededun” moduko esamolde erakargarri eta leunak entzuten ziren bitartean, Gaztelumendik ez zuen eragozpenik “Euskal Herri mozkor herri” esateko.

Aipatu dut Iñarrak Erromara egin zuen bidaia. Eta esan behar da ez zela, pasaporteá 1960an erretiratu zioten bitartean buruturiko azkena izan. 1952ko maiatzean, esaterako, Bartzelonara antolatu zuen txango bat, herriko katekista eta beste lagunekin, katalandar hiriburuan data haietan egiten ari zen Kongresu Eukaristikora. Autobusez joan ziren arrasatearrak, eta hango zereemonien artean berrogeita hamar apaiz berriren kotsagrazioari zegokionera joan ziren, haietako bat Jose Plazaola herrikidea baitzen.

Ordurarteko Kongresuetatik gehien entzuten zen musika “Cantemos al amor de los amores”³⁷ izan bazen, Bartzelonakoaz gero Iñarrak Luis Aranburu³⁸ gasteiztarraren “De rodillas Señor ante el sagrario” ren alde jo zuen, nahiz eta biak erabiltzen zituen Arrasateko prozesioetan.

Iñarra musika zalea zen arren, ezin daiteke esan interprete bezala aparte-ko doan zuenik. Dionisio Isasmendi zen parrokiako garaiko organulari titularra eta baita koruko arduraduna ere, nagusi zein tripleekin. Elkarrekin jardun zuten bitartean ederki eramán ziren erretorea eta Isasmendi, eta hark bihotzez estimatzen zuen bere laguntzaileak kantariekin burutu lana. 1953ko maiatzaren 6an agurreko omenaldia esakini zion Arrasateko herriak, Bilboko katedraleko organulari izendatu ondoren.

37. 1911an Madrilén izandako Kongresuko himnoa izan zen.

38. Aranbururen musikak – Jose María Pemanen hitzekin- Kongresu Eukaristikoaren Lehen Saria irabazi zuen. Norbaitek ez badaki zein zen Peman, diodan honako testu honen modukoak ere idazten zituela maiz: “Conquistó la zona roja como si la acariciara: ahorrando vidas, limitando bombardeos. Este es Francisco Franco, caudillo de España”

Oso ospe handia izan zuen Arrasateko parrokiako koruak eta Isasmendi-
rekin musikan hasitako gazteek urtetan eutsi diote koruko kalitateari. Iñarrak,
bere laguntzailearen maisutasunak erakarrita, atsegin zuen korura igotzea eta
entsaiuetan adi-adi egotea. Baina bere betebeharrak ez zioten hori maiz egi-
tea ahalbidetzen. Hala ere, aldaretik behar bazen ere arretaz jarraitzen zuen
koruaren emanaldia. Eta ez zutela ongi abesten iruditzen zitzaionean errieta
egiten zien, sariztatu egiten zituen erraztasun berberarekin. Adibidez, Iñarra-
ren gustuko “In paradisum” ongi abesten zutenean pezeta bana ematen zien
tipleei, horiek ziztu bizian Lorentza-renean inbertitzen zutena.

*In paradisum deducant te Angeli:
in tuo adventu suscipiant te Martyres,
et perducant te in civitatem sanctam, Jerusalem.
Chorus Angelorum te suscipiat
et cum Lazaro quondam paupere
æternam habeas requiem.*

Erretoreak bere “Egunean eguneko”-an honela utzi zuen idatzita, Arrasa-
teko parrokiaren musika kalitateari buruzko ideia bat ematen digularik:

*“Montilla’ko D. Serafin Maraver ere etorri zait, itz-asper aldi luzea egin
dugu. Emengo illeta mezak asko gusta omen zaizkio, eta erdarazkoarena
eskatu, ta illunabarrean emango diotela erantzun”*

Beste Kongresu Eukaristiko bat izan zen 1955ean, baina kasu hartan Rio
de Janeiro. Iñarrak arreba Dolores zuen Sao Paolon eta aukera arrebari bisita
bat egiteko aprobeitza zezakeela iruditu zitzaion. Halaber, Argentinako
Bahia Blancan amaren ahizpa Hilaria bizi zen, eta haraino ere ailega zitekeela
pentsatu zuen. 1955eko uztailean zen eta Argentinako egoera politikoa ez
zen bat ere ona. Domingo Peronen bigarren agintaldia zen eta Buenos Aire-
seko giroa zeharo aldrebestua zegoen. Iñarra hara iritsi baino hilabete lehe-
nago peronzaleek elizak erre zituzten argentinar hiriburuan eta zenbait herri
gehiagotan ere. Beldurtuta, Argentinara paisanoz jantzita sartu zen Jose Luis
Iñarra, Arrasateko Jose Aranburu jostunak utzitako soinekoarekin.

Euskal apaizek euren Gotzainei 1960an eginiko eskutitza zela eta, pasa-
portea kendu zioten Iñarrari eta beraz atzerrirako asmoak bertan behera utzi

behar izan zituen denboraldi batez. Urte hartako abuztuan Erromara parrokiako abesbatzarekin joateko asmoa zuen baina Arrasaten geratu behar izan zen. Hala ere, gorputzez abeslariekin egon ez bazen ere, gogoz beraiekin zihoan, eta – gainera- Arrasateko albiste korrespontsalaren moduko lanetan ihardun zuen txangoak iraun zuen bitartean. Ondokoa Iñarraren eskutitza da, 1960ko abuztuaren 19an, koruko abeslariari bidalia:

“Os estamos siguiendo la pista. En este momento salís de Florencia para Roma. Quisiera mandar esta carta en el tren de las 12. Quisiera llegara a vosotros antes de que partierais de Roma.

En realidad muy pocas cosas que decir. Lo que a vosotros y a mí más nos afecta es la noticia de que el órgano de la parroquia va a quedar desconocido. Ya está el lleno funcionando y con las octavas y superoctavas y las notas ampliadas a colocar quedará un órgano que nada tendrá que envidiar al mejor que hayáis oído y visto en Roma y en el trayecto. Los organeros están empeñados en organizar para su inauguración un concierto a todo lujo. Veremos. Don Juan³⁹ espera terminar totalmente su obra el próximo viernes. Y lo conseguirá.

Prosigue el éxodo de la gente. Los que han quedado aquí salen a los alrededores para pasar el día. Creo que no quedará ni siquiera una neskazarra sin realizar su pinito de excursión. Según me acaban de decir, el sábado, organizado por el Sindicato Comarcal, saldrá una expedición hacia Fuente-rabía etc.

Aquí sin novedad. Todo sigue igual. Hasta ahora no ha habido ninguna complicación en el desenvolvimiento de la marcha de los cultos parroquiales. Ha sido una revelación para mí y para los organeros el segundo de los hijos de D. Ignacio Goicoechea. Para la primera vez que ha actuado al órgano, que lo hizo ayer en dos bodas, muy bien. En opinión de los organeros debe de ayudársele, pues puede llegar muy lejos.

Ayer fue intervenido José Aguirreurreta en Vitoria. Según cuentan debía de tener una úlcera en el duodeno. La operación resultó un éxito, y según

39. Juan Brauni buruz ari da.

noticias de última hora que me transmite Lola, la esposa de David, ha pasado la noche muy bien. Esto para David.

Para Ferchu, que su padre está con fuerte catarro que le ha repercutido en la vejiga. Ha estado con el Dr. Uribesalgo de Vitoria y no le ha dado ninguna importancia. Anoche estuve con él y estaba muy mejorado a fuerza de los clásicos paños calientes de Casa Aramburu. Estaba levantado y en amigable charla con el Sr. Boni Iñurrigarro. ¡Ah! Y me dicen que diga a Ferchu que Manu dejó de llorar y que en cuanto tiene algún disgusto o contratiempo reclama a aitacho.

He visto por las calles o en la iglesia a muchos familiares de los que integráis la expedición a Roma y todos, al parecer, están muy bien y muy satisfechos. Yo espero que no sentiréis la ausencia de nadie y que con creces habrá suplido el P. Julián⁴⁰ lo que otros hubieran podido hacer o conseguir. Os deseo a todos que disfrutéis mucho y que traigáis nuevas cosas para ir aumentando vuestro repertorio.

Javier y su esposa ya están en casa, desde el martes a la noche. Y nada más, un abrazo kilométrico para todos”

Ikusten den legez, Iñarrak primeran bete zuen bere buruari jarritako berri emailearen betekizuna.

Loiolako San Ignacioren heriotzatik 400 urtemuga zela eta azpeitiarraren buru-hezurraren zati bat Gipuzkoako herriz herri ibili zen 1956an. Arrasatera ere heldu zen urte hartako Kristo Errege ospakizunean eta idazki bat irakurri zen eguneko mezetan, Iñarraren estiloa duena. Ikus dezagun lagin txiki bat:

“Así como lo oyes: el Gran Capitán de Loyola convertido en el Gran Capitán de Cristo... Así que, mondragoneses, todos esta noche a las nueve a la gran recepción de la reliquia de nuestro gran Capitán San Ignacio de Loyola, Patrono de Guipúzcoa. Bicis, motos y autos, con sus respectivos conductores, todos a Musacola, ante la capilla de San Isidro, para las ocho y media. Allí se os dará a besar la reliquia y acto seguido todos en marcha. Y los

40. Julian Sagasta arrasatear fraideari buruz ari da

demás al Arco de la Virgen Blanca (portalón) como un sólo hombre. Las mujeres con antelación que engalanan los balcones y ventanas. Que el Santo no se vea obligado a cerrar las manos de las gracias que nos trae, por nuestra tacañería con él. Hasta la noche⁴¹”

Arrasateko eliztarrek 1958ko urtarrilean Erretorearen Eguna izeneko ekitaldia eratu zuten, Iñarra apaiztu zenetik hogeita bost urteak ospatu behar zela aprobetxatuz. Gaueko Gurtza, Otoitzaldiko Apostolatua, Hirugarren Ordena, Ekintza Katolikoaren Gazteak, Mariaren Alabak, San Luis Kongregazioa, eta San Pedro, San Jose, San Valerio, Errosario Santua eta Veracruz Kofradiak izan ziren dei egin zutenak. Ospakizunerako data urtarrilaren 22 eta 29 aukeratu ziren, hain justu, Iñarra apaiztu zen eta lehen meza eman zuen egunak. Baina ekintza zentrala urtarrilaren 26an, igandea, egin zen.

Ospakizunaren helburua ez zen, ordea, Iñarraren lan pertsonala bakarrik eskertzea baizik eta, aldian aldiko ordezkari desberdin batek ordezkatua, erretore izatearen adierazpena aldarrikatzea, iragan hurbilekoak kontuan edukita. Horrela, San Juan Bataiatzaileko erretore izandako Ildefonso Dorronso-ro (1881-1894), Tiburzio Zatarain (1894-1911), Jose Joakin Arin (1911-1936), David Esnal (1937-1941) eta Jose Luis Iñarra aipatzen zituzten antolatzaileek iragarki-orrietan.

Ekintza zentralerako egitaraua, 26ko goizean hasi zen, goizeko 5etako mezarekin. Bata bestearen ondoren beste sei mezak jarraitu zuten eta arratsaldeko funtzio erlijiosoak. Meza Nagusiko homilia eta arratsaldeko ekitaldiko hitzaldia Gasteizko Erretorea zen Angel Sukiak eman zituen. Iñarrak berak zuzendu zuen Meza eta amaieran honako hitz hauek izan zituen bertarutakoentzat:

“La emoción me abruma. Quiero dar las gracias. Nunca sospeché que estos compañeros míos de cabildo y estos presidentes y presidentas de las comisiones y organizaciones religiosas de la parroquia hicieran algo como lo que han hecho. No por lo que a mí me afecta, sino por lo que ha podido sig-

41. Ez al zuen jakingo Iñarrak, 1581an frantziskotarrak Arrasaten instalatu aurretik, gestioak egin zirela jesuitak joan zitezela, Juan de Araozek nahi zuen moduan. Eta jesuitek ezetza eman zuten, herria maila gutxikotzat edo hartuta.



nificar de amor a la parroquia. Agradezco a todos las manifestaciones de afecto que habéis querido ofrecerme durante estos días. Gracias a estos compañeros míos, a todos vosotros y a todo el pueblo de Mondragón.

Gracias al Obispo que ofrece su Misa de hoy por mi humilde persona y gracias a aquel Obispo que hace ahora 25 años impuso sus manos episcopales sobre mi cabeza, Obispo de la Diócesis de Vitoria, D. Mateo Múgica y Urrestarazu, que ha querido expresar sus mejores deseos de corazón pater-

“Angel Sukia Gasteizko Apaizgaitegiko orduko errektoreak hitz egin zuen Erretorearen Egunean, 1958ko urtarrilaren 26an, Iñarraren zilarrezko ezteietan”.

nal. Gracias a las monjas de la Concepción que han ofrecido a Dios sus oraciones por mí y los feligreses”

Vaticanoko II Kontzilioak egundoko itxaropena piztu zuen Iñarrarengan. Juan XXIII Aita Sainduak 1959an iragarri zuen haren ospakizuna eta eliza katolikoaren printzipio askoren eguneraketa sakon bezala aurkeztu zuen. Iñarrak, bere jarrera berritzaile eta ausartetik, erronkatzat hartu zuen Kontzilioaren ondorioen aplikazioa. Eta haiek, ofizialki bederen, 1965era arte ez baziren publikoak egin ere Arrasateko erretoreak bere eskudunpeko eliza bizitzan berriztapenak ezartzeari ekin zion lehenagotik. Grina bereziaz jarraitu zuen Kontzilioaren nondik norakoa, eta elizkizunen erritoaren irekitasun handiagorearen alde agertu zen lehen unetik.

Entzutetsua da Arrasaten, Iñarrak Monterroneko Kondeekin izan zuen harremanaren oreka zail eta behartua. Beraren gisako oiartzuar peto baten-tzat aristokraziaren lilura soberan zegoen. Eta uneko eliz aginduetara makurtu behar bazen ere, erretoreak batzuetan grazia berezia eskaini zion bere jarrerari.

Franco jenerala Monterron Jauregian 1949ko abuztuaren 11n egon zen, Kondeek eskainitako afari batean. Iñarra erretorea gonbidatua izan zen afarira, beste herrikide batzuekin batera, Santiago Bastida orduko alkate falangista buru zutela. Eta herrian oso ospetsua egin zen ondoko anekdota gertatu zen afari hartan. Iñarrak, gonbidatuen artean herriko Tere Landa gaztea “ikusit” zuen eta harengana joz *“Zuk zer egiten duzu hemen?”* galde egin zion. Neskaren harridurazko keinuarengatik ohartu zen erretorea hura ez zela berak uste zuena. Eta norbaitek belarrira xuxurlatu zion: *“Francoren alaba da”*

Jeneralaren egonaldi hori Arrasaten historiako lehena eta azkena gertatu zen. Franco ez zen bakarrik azaldu. Eibarretik zetorren, etxebizitza babes ofizialeko etxabizitza bat inauguratu ondoren. Baina irakur ditzagun biharamuneko prentsako albisteak:

“Alrededor de las ocho, Su Excelencia abandonó la villa de Eibar en medio de vítores, dirigiéndose por la carretera de Elgueta a Mondragón. En esta villa, lo mismo que a su paso por Vergara, el Caudillo recibió entusiásticas demostraciones de simpatía y cariño del vecindario.

En el palacio de los marqueses de Garcillán y de Monroy⁴² permaneció unas horas Su Excelencia el Jefe del Estado, siéndole ofrecida una merienda-cena. En la misma finca se organizó una fiesta en su honor, actuando el Quinteto Urgull, la Rondalla de Educación y Descanso de Irún, así como la Banda Municipal de Mondragón.

La señora e hija de Su Excelencia, que llegaron directamente a Mondragón, eran acompañadas por el Jefe de la Casa Civil, señor marqués del Hueto de Santillán y señora.

Terminada la fiesta, Su Excelencia el Jefe del Estado emprendió el regreso a la capital, trasladándose directamente al Palacio de Ayete⁴³

Diario Vasco egunkarian xehetasun gehiago ematen zituen:

“... Se encontraban en dicha mansión, también, el ministro de Asuntos Exteriores, señor Martin Artajo; el subsecretario de la presidencia, señor Carrero Blanco; el subsecretario de Asuntos Exteriores, Conde de Casa Real; los directores generales de Política Exterior y Propaganda, señores Erice y Rocamora; el Consejero del Reino, señor Arrese; además de las autoridades civiles y militares de la provincia y otras personalidades”

Herrian oraindik ere esaten denez, Monterrongo Kondeek ez bide zuten zintzo jokatzeko parrokiarekin. Ez zen berria, beraien iritzia uneko erretorearen gaintik jartzeko jarrera. Eta lñarrak gogor egin behar izan zion auziari, ezker eskua bere ohiko maisutasunarekin erabili bazuen ere. Honela idatzi zion, 1953ko abuztuaren lehenean, uztailako 26ko Kondearen eskutitz bati erantzunez:

“Enterado del contenido de aquélla, renuevo mi postura de siempre, aún a pesar de que ciertas aseveraciones y el tono general de la carta me hayan dejado desconcertado y descorazonado. Sobre la posesión, derechos etc. del banco, no creo sea la cosa tan evidente. Tengo noticias de que ni el Obispo de Vitoria ni mi predecesor Sr. Arín (q.e.g.e) opinaban así, al menos en el

42. María del Rosario Aranguren Palaciok (Arrasaten jaioa, 1923ko abuztuaren 3an) aitarengandik jaso zituen Marquesa de Garcillán y Monroy eta Condesa de Monterrón tituluak.

43. Voz de España

mes de julio de 1915. Yo mucho le agradecería que demostrara sus pretendidos derechos, no a las “ilarriak”, hoy proscritas, sino al banco.

Si Vd. se debe a su descendencia y debe velar por los intereses y derechos de la Casa Monterrón – y ello me parece bien- tampoco debo yo tirar la parroquia. Al igual que a Vd. sus sucesores, me podría exigir responsabilidades la Iglesia. ¿No le parece que si Vd. hubiese aceptado y puesto en práctica las recomendaciones mías cuando las disonancias se suscitaron, hoy no hubiésemos rozado en estas desagradables cuestiones?”

Īñarrak, erretore bezala, Monterroneko Kondeekin arazoak zituela gauza jakina zen herrian, haiek parrokiaren egiten zuten erakuspen larderiatailea zela eta. Eta herria bere erretorearekin zegoen. Īñarrak ez zuen onartzen haien jokaera maltzurra, herriarekiko euren betebeharratik paso egiten zuten bitartean⁴⁴ elizan euren buruak nabarmentzen baitzituzten, tituluak gainerako kristauak baino gehiago izateko bidea ireki izan balie bezala. Pazientziako ontzia gainezka egin zuen tanta honako hauxe izan zen: Monterroneko jaunak 1965ean parrokiara jarleku berezi bat sartu zuen, “Condes de Monterrón” hitz gotikoeekin grabatua eta aldarearen aurreko lehen lerroan ipintzeko aginduarekin. Lurrean, berriz, “Monterron” latoizko xafla bat ezarri zen. Nola lortu zuten hura burutzea? Dirudenez, Kondeek eskutitz bat bidali zioten erretoreari operazioa egin behar zutela iragarritz... baina Īñarrak ez zuen irakurri ahal izan Arrasatetik kanpo zegoen eta.

Erretorea itzuli zenean eta hura ikusita, haserre bizian jarri zen eta bankua erretiratu zuen. Baina erabaki zuen latoizko xafla ez ukitzea. Eta hartan utzi zuen, lurrean, herria kondeak zapaltzera hel zitekeela adierazi nahi izan balu bezala. Erretorearen erreakzioaren ondorioz kondeek parrokiara azaltzeari utzi zioten. San Frantzisko-ra aldatu zuten euren jomuga... eta handik gutxira, aldiz, Bergarara.

Kondeen jauregiak kapera bat zuen eta bertan elizkizunen bat eratu nahi izatekotan, herriko erretorearen baimenez edo presentziaz antolatu behar

44. Monterroneko Kondeek ez zioten herriko ospitaleari ordaintzen, San Cristobal basiliza erosi zutenean, harekin batera ospitalearekiko hartu zuten konpromiso ekonomikoa, urteko zenbait anega gari edo dirutan bere balioa ematea, alegia. Eta ospitalea Īñarraren gairik kuttunetako zen.

zen. Horrela, kondeen eta lñarraren harremanak beroak ez ziren arren, noizean behin haien jauregira jo behar zuen erretoreak, elizkizunaren balioa ziurtatzeko. Bankuaren auziaz geroztik, gutxienez beste bi alditan elkar ikusi zuten kondeek eta erretoreak. Aurrena 1970eko irailaren 8an gertatu zen, kondeen ezkontzaren hogeita bosgarren urteurrenean⁴⁵. Bezperan honela idatzi zuen lñarrak: *“Monterroneri 6’30etan elizara etortzeko esan diot”* Eta efemeride egunean, berriz: *“Monterrontarrentzat itzalditxoa gertu dut. Eguerdian an izan gera. Elizkizuna oso polita izan da. 80-ren bat. Jaun artzen geientsuenak. Ikusgarria bazkaria serbitu digutenak. Oso polita ta azkar egiña beren lana. Maiak eratzea ta tokia zoragarriak. Akeita artzeko jauregi osteko jardiñean. Dantzariak. 4’30ak aldean alde egin det”*

Bigarrenean, zinez bere gogoz kontra joan zen jauregira. Kondeen alaba nagusiaren ezkontza⁴⁶ zen, 1974ko maiatzaren 22an, eta zeremonia Fray Justo Perez de Urbelek zuzendu zuen. Francok gerran bere bandoan hildakoen oroimenez eraikitako Valle de los Caidos-eko lehen abate primatua izan zen Perez de Urbel beneditarra. Eliz ezkontzaren lekukotasuna jaso behar zuenez gero, bihotzez estimatzen ez zuen beneditarraren laguntzaile gisa aritu zen Jose Luis lñarra jauregiko oratorioan.

45. 1945eko irailaren 8an ezkondu ziren, Arrasateko jauregian.

46. Maria del Rosario Aranguren Palacio- kondesa titularra- eta Miguel Alejandro Fernandez-Rivera Gomez bikoteak bi alaba zituen, Ana Maria eta Blanca. Herentziaz, lehenari zegokion titulua. Alberto Adrian de Alejo Munguia Kubako jatorriko estatubatuarrarekin ezkondu zen eta Iparramerikara joan ziren bizitzera. Bertan hil zen auto istripu batean.

HERRIAREN ZERBITZUAN

Jose Luis Iñarra Arrasatera iristen den garaian, gerra ondoko blokeoak eta autarkiak inposatua, krisi handia bizi zen, elikadura, etxe, osasungintza eta, oro har, gizarte baliabideetan. Arrasate eremu industrialala izanik, eragina askoz nabariagoa zen landa eremu edo nekazal inguruetan baino. Arrasaten tuberkulosia hedatu zen indar handiz eta herriko gizarte indarrak oso kezkatuta zeuden, gaixotasuna hartzen ari zen tamainarekin.

Iraganean Arrasaten Elkar Sorospeneke Kofradia batzuk izan ziren, eta 1943an Seguritate Soziala sortu aitzin ere, Arrasaten bi Ermandade ziren. Alde batetik, Union Cerrajerak sortutakoa – Hermandad de Trabajadores de Unión Cerrajera HETRUC, 1935ean jaioa- eta bestea Hermandad de San Juan Bautista, 1940koa, aurreko kofradia batzuen eta enpresa industrial eta komertzialen bategiteaz egituratua. Langileriaren beharrezanik larrienei aurre egiteko ere zenbait ekonomato, kontsumo kooperatiba eta jubilaziorako laguntzak ere baziren.

Jose Luis Iñarra barne-barneraino jabetu zen orain dela hirurogeita hiru urteko Arrasate hartan gaixotasun hark egiten zuen hondamendiaz. Etxez-etxeko bere ibilaldi nekaezin eta kontaezian tuberkulosiaren itzala noraino iristen zen ikusi ahal izan zuen. Eta horretaz kezkatuta, lehen urratsak eman zituen irtenbide bat lortzeko, orduko enpresari batzuekin hitz egin zuelarik, gaixotasunari aurre egiteko neurriak hartu behar zirela azpimarratuz. Calixto Yeregi⁴⁷ herriko medikuarekin lagunduta hamaika gaixo bisitatu zituen, egoera tamalgarri haren aurrean zer egin zitekeen aztertzeko. Eta luxurik gabeko osasun zerbitzua eratzea erabaki zen. Lantegiek bat egin zuten ideiarekin eta ia berrogeita hamar izan ziren kuota ordaintzera prestatu ziren elkarrekin, zerbitzuari eutsi ahal izateko.

1946ko uztailaren 25ean Zerbitzu Antituberkuloso ireki zen, Donostiako Dispensarioaren zuzendari zen Salvador Bravo Olalla medikuaren zuzendari-

47. Idazki hau burutzeko elkarrizketatu ditudan arrasatear gehienek iritziak, XX mendean Arrasatek igarotako pertsonarik garrantzitsuenak Iñarra, Arizmendiarieta eta Yeregi dira.

tzapean. Arrasateko zerbitziburua Yeregi medikua izan zen, Sor Agustina mertzedaria burgostarraren laguntzarekin. Herriko Ospitalean kokatu ziren instalazioetatik arrasatearren heren bat igaro ondoren – biztanleria 8.200 pertsonen osatzen zuten- 1948an 70 arrasatearri detektatu zitzairen tuberkulosia eta horietako 49 egoera larrian zeuden. Ez zen zifra makala silikosiak ere adierazten zuena, Labe Garai eta forjako langileen artean, batik bat.

Sor Agustina moja hil zenean, Iñarrak honela hitz egin zuen Arrate Irratiko ohiko bere saioan:

“Sor Agustina il da. Nork etzuan ezagutzen Sor Agustina? Aiñ ezaguna zan Mondragoe ta inguruetan, aiñ ezaguna! Naikoa zan, emen oietan SOR itza xoil-soilik esatea, ta besterik gabe, bereala igertzen genduan, itz orrekin nor adierazi nai genduan. Aiñ ezaguna zan gure Sor Agustina! Izan ere ark dispensayonan egin du lana 18 urte auetan. Erri osoa bere eskuetatik pasea dala esanda ez det uste geigikeririk ezer esaten dedanik. Bere lana zenbateraño-koa izan dan, ondo asko adierazten digute bere eskuz idatzirik utzi ditun 14.608 fitxa horiek. Eta birritan, ta amarretan eta eun bider aren eskuetatik pasa diranak, zenbat? Nork daki! Makintxo bat radiografi, radioskopi, analisi, elektrokardiograma, neumotorax, puntzio lunbar, inyeziyo ta abar eta abar eginda jua zaigu gure Sor Agustina. Ark mondragoetarrei egin dizkien mese-deak, nork kontuak eraman? Jaungoikoak bakarrik, ark eman dio gaur gero bere saria. Erria arekin zorretan geratu da, zor orren ordaintzat eman bekio erriak bere otoitzaren beroa. Bere alde gure elizan egin diren illetan ondo erakutsi dio erriak zenbat maite zuan. Nire samiñ-agurra norbaiteri erakutsi bear izango banio, nik auxe esango nuke: mondragoetarrak, laguntzen dizuet zuen naigabea⁴⁸”

Jose Luis Iñarrak ez zuen tuberkulosiaren kontrako bere lana antolakuntza arlor mugatu. Askoz gehiago inplikatu nahian, Zuzendaritza batzordekide bezala aritu zen. Bere konpromisoen artean Ospitaleko gaixoei egunero bisita egitea jarri zion bere buruari. Sor Agustinarene esanetara, erretoreak gizabide eredugarriaz ihardun zuen bere ekarpenean, zoritxarrak jotako giza-raixo haiengatik edozein sakrifizio egiteko gertu baitzegoen beti. *“Ez da arra-*

48. 1964-01-31ko data darama idazkiak

ro, erretoreak bere mukizapiarekin gaixoren baten odola garbitzen ikustea... Guztientzat hitz adoretuak ditu. Edozein ordutan dei dezakezu eta berehala dago hemen. Berarengatik ez balitz...” ziotsan mojak bere lagun bati, iragan mendearen erdi aldeko egun batean.

Etxebizitzaren arazoa ere sakona zen. Garaiko baliabide murrizak zirela eta, oso etxe gutxi eraiki zitekeen eta horrela ezin zekioken industriak eta gizarte bilakaera naturalak exigitzen zuten erritmoari erantzun egokirik eman. Iñarrak herriko indar sindikalista eta politikoekin hitz egin zuen behin eta berriz, arazoari eman zekioken erantzunaren bila. 1955 aldera 7.600 biztanle inguru zituen Arrasatek. Urte hartan Iñarrak sinatutako eliz txosten baten arabera *“Etxebizitzaren arazo larria dela eta sendi bizitza gutxi egiten da Arrasaten”*

Jose Luis Iñarrak makinatxo bat sukalde ezagutu zuen herrian. Arrasatear askoren egoeraz jabetu ahal izan zen hurbildik. Zahar eta gaixoak bisitatzten zituen euren etxeetan eta nolako estuasunez bizi ziren jakin zuen lehen eskutik.

“Gaixoengana oso gutxitan joaten ginen, Jose Luis Iñarrak zaintzen baitzituen denak. Guk ez genuen, larri une batean ez bazan, gaixoen ardurarik izaten”⁴⁹

Zoritxar eta gabeziatako gizarte komunitatea zen arrasatearra, zeharo zatitua ideologiaren aldetik, eta alargun eme gehiegitxorekin. Beste gizon asko, berriz, kartzeletan edota erbestean. Eta guztiaren gainetik, Iñarraren irudiko, gizarte desestrukturatu bat nabari zen. Herritarren bizimodu hobearako oinarria abian jarri behar zen.

Eta etorkizunari begira gazteriaren formazioan zer egin handia zuela kontentzitura, herriko moja eta fraileekiko harremanak estutu zituen erretoreak. Urte haietako lekukoez diotenez, Iñarrak hankaz gora jarri zituen bere aurrekoak – David Esnalek- arrasatear gazteen heziketarako zituen planteamen-
duak. Viatoristekin elkarkidetza hurbila planifikatu zuen. Eta Mertzedariekin eta Jasokundeko kongregaziokoekin ere erlazio zuzena nahiago izan zuen,

49. Javier Etxebarriaren adierazpenak

bitartekorik gabe. Esan behar da, gainera, erretoreak era berezian landu zuela Jasokundeko mojekiko lana.

Iñarra Arrasatera ailegatu aurretik herriko haur eta gazteentzako eliz pastorealean ikastetxe desberdinek modu diferentean jarduten zuten, David Esnal erretoreak ez baitzuen behar bezala konektatu ikastetxeetako zuzendariekin. Iñarrarekin estiloa guztiz aldatu zen eta parrokiak aitzindaritza hartu behar zuela garbi utzi zuen. Horrela, igandeetako 9´45eko meza instauratu zuen eta aurrerantzean arrasatear umeteriak ordu horretako hitzordua izan zuen urte-tan. Iganderoko espektakulua gertatzen zen, ikastetxe desberdinetatik parrokiara eramaten zuten kaleetatik ehunka haur eskutik helduta erreskadan azal-zea, Iñarraren mezarako.

Arrasateko bere betebeharez jabetuta eta parrokiako katekesi ekintza Justino Uribesalgok eramaten bazuen ere, Iñarrak bere agerpenak egin zituen Arrasateko mojen ikastetxeetan, ahalezko katekisten peskizan⁵⁰. Jasokunde-ko mojak ordurako Arrasate Pasealekuan zuten kokatua euren ikastetxea eta fundatzailea bera zen ikastetxeko nagusia, Maria Bartolome izenekoa. Erretoreak maiz bisitatzen zuen ikastetxea, neskatilekin ikasgeletan esertzen zela-rik, emakume erlijioso haren berba egiteko modua atsegin zuen eta. Jasokundeko kongregazioa 1948ko urriaren 26an ofizializatu zuen Erromak eta harrez geroztik “Jasokundeko damak” izatera pasatu ziren ordurarteko “andereñoak”

Bestalde, Jasokundeko komentuan Arropategi bat zen, arrasatear goi gizarteko andre batzuen ardurapean. Haren helburua, behargorrian zeuden sendietako umeentzat arropak prestatzea zen, batez ere. Iñarrak sekulako lana egin zuen arlo horretan, herriko familia gehienen barne bizitza ezagutzen zuenez gero Arropategirako eskaerak etengabe eramaten zituelarik. “Hainbeste fraka motz, hainbeste elastiko eta horrenbeste galtzerdi luze behar ditut... lehen bai lehen” azaltzen zien Arropategiko andreei. Eta ekoizpenari ekiten zioten emakume haiek.

50 Mertzedariak 1892tik zeuden Arrasaten. Eta Jasokundeko kideak XXko hirugarren hamarkadaren hasieran ager-tu ziren herrira, hain zuzen Jose Joakin Arin erretorearen bitartez. Burgosetik zetozen, kongregazioa artean Erro-mak ofizialki ezagutu gabe zela, eta lehenik pare bat urtez Abade Etxean bizi izan ziren, Arrasate Pasealekuko kokalekura pasatu aurretik. Erromako ofizialtasuna jaso bitartean, mojei “andereño” esaten zitzaien.

“Caritas” sortu aurretik ere Iñarrak behartsuei laguntzeko antzerako zerbitzu bat prestatu zuen modu informalean. Batzuekin eta besteekin zituen konfiantzazko harremanetan oinarritua, aberatsengandik jasotzen zuen esku batean bestearekin beharrean zeudenei luzatzeko. Inork gutxik ukatu zion laguntza, jakin baitzekiten erretoreak helburu egoki batean erabiliko zuela.

“Caritas”-en antolaketari berrogeitamargarren hamarkadaren amaiera aldean heldu zion erretoreak. Herrian gero eta sakonagoa zen pobreziaren arazoari aurre egiteko ikastetxeetako formazioarekin ez zela nahikoa kobentzitura, katekesiko lagun batzuei akziora igaro behar zutela proposatu zien. Caritas-en Gipuzkoako eliz barrutiko orduko arduradunetako bat Fernando Etxebeste apaiza zen, Banco Guipuzcoanoren Arrasateko sukurtsaleko zuzendariaren anaia. Haren bitartez, bilera batzuk egin ziren Donostian, Iñarra buru zelarik, eta herriko laguntzaileen taldea osatzen joan zen. Arrasateko Caritas-eko lehen presidentea Pablo Garay izan zen.

Lehenik, 1962 inguruan, Ekintza Katolikoaren Zentroko goiko solairuan kokatu zen herriko Caritas, gero sakristauaren etxeko behera eta handik Abade Etxera pasatzeko. Zeregin horietako Iñarraren laguntzaile zuzena Pilar Arzamendi izan zen lehen unetik eta aurki mugimendu handia hartu zuen behartsuekiko laguntza zerbitzu hark, mediku arreta ere eskaintzen zuena, Alfonso Arzamendirekin. Oso garai latzak izan ziren, Iñarrak Unión Cerrajera eta Elmaren ateetara sarritan jo behar izan zuelarik, alarguntsa edota errekursorik gabeko sendi buruentzako lan eske. Asteburuetan Iñarra eta Pilar Arzamendi, Euskal Herriko zenbait harrera zentrotaraino hurbiltzen ziren, arrasatear sendi desestrukturatueta seme-alabentzako toki egokiaren bila.

Caritas-ek bazkideen kuotekin egiten zuen lan, eta herritarren ekarpen materialarekin. Dena den, Caritasen herriko orduko arduradunen iritziz, gehien ematen zuena Iñarra bera zen, inguruko giza miseriarekin zeharo sentibilizatua. Lan orduak ez ezik bere sakelako diru dezente eman bide zuen erretoreak, ordudanik gaur arte lan ederra egin duen gizarte mugimendu honetarako.

Iñarrak lana herriari begira, herriaren zerbitzuan burutu zuela adierazteko ez genuke aurkituko modu egokiagorik, ondoko lerroak baino. “Egunean eguneko” bere esku koadernoan honela idatzi zuen erretoreak:

1970.-

Iraila. 1- Gaur asi Arzipreste berri izaten. Gabez, apaiz lagunei, gutxi gorabera au idatzi diet: "Agur: len bezin lagun-zar eta adixkide-on izango garelako esperantzan, gaurtik, nik dezakedan apur ta utsean, apaiz-lan berritzeko darabiltz-
 leial leiala zean nari nukeala esatea beste albulente
 ez daramakizue eskutite onek. Nari dezune agindu, lona,
 eta laister arte, jaunna lagun?"
 Apaiz bakoitzarentzat au idaten on nirekin, Manolo Bejano
 rengana joateko dea. Berehala eraman nante, Leudik Elze-
 kude artua zan. Lo-zoioan giza-jos, ez kude ta ozela.
 1'30' on ojeratu:
 5'etan alere Mandorinjankos dea. Bereala on nunkan, lona nara
 ondureko, eta. Agin dieti at arka alditik. 19 enteko alorgina seten
 du, eta 15 eguneko murrizteko, jai honet. Gatazko dira, bera gora

"Iñarrak bere egunerokoan
 bere jardunaren
 zehazkizunik
 azpimarragarrienak
 jasotzen zituen"

1970
 Iraila. 1

"Gaur asi Arzipreste berri izaten"⁵¹. Gabez, apaiz lagunei, gutxi gorabera au idatzi diet: "Agur: len bezin lagun-zar eta adixkide-on izango garelako esperantzan, gaurtik, nik dezakedan apur ta utsean, apaiz-lan berritzeko darabiltz-

51 Urte hartan izan zen aurreneko aldiz, apaizek eurek eta ez Gotzainak aukeratzeko zutela euren artzapeza.

kigun asmoetan zure lankide leial leiala izan nahi nukeala esatea beste albisterik ez daramakizu eskutitz onek. Nai dezuna agindu, beraz, eta laixter arte, Jauna lagun”

Apaiz bakoitzarentzat au idazten ari nintzala, Manolo Bejanorengana joateko deia. Berebillean eraman naute, Lendik Elizakoak artua zan. Lo zorroan gizaajoa, ez konorte ta ezebez.

11’30etan ogeratu.

5’etan ostera Manolo’renganako deia. Bereala an nintzan, baño ni ara ordurako, illa. Egin dizkiot azken otoitzak. 19 urteko alarguna uzten du eta 15 eguneko mutikotxoa, Jose Manuel. Galleguak dira. Zerua goian lurra emen geratu da emaztea semetxoarekin.

6’etan etxera etorri ta lanean jarraitu dut, gabean asitako apaizei idazten.

7’etan elizara. Gende askorik ez. Naiko asti errezuak eta abar egiteko. 9’ko Meza ostean Aita Elices’ekin jardun aldia. Anai artean darabilkiten ezdabaida latza, batetik, eta bere erlijioso-agintariekin duana, bestetik. Bi gaietan nere arrazoibideak eman dizkiot. Anai artekoa latza ba’da, ez du txikiagoa bestee-kin sartu zaiona. Zirt edo zart egin bearrean dago.

Gosal-ondoan motortxoan Eskoriazara. D. Jose Oyarzunen Kofradi-illeta genduan. An eman dut Meza D. Facundokin naasi. 16 apaiz batu gara. Gero alkarrekin bazkaldu. Bazkal ondoan jardun alditxoa. Funts gutxikoa. D. Nicolas’ek salmenta aitatu dit.

4’30etan eltzerakoan “bide-ertzañak”, Muxibar’en geatzeko kiñu egin didate, eta nire bizitzan lenengo aldiz, inolako agiririk ez neukelako, eta atzean ikusteko xpilurik ere ez, atestadu egin. Zer egingo zaio, ba. D. Iñaki Galparsoro’ren galdera egin det Centro Asistencialera, eta bazkal ostean alde egiña dala Ataun’era erantzun didate. Visita batzuk egin eta Manolo’ren gorputza jasotzera joan naiz. Illeta mezetan, meza zuzendu, errosarioa esan eta Ramon Bolinaga’nera, apari legia egitera, aren urte betetzea zala-ta. Laixter etxeratu naiz, zenbaitzuei etortzeko esana baitnien. Bata bestearen ondorenean, sailtxo andia etorri da, Ezkontza gertuketak egitera geienak.

Atzo apaiz jaunei bialtzeko asmoetan asi nuan lana amaitu dut eta tele apur bat ikusita, 12´ak inguruan loaliak eman dit. Ikustera etorri zaizkienetatik, Serafin Vitoria, ama alabaenean geratzen dala oraingoz, Eibar´en. Ferrerias´eko andra lodi, Petra Machio Varquero – leendik antz astua nintza- nez- ez dala seme-alabekin ondo etortzen-ta Hospitaleko bideak egiteko eskatu dit. Al dedana egin bearke,... naiz zail iruditu. Makinatxo bat alako badatorkigu.

12´30´etan lotara nijoa”

Berandu oheratzeko arrazoa bere eskarmentuan oinarritzen zuen Iñarra erretoreak, jakin baitzekien gaixotasunaren une kritikoa egunsentiko lehen orduan dela eta telefono zein ateko deiak aldi horretan ugaritzen ziren, lagun- tza eske. Presarik gabe atenditzen zuen, eta behar izanez gero egunero bisit- atzen zuen gaixoa. Badira kasuak, urtetan – egun bat ere utzi gabe- pasatu zela gaixoaren etxetik. Horretan Nazareteko Jesusen hitz batzuk gogorarazi dizkit arrasatear erlijioso batek, Iñarrarekin harreman luzea izan zuena: *“Larunbata gizakiarentzat dago egina, eta ez gizakia larunbatentzat”*

Sufritzen ari zenarekiko kontaktu jarraikiak psikologo bilakatu zuen Iñarra. Bazekien bakoitzak zer nahi zuen eta nola arin zekiokkeen oinazea. Aholkulari lana ere suertatu zitzaion sarritan, gaixoaren etxean zegoen bitartean – egoki bazeritzaion, behintzat- ezgaiarekin ez ezik senitarrekin ere mintzatzan bai- tzen, adorezko hitzez gain iradokizunak emateko, ohean zetzanari eskaini beharreko sendakuntza tratamendua zela eta. Calixto Yeregi eta Oscar Una- nue sendagileekin izandako urtetako harreman jarraikiak begi kliniko zorroztu zion erretoreari eta berak esan ohi zuen legez, medikuak gaixoari azken igurtziak emateko prestatuta ez zeuden bitartean berak gizaraxoaren gorpu- tzari on egin ziezaiokkeen, denbora luzeko eskarmentuak ahalbidetua.

Bere begi kliniko horrek gaixotasunaren nondik norakoa iragartzera ahal- bidetzen zion. Eskutitz bat bidali zion Gotzon Velez de Mendizabal trinitarioa- ri Salamancara 1972ko abenduan, ondorengo urteko San Juan eguneko Meza Nagusiaren homilia egitea eskatzeko. Eskutitzean ziotsan *“Oso gaixo- rik dago osaba “Vivillo”. Ez dakit iritsiko ote den Sanjuanetara, hor nonbait izango da”* Bete-betean asmatu zuen, Faustino “Vivillo” Velez de Mendiza- bal 1973ko San Juan egunean hil baitzen.

Baina psikologo izatezko nolakotasun horrek beste arlo batzuetan ere aritu behar izatera eraman zuen erretorea. Berak bakarrik – eta interesatu bakoitzak, noski- jakingo zuen zenbat alditan eman behar izan zituen aholkuak – eta ez, hain zuzen, erlijiosoak, bakarrik- senar-emazte bikoteen krisietan, ezkondu gabe haurdun geratutako nesken etxeetan, alkoholak urratutako sendi giroaren berreraikiketan, justiziak atxilotutako herritarren espazioan eta abar.

Bere eskuko egunerokoan azaltzen digun bezala, 1970ean hautatu zuten Leintz eta Oñatiko apaizkideek euren artzapeza – lehena, hain zuzen, hauteskunde sistemarekin aukeratua. Lau urte iraun zuen karguan, 1974ko urtarilaren 31n Oñatiko erretorea zen Sabino Zuazabeitiak hartu baitzion testigua.

Iñarrak laguntza paregabea jaso zuen beti bere arreba Pakitarengandik. Elizkizunek, gaixoen pastoralak eta Leintz eta Oñatiko artzapez zein Arrasateko erretore izateak ordu asko igaroarazten zizkioten etxetik kanpo. Eta Pakita arduratzen zen, gehien bat, erretoreari iristen zitzaion lanaren banaketaz. Lan burokratikoaren zatirik handiena Libe eta Eusebio lobek hartzen zuten beren gain. Horiei esker eraman ahal izan zen erretorearen dinamikak sortarazten zuen lan eskergaren zama.

*“Iñarrak 1953an ekin zion
eliza nagusiaren
berriztatzeari, kritika eta
esamesa ugariren artean”*



OBRAK PARROKIAN

Eliztarren kopurua gorantz zihoan eta parrokia txiki geratzen ari zitzaion Iñarrari. Herriko bi eliza nagusiek soberako kapazitatea zuten, igande eta jai egunetako eliztarren jarioa behar bezala egokitzeko, baina Jose Luis Iñarrak parrokian obrak egin behar zituela erabaki zuen. Egia esan, oso eliza ilun eta ez egokia gertatzen zen kulturako. Eta garai berrietarako bere parrokiak itxura berria behar zuela iruditu zitzaion. Badirudi obren nondik norakoetan urrutiko laguntza ere jaso zuela Manuel Lekuonarengadik, teoriarik bederen Kala-horran erbesteko zigorra jasaten ari zena.

Garaiari erreparatuz gero, ez dugu ahaztu behar Frantziskotarrak Arrasatera itzultzeko bezperetan gaudela, eta Iñarrak haien presentzian lehiaren arriskua ikusiko zuelakoan nago. Eta bere eliza erakargarriago bihurtzeari ekin zion.

Aldare nagusia, barroko estiloan, irudi askorekin eta parrokiako aurrealde osoa hartzen zuena, 1913an kendu eta modernoago batengatik – gotiko estiloan – ordezkatu zen. Azken hau, berriz, 1953an erretiratu erazi zuen Iñarra erretoreak. Urte inguru hartan berriztapen sendoak burutu ziren elizan. Besteak beste, hondoko beirateak agertu ziren eta ezker aldeko San Bixente Ferrer eta San Pedro aldareak zein eskuin aldeko San Jose eta San Juan Evangelista aldareak desmuntatu ziren. Koro berri pare bat ere atera zituen, kapazitatea handituz. Detailtxo bat gogoratu behar da: obren kostoa merkeago irten zekion, langileei bere etxean ematen zien janaria, bere poltxikoaren kontura.

San Bixente Ferrer aldarea kendu zenean, auzi gogorra eduki zuen erretoreak Julio Otaduy orduko alkatearekin. Santuaren izeneko Kofradiako kidea zen alkatea eta erretoreari atentzioko keinu bat bidali nahi izan bide zion – “hemen agintzen duena neu naiz”- esan gura izan balu bezala, eta bilera batera deitu zituen kofradiako kideak Ekintza Katolikoaren Zentrora. Iñarrak bileraren berri izan zuenean, Don Paco “diplomatikoa” igorri zuen Zentrora eta “Kofradiako presidentea erretore jauna da eta ez da bilera honetara gonbidatua izan. Beraz, bertan behera utzi behar da saioa” esan ondoren, kofradeak,

alkatea eta Don Paco, bakoitza bere bidetik erretiratu ziren. Horixe izan bide zen Jose Luis Iñarra herriko lehen agintari batekin izan zuen lehen istilua. Bigarrena, serioagoa, handik hamalau bat urtera gertatu zen.

Baziren herrian, Jose Luis Iñarrak eliztarrak protestantismora konbertitu nahi ote zituen txantxetan itauntzen zutenak, aldareen desagerpenak eta irudien murrizketa ikusita. Baina baziren ere, erretorearen erabaki haietan modernitaterako urratsak ikusten zituztenak. Koroko organoa elektrifikatu zuen⁵² eta Parrokiako Abesbatzan neskak sartu ziren, lehen aldiz 1959ko Santa Zezilia egunean. Jaia ospatzeko Iñarrak Julian Sagasta arrasatear organojole bikainari Kapera Sixtinako zuzendaria zen Bertolucciren Mezako partitura eskatu zion eta baita hark bidali ere. Arrasateko parrokia emozioz bete zen emanaldiarekin. Bestalde, egun hartan azaldu ziren parrokiako nabe zentralera bankuak, lehengo aulkien ordeez.

Pulpitu zaharrari ere iristen ari zitzaion ordua eta Iñarra prest zegoen kentzeko. Hala ere, norbaitek iritzia aldarazi zion. Irakur dezagun ondoko eskutitz hau, Jaime Font i Andreu Gotzainak bidalia 1953ko abenduaren 6an:

“Por diversos conductos he sabido que pretende Vd. quitar, si no lo ha quitado ya, el púlpito de esa iglesia parroquial, donde predicó San Vicente Ferrer. Me consta que la Junta Provincial de Monumentos Históricos se va a ocupar del asunto. Por esto le prevengo que se abstenga en absoluto de toda innovación tocante al histórico púlpito”

Beraz, kendu beharrean berriztatu egin zuen, eskailera tokiz aldatu zela-rik. *“Diga poco y bueno”* zioen zurezko esku barandan. Igo baino lehen, predikatzaileek – antzinako ohiturari jarraikiz- mun egiten zioten lehen harmailari, San Vicente Ferrer-en ohorez. Izan ere, inoiz frogatu gabeko istorio batek zioenez, santua Arrasaten egon zen eta parrokian ospatu zituen elizkizunak. Hori dela eta, pulpituaren goialdean inskripzio enmarkatu batek *“En este púlpito predicó San Vicente Ferrer”* azaltzen zuen. Pulpitua berriztatzean, Jose Luis Iñarrak pergamino bat ipini zuen *“Aquí predicó San Vicente Ferrer”* baieztat-

52. Juan Braun organeroa eta bere laguntzaileak erretorearen etxean lojatu ziren, obrak iraun zuen bitartean.

pen aseptikoagoarekin. Pulpitua, guztiz, 1968 inguruan desagertu zen, presbiterioari ikuspen gehiago emateko aitzakiaz.

Parrokiako berriztapen eta egokitzapenetarako urte haietako Iñarraren erabakia ere izan zen, eliztarren mugimenduak erraztearren zutabe guztietako oinarri eta behe-hegoak mailuz eta zizelez desagertaraztea. Higikortasunez irabazi zena arteak galdu zuen.

Erretorearen iritiz, parrokiak ekintza sakonago bat behar zuen, eta horretarako dirua behar zen. Obra berrietarako kontsentsua ere ez zitzaiola gaizki etorriko pentsatu bide zuen. Hitz egin zuen batzuekin eta besteekin, baina gauzak ez zeuden samur eta biztanlez eta eliztarrez biziki hazten ari zen Arrasate hartan, parrokiako obrak ez ziren – antza denez- herritarren lehentasunen artean. Jose Luis Iñarra, ordea, ez zen hasi aurretik kikiltzen diren horietakoa eta diru bilketa kanpainari ekin zion, bere estilo propioaz. Ondoko esku-titza erretorearen erretratu zintzo bat da.

“ Mondragón, 31 de diciembre de 1964

Mi querido feligrés:

Desde hace ya varios años tenía ganas de comunicarme con Vd. Mil razones y un elementalísimo sentido de prudencia ha ido retrasando, acaso exageradamente, la aparición de esta carta.

Hoy, así me parece a mí, se puede decir que gozamos de una calma, casi como en la época del Nacimiento de Belén, sin que sintamos sobre nuestras espaldas o sobre nuestros bolsillos la metralla de tantas peticiones, colectas etc., por lo que se me antoja esta tregua oportunísima para exponerle mis viejos proyectos. Y vayamos, sin más y de rondón, al meollo.

Necesitaría yo para acometer unas obras de reforma en el interior de nuestra Parroquia, de 1.000 feligreses, bien dispuestos y comprometidos en serio, a dar 100 pesetas al año, durante 10 años consecutivos. Al cabo de los 10 años, habríamos obtenido y, naturalmente invertido exclusivamente en las obras, un MILLON.

¿Qué soy un soñador? ¿Qué soy un exagerado? Que no quede por mi parte sin intentarlo, ni tampoco por Vd. sin...

Nada. Trato hecho. Si le gusta y acepta la idea, a mediados del año pasará alguien a recoger su 1ª aportación. Caso de que, por cualquier causa, no pudiera aceptar la propuesta que le hago, le bastará devolverme esta misma hoja, que va numerada, en sobre cerrado, y... tan buenos amigos.

Puedo adelantarle hoy que la Comisión Administrativa queda interinamente constituida por D. Felipe Yarza, D. Agustín Azcoaga, D. Carlos Ginart, D. Simón García y D. Imanol Bolinaga. La otra comisión, la artística, estará constituida por personas técnicas en estos menesteres y cuyos nombres se le anunciarán en cuanto ellas den su conformidad.

Mañana, Año Nuevo, que le deseo muy feliz, durante la Misa Mayor, a las 11, quisiera hablar sobre esto en la Parroquia. Hasta entonces, pues, si Dios quiere. Atentamente y con el afecto de siempre, su Párroco”

Egia aitortzeko, Iñarra oso kritikatu izan zen eliztarren artean, burutu obregatik. “Kareatu zuenean, sukalde bat ematen zuen elizak” diote orduko lekuko batzuek. Estilo pertsonalean oinarritua⁵³, erretoreak erabaki zalantzakor batzuk hartu zituen, gehienetan artea eta balio artistikoa tenpluaren funtzionaltasunaren izenean sakrifikatu zituelarik. Eguneko begiekin aztertuta, nekez esan liteke Jose Luis Iñarrak asmatu zuenik elizako obren zuzendaritzan.

53 Erdiko Kalera ematen zuen ate bat itxi egin zuen. Orduko alkateak – Julio Otaduy- galdetu egin zion erretoreari erabaki haren arrazoiak, eta Iñarrak “Zu sartu ez zaitezen!” erantzun zion.

FRANTZISKOTARREKIN

Mendizabalen desamortizazioaren ondorioz aldegin zutenetik frantziskotarrak ez ziren Arrasatera 1954era arte itzuli. Jose Luis Iñarraren eta Arrasateko frantziskotarren komunitatearen arteko harremanak ez ziren oso koipeitsuak izan.

Ondoko eskutitzean islatzen da bikain, erretoreak defendatzen zuen jarra. Eskutitza Pedro Salaberri orduko apaizgairi bidali zion, hark erretoreari egitniko galderari erantzunez.

*“Udala de Mondragón 5-XI-1954
D. Pedro Salaverri
San Sebastián”*

Mi querido Salaverri: Como ves te escribo desde Udala, desde la cabecera de D. Miguel de Urkia⁵⁴, gravemente enfermo, hace días ya administrado y a donde subo a “pernoctar” casi todas las noches. Seguramente para cuando recibas el Presbiterado tendrás muy cerca de tu casa una vacante. Esto va por si te apetece.

54 Juan Miguel Urkia, Udalako parrokoa izan zen urte batzuetan, Asturiaseko erbestalditik Euskal Herrira itzuli ondoren. Bere ideia abertzaleengatik bidali zuen Lauzurica Administratzaile Apostolikoak Asturiasera. “Herririk txarrena nahi dut” esan bide zion Lauzuricari. Herri hartako bataio liburuan Iparragirrenen esaldia idatzi zuen hara iritsi bezain laster, Administratzailearentzat: “Giltzapean sartu naute, poliki-poliki” Urkiak zioenez, Lauzuricak erraz asko aldatuko zituen mitra tricornioarengatik eta fusila gotzain-makuluaren orde. Urkia Udalan “Arzobispo de la FAI y Director Celeste de los Coros de FA y DO” deitzen zuten auzotarrek, Asturiasera baino lehen erretore gisa egondako arabar Faido herriaren izenarekin jolastuz. 1954an hil zen Udala auzoan bertan. 1953ko abuztaren 23an Erromako Eliza eta Francoren erregimenaren arteko Konkordatua sinatu zen. Haren seigarren artikuluak zioenez, espainiar apaizek egunero Francoren aldeko “colecta et famulos” zeritzan otoitza egin behar zen, hileta elizkizunetakoetan ezik gainerako meza guztietan. Plà y Daniel lehen kardinalak diktatu zituen hitzak “Ducem nostrum Franciscum”. Handik gutxira Urkiarengana iritsi ziren guardia zibilak Udalara eta aurrerantzean Francorengatik otoitza egin behar zuela agindu zioten. “Bai, egingo dut... baina lehen bai lehen hil dadin” ihardetsi bide zien.

Con respecto a la cuestión de la restauración de los franciscanos, voy a resumirte, en pocas palabras, si puedo, todo.

Los Franciscanos presentaron la cuestión en los siguientes términos:

“... como a tenor de lo presumido en el c. 102⁵⁵, las personas morales eclesiásticas perduran mientras no hayan transcurrido 100 años a partir del que desaparecieron las cosas o personas que las constituían, y en el caso, la última persona física que integraba la Comunidad de que se trata murió el año 1873, y aún subsiste jurídicamente la comunidad franciscana de Mondragón y le asiste, por lo tanto, el derecho de establecerse en aquel Convento, sin necesidad de que se decrete su erección.”

- a) *A esto se contestó con un estudio completo sobre la pervivencia de la persona moral⁵⁶, en el que se venía a concluir que la extinción de hecho de la comunidad coincide con el momento en que su último componente muere, si antes no dejó de pertenecer a ella por otra causa cualquiera. En nuestro caso, el fraile en cuestión pidió al Sr. Obispo de Calahorra (entonces pertenecía Mondragón a aquella diócesis) y obtuvo un beneficio en la parroquia de Garagarza. Desde 1841 aparece bautizando dicho Franciscano en Garagarza, dando comienzo a las partidas así: “Yo Don Valentín de Urtaza, religioso exclaustro y servidor de esta iglesia parroquial etc” Y así durante años.*
- b) *Que según el derecho entonces vigente, al ser suprimido el Convento de Mondragón, éste, privado de sus frailes y a falta de otros religiosos, “hecho que no es necesario probar, pues la suspensión de conventos fue general”, pudo ser entregado por el ordinario del lugar al clero secular.*

55 Zuzenbide Kanonikoaren 102. kanonari buruz ari da.

56 Ikerketa lan hori, Jose Luis Iñarrak eskatuta, Manuel Lekuonak egin zuen bere alderdi historikoan eta Andres Mañarikuak legearen aldetik. Bi aditu horien iritziz, “persona moral” edo juridikoa aspaldi desagertu zen eta, beraz, kasurik hoberenean Komentuaren mailaguaren eraiketa berri bat eskatzen zen, jabegoaren itzuleraren ordez. Erromak Donostiako Gotzainaren esku utzi zuen erabakia, eta – dirudienez- jabegoa frantziskotarren eskuetara itzul zedin indar gehien egin zuena Ricardo Oreja izan zen, Union Cerrajerako presidente eta, aldi berean, Espainiako Justiziaren Estatu Idazkariordea.

c) *Por el derecho concordatorio, según el convenio adicional (del Concordato) se reconocía a la Iglesia como “propietaria absoluta de todos y cada uno de los bienes que le fueron devueltos por el Concordato. Entre los edificios que la iglesia retendría en propiedad se contaban todos y cada uno de los edificios que sirven en el día para el culto. Luego pasaba el Convento, por el Concordato, a ser de la Iglesia, más concretamente de la Diócesis de Calahorra, entonces, y ahora de la de San Sebastián.*

En una palabra, creo que no se puede hablar de persona moral, por lo menos a raíz del Concordato de 1851, porque quedó todo cancelado, legal, jurídica y moralmente, pues desaparecieron todos los derechos por completo al dar la Santa Sede como válido todo lo hecho por un concordato. Y nadie negará que la Santa Sede podía proceder de esta forma, sin incurrir acaso en herejía, porque sería sostener que el Papa no puede en ningún caso llegar a suprimir las personas morales eclesiásticas.

Cuando se acercaba el momento de la restauración de la Comunidad, volví a insistir, basándome en los argumentos por nosotros esgrimidos en los dos escritos nuestros, que: a) la restauración canónica exigía necesariamente un nuevo decreto de erección, y la consiguiente creación de nueva persona jurídica b) que por los arreglos concordatorios el templo de San Francisco era propiedad de la Diócesis de San Sebastián c) que para ceder la propiedad del templo se necesitaría autorización de la Santa Sede.

En vista de eso, proponía que se podría hacer cesión del templo en uso, imponiéndoles a los P. Franciscanos las cargas que se juzgaran más oportunas. A todo esto no se me dijo nada en concreto, por lo que yo no sé si conserva o no la propiedad la Diócesis o ha pasado a manos del Capítulo de la Seráfica de Cantabria.

Así las cosas, vino el decreto. No se cita en él la palabra erección. Lástima que no tenga aquí el decreto. Si te interesa te enviaría copia. Se dice allí que “visto el Reescrito de Roma (creo que de la S. Congregación de Religiosos) en el que, dejando de lado la cuestión de derecho, no se opone obstá-

culo alguno a la restauración, sino que exhorta (al Sr. Obispo) a llevarla a cabo restituyendo la iglesia a los Franciscanos... autorizamos el restablecimiento... y les restituimos la iglesia que había sido de su pertenencia” Después vienen las cláusulas que limitan las funciones de los Franciscanos, que son las que establece el Codex.

Esto es, en síntesis, lo que hay. La restauración, restablecimiento, restituyendo ¿equivalen a una verdadera erección? Unos dicen que sí y otros que no. Para mí que sí. De todas formas, ya que habéis suscitado esta cuestión, data occasione, aprovecha para aclararla. Así estamos más seguros.

Ya no sé cómo va esto. He tenido que interrumpir varias veces por atender a D. Juan Miguel. Está pasando una noche muy mala, muy inquieto, delirando. Creo, con todo, que aún durará unos días. Tú recomiéndanos mucho a todos. Muchos saludos a la colonia. Nada más por hoy. Mándame como gustes. Tuyo Párroco. Jose Luis Iñarra”

Frantziskotarrak 1954ko otsailean itzuli ziren Arrasatera. Komentuaren ordura arteko apaizen kudeaketari erlijiosoek jarraitu zion. Hil haren 7an lehen zeremonia erlijiosa ospatu zen. Hona hemen, Jose Luis Iñarrak izenpetu behar izan zuen agiria:

“ACTA DE LA COMUNIDAD FRANCISCANA DE MONDRAGON. In Nomine Domini Nostri Jesu-Christi Ejusdemque Inmaculatae Genitricis. Amen.

En la Iglesia parroquial de San Juan Bautista, a las diez y quince de la mañana del día siete del mes de febrero del Año Jubilar Mariano de mil novecientos cincuenta y cuatro, reunido el Cabildo parroquial integrado por mí el infraescrito Cura-Arcipreste Don José Luis Iñarra Orcaizaguirre – Comisionado para este acto por el Excelentísimo y Reverendísimo Señor Obispo de la Diócesis de San Sebastián en España, Dr. Don Jaime Font y Andreu- y Don Francisco Imaz, Don José María Arizmendiarieta, Don Justino Uribesalgo, Don Justo Jauregui-Arraburu, Don Pablo Barrena, coadjutores de la misma; en presencia del M.R.P. Provincial de la Seráfica de Cantabria, Fray Julio Eguiluz Ipiñazar, asistido a su vez por los R.R.P.P Definidores Fray Silvestre Larrañaga y Fray Pedro Aranguren, y de los R.R.P.P Fray Demetrio Garmendía y Fray José María Garayalde, designados por sus Superiores para regen-

tar, desde el día de la fecha, en nombre de la Orden la Iglesia de San Francisco de esta villa; estando el Ilustre Ayuntamiento en cuerpo de Comunidad presidido por el Alcalde Don Julio de Otaduy y Riviere, y gran número de fieles; cantado el Veni Creator, el Rvdo. Don Pablo Barrena dió lectura ante todos los asistentes, al DECRETO – fecha diez y ocho del pasado enero- de Su Excelencia Reverendísima el Señor Obispo Diocesano de restablecimiento de la Comunidad de Padres Franciscanos en la villa y parroquia de Mondragón, restituyéndoles la iglesia de San Francisco – desde el año 1840 regentada por el Cabildo parroquial- y yo, Comisionado según las Letras del susodicho Decreto, hice entrega de la mencionada iglesia a la Seráfica Provincia de Cantabria, representada por su M.R.P. Provincial, depositando en sus manos, como señal de dicha entrega, las llaves de la referida iglesia.

Después de la Misa Mayor – que tuvo lugar a continuación del acto referido- el Cabildo parroquial y Religiosos Franciscanos presentes al acto, acompañados por las autoridades y numeroso público, se dirigieron procesionalmente al templo de San Francisco, donde se cantó un solemne Te Deum, dando de esta forma fin al acto.

Y para que conste, firmo la presente acta a las doce horas del día de la fecha, siendo testigos, además de los anteriormente consignados, especialmente el Reverendo del Colegio de esta Villa Hermano Valentín Izar de la Fuente y Don David Arzamendi Emparanza, Presidente del Centro de Acción Católica. Fecha ut supra”

Diotenez, ekitaldi hartan azaldu zen, lehen aldiz eta bere burua nabarmendu gabe, aurrerantzean parrokiako organularia izango zen Francisco Arribabalaga, Cubatik iritsi berria.

Jose Luis Iñarra eta frantziskotarrak ez ziren ongi eramaten. “Vox populi” zen hori Arrasaten eta erretoreak defendatzen zuen jokaerak Gotzainaren aurrean ezer gutxi balio izan bide zuelako, Iñarrak erlijiosoen jokaldi txarren batean pentsatu zuen beti. Frantziskotarren agerpenak eliztarren banaketa ekarri zuen, gehienak erretorearen alde jarri zirelarik.

Erretoreak ezin zuen burutik kendu frantziskotarren 1951eko ateraldi publikoa, Erromak arrazoia euren eman ziela adieraziz. Ez zitzaion bat ere gus-

tatu Iñarrari, Elizak deliberamendua hartu aurretik Ordenak jabegoa aldarrikatzea eta herriaren gogoan eragin nahi izatea. Baina badirudi gehiago ere izan zela, nahiz eta inoiz frogatzerik izan ez zen. Herri mobilizazio bat sortu zenik ezin uka, ordea.

Frantziskotarrek, lehendabiziko urteetan, zenbait logela erabili zituzten Ospitalean, baina 1959an zurrumuru ugari korritu ziren Arrasaten, Mesedee-tako mojak Eskoriatzara aldatuko ote ziren ziotenak, frantziskotarrek beraien-tzat Ospital osoa behar zuten eta.

Erreakzioa gogorra izan zen herrian. Parte hartu zuten Danok Bat, Udalpe, Casino Mondragonés eta Centro de Acción Católica elkarteek, eta Arrasateko Ordezkaritza Sindikaleko Gizarte Sailak, Juan José Gorosabel “Amelu”-k ordezkatua. Mojen eskola eta ikastetxeetako ikasle ohiak⁵⁷ ere mobilizatu ziren. Zalaparta haren erdian, Arrasateko orduko alkate Julio Otaduyk Elmako gerente Gregorio Etxebarriarekin Casino-an 1959ko abenduaren 8an burutu elkarrizketa bat zegoen. Egun hartan Otaduyk Etxebarriari azaldu zionez, *“Goiko aginduak direla eta, mojak Eskoriatzara doaz; eta ez dago bueltarik”*

Udalak Pleno berezia egin behar izan zuen, abenduaren 16an, zurrumuruak kanpaina gaizto baten emaitza zirela adieraziz. Denak ez zeuden, ordea, ados udal taldean adierazpenarekin, Jose Mari Uranga besteak beste, Etxebarriaren testigantza idatzia zuena. *“Zergatik ez duzu Gregorio Etxebarria epaitegira eramaten, kalumniak badira?”* galdetu zioten alkateari udal plenoan. Zurrumbilo haren erdian, abenduaren 20ko meza guztietan frantziskotarrek idazki bat irakurri zuten, mojen kontrako operazioan ez zutela zuzeneko eraginik izan aitortuz. *“Tampoco tienen necesidad de moverse directamente, cuando cuentan con personas influyentes que les resuelven estas cuestiones y les entregan las cosas en bandeja”* idatzi zuen Urangak bere paperetan, frantziskotarren azalpenak “excusatio non petita accusatio manifesta”-tzat hartu izan balitu bezala.

57 Une haietan, ehun eta hogeita hamar bat arrasatear ziren ordena desberdinetako mojak, gehienak heziketara dedikatuak.

Parrokiaren eta frantziskotarren arteko dibortzioa publikoa zen. Eliza ofizialak elkar ondoan bizitzera behartuta, bi komunitateen arteko harremana oso azalekoa izan zen. Ez zegoen sintoniarik. Mezak ere ordu berean izan zitezkeen, “nor gehiago?” adierazi nahi izan balute bezala. Baina eliztarren borondatea irabazteko norgehiagoketa hartan Iñarrak lanabes baliotsu bat izan zuen: urtetan buruturiko fitxategi historikoa.

Uneko apaizgaien laguntzarekin Arrasateko bataio, ezkontza eta heriotzen liburuetatik fitxategi historiko eder bat osatu zuen Iñarrak. Zaletasun horren metodologian Apaizgaitegiko zenbait irakasleren itzala nabaritzen zaio Iñarrari⁵⁸. Eta fitxategi horri esker, efemerideak oroi zitzakeen erretoreak. Gehien bat interesatzen zitzaizkionak heriotzak ziren. Fitxetatik mezetan oroitzeko hildakoen izen abizenak aterata, egutegia prestatzen zuen eta haien senitartekoei sakristauaren bidez irisarazten zien idazkian esaten zitzairen domeketako zein mezatan otoitz egingo zen hildakoaren alde. Horrela, frantziskotarrek ez zeukaten lanabesa erabilia, eliztarren presentzia ziurtatzen zuen.

58 Gauza bera esan daiteke, idazten zuen Egunerokoari buruz.

339 APAIZEN IDAZKIA

Francoren erregimenak katolizismo militantearen laguntza izan zuen lehen unetik, euskal eta katalan gizartearen zati handi bat ezik. Erromak Gotzainen aurkezpena egin behar zion erregimenari, Francok baitzuen azken hitza hautagaien gainean. Elizak, morrontzaren kontraprestazio gisa, lehentasuna bereganatu zuen hezkuntzan, erregimenari etorkizuna bermatzen ziona. Zer esanik ez, kulturaren kudeaketa herri eragileen eskuetatik kanpo geratu zen. Eta horrekin guztiarekin nazional katolizismoa ongarritu zen. Franco zen katolizismoaren berma bakarra. Horrek, noski, indarra eskaintzen zion erregimen diktatorialari.

Urteak aurrera zihoazen eta erregimenaren eta katolizismoaren arteko identifikazioa ahultzen ari zen, batez ere bosgarren hamarkadaren azken urtetatik aurrera, ekonomiaren garapenak bizimodu desberdinen agerpena ekarri zuenean.

Jose Luis Iñarrak bere egin zuen, 1960ko maiatzaren 30ean, Euskal Herriko 339 apaizek Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Iruñeko Gotzainei aurkezturiko idazkia. Ez bakarrik ados egon zela edukiarekin, baizik eta, Leintz Ibarreko artzapeza zelako, sinatzaileen arteko kargurik gorenena zen berea eta zerrendan lehena ageri zen Jose Luis Iñarraren izena.

Garbi zegoen oinarrizko euskal eliza jarrera aktiboa hartzen ari zela, lotzen zituen kateak apurtu nahian mugitzen ari zen euskal gizartearen barruan. Urtebete lehenago eman zen ETA-ren sorrera eta inguru politikoan lehen erreakzioak nabaritu ziren, erbesteko euskaldunen artean ez ezik baita Euskal Herrian ere. Testuinguru hartan 339 apaiz ausartu egin ziren, sentitzen zutena eta urtetan derrigorrez euren barruan isilik edukitakoa aurkeztera.

Oinarrizko euskal eliza idatzi dut, izan ere goi mailakoak – Gotzainek ordezkatzun zutena- zeharo arbuiatu zuen apaizen idazkia. Euskal lau Gotzainek – lehen aldiz elkarrekin ageri zirelarik- kondenatu egin zuten euren apaizen eskutitza “gezur galantengatik eta zentzu politikoarengatik”. Franco estatu buruak eta bere erregimenak separatistatzat hartu zituen apaizak eta

Erromako Nuntzio Apostolikoa zen Ildebrando Antoniuttik apaizen ohorea zapaldu zuen bere hitzekin, erregimenaren neurri errepresiboak eraginez⁵⁹.

Idazkia luzea da eta ez dut hona dena aldatuko. Zati batzuk transkribatu-ko ditut, irakurlea eskutitz haren tonuaz jabe dadin. Espainieraz dago idatzia, eta sarrera gisa Saliege Kardinalaren aipu bat dakar:

“ Resignarse ante la injusticia sin protestar contra ella, sin luchar, no es digno de un hombre ni de un cristiano ”

Eta jarraian, idazkia hiru kapitulutan banatzen dute izenpetzaileek:

a) *Reafirmación de principio:*

“... Respondemos a un imperativo de nuestra conciencia⁶⁰, refiriéndonos en este escrito al abismo que día a día se abre entre nosotros y las almas cuya custodia y guía nos han sido confiadas ”

... En el concepto cristiano integro de la libertad entra necesariamente, y lo proclamamos públicamente, la inviolabilidad de la conciencia. Afirmamos que no es legítimo manejar conciencias humanas, ya sea penetrando por la violencia en sus secretos, ya sea cargándolas con vivencias extrañas por métodos divorciados de todo procedimiento racional; no es legítimo torturar, ni drogar, ni lavar cerebros, ni someter a la opinión pública a la presión de una super-propaganda, fundada en técnicas psicológicas desconocedoras del respeto a la dignidad transcendente de la persona

... Al defender la libertad como derecho sacrosanto de todo hombre, defendemos también el derecho a la libertad y a la autodeterminación de todo pueblo, de todo grupo étnico, de toda personalidad física o moral, dentro de los cauces establecidos por la ley natural y el derecho positi-

59 Antoniuttik ahalegin guziak egin zituen Erroman, Arantzazuko Santutegiko obrak buru ez zitezen.

60 Gogoratu, 1945ean Mateo Mujika Gotzainak beste idazki bat atera zuela “Imperativos de mi conciencia” tituluarekin.

vo-divino. El respeto a todos los valores morales es doctrina cristiana; y son varios los años que la sociedad condenó pública y oficialmente el genocidio.

b) *Análisis de la realidad*

... Creemos sinceramente que ni los individuos, ni las clases, ni los pueblos que integran la comunidad política española gozan de suficiente libertad. Basta abrir los ojos para ver lo que es un triste realidad... Se detiene por manifestar pública e incluso privadamente opiniones políticas contrarias a las del Gobierno.

... A lo largo de 24 años que dura el régimen, esas personas humanas son encarceladas "sine die" durante meses y años, para ser conducidas, después de un tiempo que queda al arbitrio de un Gobernador o Director de Seguridad o Ministro, ante un Tribunal Especial, bajo la gravísima acusación de "rebelión contra el Estado"

... Y las garantías de un juicio imparcial se ven de tal manera reducidas que es menester tomar todas las medidas posibles para impedir que el capricho o servilismo de un juez cometa una grave injusticia. El "Fuero de los Españoles" es letra muerta y su presentación ante el mundo un reflejo de la insinceridad del clima español. La verdad es que todos los elementos del poder, todos los cargos de responsabilidad y de influencia civil, desde las carteras ministeriales hasta la alcaldía del pueblo, desde el Rectorado de una Universidad hasta la jefatura del último negociado, son atribuidos por una única, omnímoda e inapelable voluntad. En este clima es humanamente imposible evitar el servilismo.

... En las Comisarías de Policía de nuestro País se emplea el tormento como método de exploración y búsqueda del transgresor de una ley muchas veces intrascendente y no pocas injusta. Una malévol sospecha basta para que el policía o la guardia civil de turno pueda flagelar irresponsablemente, torturar y herir a cualquier ciudadano, muchas veces inocente de la fechoría que se le atribuye. No hablamos de hechos aislados. Se trata, puesto que las autoridades conocen los hechos y los toleran, de un sistema.

... Y en España el Estado “es totalitario al servicio de la integridad de la Patria” La Patria es “la suprema realidad”, es la encarnación del Estado y de la voluntad nacional. Copiando de la religión el dogmatismo, establece la infabilidad para el Jefe, con todas las consecuencias que de ello provienen.

... El hecho es que en España los responsables han extirpado hasta las raíces mismas de una opinión pública, mediante el acaparamiento e intervención de todos los medios de expresión pública de pensamiento y la represión, a través de tribunales militares, de todo intento de manifestación política que no siga la línea de pensamiento impuesto en exclusiva... La prensa española, invirtiendo el orden establecido por Dios, es instrumento de deformación de la opinión pública. No capacita al ciudadano para la gestión de la cosa pública; no permite la emisión de juicios serenos sobre la actuación de las fuerzas políticas, económicas o sociales del País, ni actuar contra las propagandas unilaterales, ni la formación de ideologías compatibles con la ley natural y divina... Y lo que se diga de la prensa podemos decir, y lo afirmamos, de la Radio.

... ¿Y qué decir de la libertad de asociación en sus dos aspectos: político y social? Cuando un País vive en libertad ciudadana, funcionan órganos que protegen la libertad. El Parlamento, los Partidos Políticos, Los Sindicatos salen al paso de los posibles abusos o atropellos y controlan el ejercicio de los poderes públicos... Y en España falta ese eficaz instrumento. Parece absurdo, pero en España no existe ni un auténtico Parlamento, ni libertad política, ni libertad sindical. El Partido Unico y el Parlamento dirigido son la estructura básica del Estado Español, sometidos plenamente al Jefe. El sindicato español, como muy bien lo dijo Monseñor Pildain⁶¹ “ni es sindicato ni es cristiano” Es obra del estado y defiende los intereses del Estado a quien representa, y con gran eficacia.

... Lo mismo podemos decir respecto a la libertad política. Sin libertad política no hay participación en la administración pública, ni acceso con carácter general a las funciones públicas. ¿Qué garantía de defensa del

61 Antonio Pildain, Jose Luis Iñarraren irakaslea izan zen Gasteizko Apaizagaitegian.

bien común, o qué garantía de respeto a la persona humana podrá ofrecer una administración que empieza por endiosar al Jefe y al Estado, mientras considera a la persona como un instrumento, nada más del Estado?

c) Defensa de los derechos del pueblo vasco

No podemos dejar de hablar de un modo más particular de nuestro Pueblo, el pueblo vasco al que pertenecemos y en el que ejercemos nuestro apostolado. Los sacerdotes vascos amamos a nuestro pueblo con el mismo derecho, con la misma obligación de piedad natural y cristiana con que un sacerdote castellano ama a Castilla y los Obispos de Uganda a la familia humana de la que Dios quiso que formaran parte. Creemos los sacerdotes vascos que el tener un juicio y un sentimiento sobre las conveniencias temporales de nuestro pueblo está dentro de nuestras atribuciones. Este juicio y este sentimiento es el mismo que se permiten de sus pueblos respectivos todos los sacerdotes del mundo. Creemos además que es un deber y una necesidad biológica. Sabemos los sacerdotes vascos que nuestra consagración a Dios y a la Iglesia nos impone, entre otras cosas, la renuncia a nuestra implicación en los negocios temporales. Pero, como Iglesia que somos y parte de la Iglesia docente, nos reservamos el derecho, que es a la vez obligación, de denunciar los atentados que por error o mala voluntad pudieran cometerse contra los derechos naturales de nuestro pueblo.

Así ahora denunciaremos, ante los españoles y ante el mundo entero, la política que hoy impera en España, de preterición, de olvido, cuando no de encarnizada persecución, de las características étnicas, lingüísticas y sociales que nos dio Dios a los vascos. Y ello sin provecho de nadie y con evidente perjuicio de nuestros más altos intereses: los espirituales.

Si las piedras de un monumento nacional se cuidan por la belleza de su arquitectura y el reflejo que conservan del alma de la época que las labró, EL EUSKERA INSTRUMENTO NECESARIO PARA LA EVANGELIZACION Y CULTURA DE NUESTRO PUEBLO, tiene derecho ante la Iglesia y ante la civilización, un derecho a la vida y a ser cultivado, cuyo desconocimiento denunciaría en la Iglesia un absurdo y un descarada contradic-

ción, y en la sociedad una política reaccionaria y antihumana hasta el genocidio.

Y este es nuestro caso hoy en España. Y no hay razón histórica, social ni política que justifiquen semejante crimen..

He aquí, Excmo. Sr., expuesta a nuestro modesto parecer, una de las causas fundamentales del abismo que día a día se abre entre nosotros y las almas cuya custodia nos ha sido confiada. No es otra que la contradicción existente entre la doctrina católica sobre la persona humana y su incumplimiento por un régimen que oficialmente se dice Católico y al que presta su apoyo decidido la Jerarquía Católica Española. Esa es la acusación que se nos hace”

Lehen esan dudan moduan, erreakzioak ez ziren berandutu. Gotzainak eurak ez ezik, Bikarioek eta beste eliz kargu banaka batzuek ere bortizki jo zuten apaizen kontra. Roman Orbe Maisu Kanonigoak, adibidez, “La Voz de España” egunkarian “Total adhesión al Obispo” uztailaren 24an argitaratutako artikulu batean “*intrusos*”-tzat hartzen zituen sinatzaileak, “*late en el fondo el implacable odio contra el actual régimen español*” gehitzen zuelarik.

Euskal eliza ofizialaren erreakzioak, oharkabea, tiroa erratu zuen, izan ere apaizen karta ez zihoan Gotzainen lana deitoratzera, horien bitartekotzarekin Francoren erregimenaren politika zanpatzaileari balazta jartzen gonbidatzera, baizik. Baina eliza ofizialaren erreakzioarekin azalean uzten ari zena, erregimena eta elizaren ustezko “*unum quid*” printzipioa zen. Espainiar apaiz batek, esaterako, bien arteko batasun hipostatikoa defendatzen zuen: “*El que ataca a Franco ataca a Dios*”. Eta kito!

Egia da kartaren oihartzuna mundu osora heldu zela eta kanpoko komunikabideek astindu ederra eman ziotela espainiar erregimen diktatorialari. Horrek biziki mindu zituen Franco eta bere morroiak. Kartaren zalaparta zela eta Jose Luis Iñarra bilakatu zen partikular eta erakunde askoren jomuga, batzuek laudorioak bidaltzen zizkiotela eta beste zenbaitzuek kritika, hitz gogorrak eta irainak. Iñarraren artxiboan, berak jasotako eskutitz batzuk gordetzen dira. Horietatik bat aukeratu dut, 1951-1956 urteetan Gipuzkoako



“Garicano Goñi Gipuzkoako gobernadore zibil ohiak -ezkerrean- eskutitz gogorra bidali zion Iñarrari 1960an, honen jokaera salatuz”

Gobernadore Zibila izandako Tomás Garicano Goñi iruñarrarena⁶², alegia, 1960ko abuztuaren 2an igorria. Zati batzuk soilik aldatuko ditut:

“... Me dirijo a Vd. por ser el más caracterizado de los firmantes, dada su jerarquía de Arcipreste. Crea que me duele tener que escribir y precisamente a Vd. esta desagradable carta, porque nuestra relación, durante el tiempo

62 Garicano Goñi 1930ean armadako talde juridikoan sartu zen. Emilio Mola eta Martin Alonso jeneralen arteko lotura egin zuen, 1936ko matxinadan. Aire Armadako Jeneral bezala amaitu zuen karrera. Barcelonako Gobernadore zibila izendatu zuten 1956an eta egundoko errepresio poliziala erabili zuen karguan iraun zuen bitartean. Barne Ministroa izan zen 1969-1973 urteetan. 1970ko abenduaren 4an Salbuespen Egoera ezarri zuen Araba, Bizkia eta Gipuzkoarako.

que estuve en esas tierras no fue formalista y protocolaria sino afectuosa, cordial; en resumen, nunca pude suponer cuando hablaba con Vd. que pensaba de mí esas cosas tan terribles que en la carta se exponen.

... Mientras desempeñé ese Gobierno Civil una sola vez llegó, más que la denuncia, la noticia de que un muchacho había sido maltratado en la Comisaría y orinaba sangre; fue rápidamente reconocido por los médicos y no pudo comprobársela realidad del hecho.

... En distintas ocasiones, sacerdotes dedicados a cuestiones sociales acudieron a mí planteando problemas de todo orden; discutimos, a veces acaloradamente; no se trata de recordar cómo se resolvieron aquellos sino de asegurar que ninguno de esos sacerdotes sufrió la menor molestia, ni en sus personas ni en su labor.

.. Hace ya treinta años que ejerzo funciones judiciales, sin más intervalo que los cinco años que estuve en esa provincia y puedo asegurarle que solo en una ocasión sufrí la interferencia del poder ejecutivo; fue en 1932 y quien se dirigió a mí en forma poco adecuada el entonces Ministro de la Guerra y después Presidente de la República D. Manuel Azaña (q.e.p.d). Si algo hay en España que haya merecido y obtenido el respeto de todos, es la Administración de Justicia en todas las jurisdicciones, por su austeridad e independencia.

... No comprendemos su entrega a ese partido basado en el racismo, el odio y la soberbia que es el nacionalista vasco; ese odio que tienen a todo lo español, esa soberbia y vanidad estúpidas de creer que pertenecemos a una raza superior; no comprendemos tampoco, y menos en personas religiosas, el desprecio al "maketo"; ¿Se puede decir que los sacerdotes nacionalistas aman y atienden por igual a los vascongados que a los demás? Sinceramente, no lo creo. He visto muchas cosas, desde rezar en vascuence ante un auditorio que en su casi totalidad lo desconocía, hasta escuchar la predicación de la Bula como privilegio atribuido por la Santa Sede a la península, de donde se deduce que lo tienen los portugueses y no los canarios o baleares; déjense ya de lugares comunes sobre la predicación en vascuence; les consta que no hay persecución alguna, se predica en vascuence siempre que se quiere y donde se quiere, incluso ante auditorios que conociendo

prácticamente en su totalidad el castellano, desconocían el vascuence en una gran parte, dando lugar a que se piense si el idioma se utiliza para enseñar y propagar la religión a ésta para difundir aquél.

... En resumen, no admito una sola de las injuriosas y calumniosas afirmaciones de la carta, bien trituradas por cierto en escritos que seguramente ya conoce. Para terminar citaré unas plabras de San Ignacio que leí el domingo con motivo de su fiesta: "... que lo blanco que yo creo ver sea negro si la Iglesia Hierárquica así lo determina" Puede hacer el uso que crea conveniente de esta carta. Por mi parte, no pienso que salga del ambiente puramente religioso. Le saluda atentamente y b.s.m. Tomás Garicano"

Apaizen eskutitzak sortu zuen zalapartaren ondorioz, Iñarrari pasaporteak kendu zitzaion.

Erretoreak handik urtebetera beste eskutitz bat jaso zuen, biziki estimatu zuena. Jerusalemetik zetorkion eta ikaskide izandako Iñaki Azpiatzuk sinatzen zuen. Azpiatzu israeldar hirira joan zen, bertan Adolf Eichmann alemaniar naziazen kontrako epaia baitzen, israeldar komando batek Buenos Airesen bahitu eta Israelera eramanez ondoren.

Azpiatzu, gorago adierazi dudanean, argentinar Espetxeetako Kape-rau Burua izan zen eta baita Espetxeetarako Kristau Laguntzaren Idazkaritzaren sortzailea ere. Israelera, epaiketako begirale gisa eta kazetari moduan joan zen. Honela esaten zion 1961eko irailaren 10ekoan:

"Kaxo Jose Luis:

Nolatan iri idazteko gogua sortu zaidan? Itzaz, beñere ez bezela, oroitu naizelako. Toki auek oso egokiak dituk adizkideen alde otoi egiteko eta adizkideetan adizkide aut gazte-gaztetandikan.

Aspaldian ortik urruti natxebillek; baña atzerri aizeak etzizkitak uxatu apaiztegiko oroitzapenak. Lengo-lengoa nauk, Jaunari eskerrak, eta neurekin zabilzate lagun zar guztiak. Ez nitek poz makala izango, eskutitz onek nik nai añako alaitasuna emango balikek. Uzte horretan ari nauk.

Ondo merezia dek nere biotzkada au, batez ere bi urte auetan. Ire berri ondo zekiat eta ez uke errex neurtuko ire jokaerak eman ditzen poza. Ez ituan nun-nai jarri Jaungoikoak. Begi argi eta kemen bearra izan dek. Zorionak Joxe Luis!

Dakikenez, Eichmannen epaiketa ikustera etorri nituan. Aspaldiko urteetan lan oietan natxebillek. Orain dena bukatuta zegok eta Israel ezagutu nai diat. Bazegok emen zer ikusi ta zer ikasi. Batez ere gureztat, euzkera maite degu-nontzat.

Belenen eta Golgotan batez ere itzaz gogoratu nauk. Emango al dik Jainkoak, daramakiken bidean, bear dekan argia eta indarra, orain arte bezela? Mordozka zetorkik nere lagunen izenak: Ayerbe laizterkaria, Iturbe pelotaria, Larrea liturjista, Rada ostikalaria, Juanito Perez tango-abeslaria, Zubeldia txukuna, Mokoroa lixtorra eta nik al zekiat beste zenbait⁶³. Ikusten ba-dituk, agur egiek nere izenean.

Emendik Erromara natxiak. An egongo egun batzuetan. Concilio gauzak nola dijoazten ikusi nai nitek! Beste zerbait ere bai. Gero Bayonara⁶⁴, an plan-to egiteko asmotan. Nire gogoz orrera juango nituzkek. Bazeukat gogo ori, erraiak urratzeko añakoa. Ez diat uste, ordea, al izango dedanik. Emen izan dek Gotzaia. Ez diat ikusterik izan al.

Osasunez ondo natxebillek eta badiat non eta zertan lan egin. Orri esker, pozik bizi nauk. Noizean bein ekaitzpean, baña beti itxaropenez gañezka. Ez nitxean Jainkoak kopetillun egin! Eta i nola abil? Mondragoiko Arzipreste ez dek edonor...! Orrera noanean, Aratz Erreka aldera joko diat edo Mendibilera. Irekin bizi al dek ire arreba? Eskumiñak eman nire izenean.

Agur Joxe Luis. Ondo izan ta... oroi ta otoi! Ire-ire."

63 Apaizgaitegiko ikaskideak ziren

64 Ez zuen Euskal Herrian geratzeko asmoa burutu ahal izan. Buenos Airesen hil zen 1988ko martxoaren 29an.

IKASTOLA

Garbi dago Iñarrak euskara maite zuela eta txiki txikitatik giro euskaldunen hazi zutela. Ezagutu zuten arrasatearrek diotenez, edozein gauza egiteko prest zegoen euskal kulturaren hedapena eragitearren. Arrasatera ere iritsi zen euskal haurrak euskaraz heitzeko ezinbesteko urratsak eman behar izatea, eta ikastola sortzeko eragozpen juridikoak zirelako Elizaren aukera aprobetxatu zen.

Adierazi behar da, argi eta garbi, Arrasatekoa ez zela lehen kasua. Beste herri batzuetan hasiak ziren ordurako, beti ere ildo beretsutik abiatuta. Adibidez, eta Iñarrarentzat erreferente bat izan zela, Oiartzunen ere horrela ekin zioten arrasatearrok baino hilabete batzuk lehenago. Elizaren bidea zergatik? Francok eta Erromak sinaturiko Konkordatuaren ondorioz, Elizak ahalmena zuelako kristau heziketarako eskolak irekitzeko. Eta Arrasateko erretoreak pozarren izenpetu zituen, ikastolaren egitasmoaren eragile nagusiek aurkeztu zizkioten paperak. Martxan zegoen “Escuela Parroquial” berria, haurrak euskaraz heitzeko. Zuzendaritzarako lizentziadun bat behar zenez gero, Juan Leibar izendatu zuten, nahiz eta sekula ez zuen kargua bete.

Ikastolaren hogetabosgarren urteurrena ospatu zenean “San Frantzisko Xabier Ikastola” liburua kaleratu zen eta bertan irakur daiteke:

“1960ko hamarkadan Arrasatek ezin zion entzungor egin ikastolen mugimenduari. Ikastola sortzeko zegoen lege-oinarri bakarra eskola parrokiak bat eratzea zen, elizaren babespean beti ere. Irtenbide hau erabili zen. Jose Luis Iñarra erretorearen laguntza paregabeari esker.

Herrian hainbat bilera egin eta ikastolak sortzen aitzindari izandako herrietan informazioa, aholkularitza edo esperientzia bilatu ondoren, bi irakasle titulatuta eta laguntzaile bat Irakasleentzako Egoitzara bidali ziren Donostiara. Egoitza honen helburu berezia Ikastolan irakasten hasi behar zuten maisu-andereñoak prestatzea zen, eta pedagogia berri baten ildotik prestatu ere. Hau 1967ko irailean gertatu zen eta hilabete batzuk geroago, 1968ko apirilean, eskolak ematen hasi ziren herrian.

Ikastola abiarazita zegoen. Laster aukeratu zen zuzendaritza batzordearen barruan lehen lehendakaria: Juanito Azkarate.

On Jose Luis Iñarra 1941ean iritsi zen Arrasatera eta hil arte gelditu zen gure herrian, hain zuzen ere, meza ematen ari zela 1976ko urriaren 2an eman zuelarik azken arnasa. Herri osoak maite izan zuen, gehien sufritzen zutenei laguntzen baitzien: behartsu, agure, gaixo eta hilzorian zeudenei, alegia. Gizon alaia zen, baina une larriak ere bizi behar izan zituen: bai Arrasatera etorri berritan – gerra ostean herria bitan zatitua baitzegoen- baita urte batzuk geroago hainbat arazo politikori aurre egin behar ziolako ere, garai haietako bizi izan zituztenek gogoan izango dituzten arazoak, hain zuzen. Ezin ahaztu etorkinei eman zien laguntza 60ko urte haietan. Bizi zen bitartean herriak omenaldi bat egin zion Arrasateko “semetzat hartuta” izendatuz, eta hil ondoren sinadura-bilketa egin zen kale bati beraren izena eman ziezaion Udalari eskatzeko”

Lehendabiziko lokalak Abade Etxean bertan egokitu ziren, beti Iñarraren ardurapean. Erabaki horrek zurrumurruak jasoarazi zituen herrian, batez ere gerra aurreko ikastolaren oroitzapena artean bizirik zutenen artean. Ordukoa ere – 1932an eraikia- Abade Etxean kokatu zen hasieran, EAJ-ren Batzokiko lokaletara igaro aurretik. Horrek eta, halaber, 1936an fusilatutako Jose Markiegi eta Leandro Guridi apaizak Ikastolako irakasleak izan zirela gogoratzeak halako zirrara kezagarria piztu zuen arrasatear batzuegan. Errepikatuko ote zen eszenatokia?

Baina, zorionez, garai desberdinak ziren, nahiz eta ez zitzairen arduradunei bat ere samur gertatu ikastola irekitzeko baimena lortzea. Arrasateko Udalaren aldetik jarrera positiboa eduki arren – gutxi ez zena!- Administrazio zentralerako zerbitzuen garro antzugarriek eragozpenak nonahi jartzen zituzten. Hala ere, herriaren ekimenak aurrera atera zuen bere egitasmoa eta ikastolaren gelak Abade Etxeko behean jarri ziren. 1968an Arrasateko Udalarena zen Musakolako areto batera zabaldu zen ikastolaren eskaintza eta handik gutxi-urte San Andres auzoko beste batera.

Ikastola hazten joan zen eta Jose Luis Iñarrari arazoak pilatzen zihozkion, erakundearen titularra zelako, nahiz eta barne bizitzan esku hartzen ez zuen. Pairatu behar izan zituen, adibidez, Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik behin eta berriz bidali zizkieten idazki nahasi arazleak. Baina ez zen inoiz kivildu, bere atzean herri oso bat zuela zekien eta. Zenbat elkarrizketa informal Jua-

nito Azkarate Ikastolako Zuzendaritza Batzordearen lehen lehendakariarekin! Bi gizonak euskal kulturaz enamoratuta, hainbat eta hainbat solasalditan erre zituzten orduak, ez bakarrik herriko ikastolari eskainiak, baizik eta Euskal Herriari eta konkretuagoki Arrasateri etorkizunak ekarriko zion panoramari ere bai.

Bost urtez iraun zuen Jose Luis Iñarrak ikastolaren titular moduan. Eta amaiera, hain zuzen, Arrasateko ikastolaren historian inoiz gertatutako esperientziarik latzenaren ondorioz gertatu zen. Irakasleen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko auziak eztanda egin eta erretorea erdi-erdian harrapatu zuen, Ikastolaren hastapen haietako irakaslegoaren giza egitura ia-ia zeharo deuseztatuz. Ikastolaren titularra zenez gero Auzitara eraman zuen irakasle taldeak erretorea. Eta epaia Eibarren izan zen 1973an. Iñarraren lege gizon aldeztalea Ibon Navascues izan zen. Irakasleena, berriz, Juan Mari Bandres, une haietan erretorea elizako hilarriaren auzian defendatzen ari zena. Hau dela eta, Bandresek honela idatzi zion Iñarrari, 1973ko otsailaren 18an:

“ Querido D. José Luis: Razones estrictamente jurídicas, no previstas cuando con otros compañeros me hice cargo de la defensa de los profesores despedidos de la Ikastola de San Francisco Javier, obliga a estos a dirigir sus demandas contra Vd. como “propietario” de dicho centro de enseñanza.

De la simple lectura de las demandas se deduce con claridad que la acción judicial que se ha obligado a emprender a los profesores está absolutamente despersonalizada y no contiene ataque contra su respetable persona ni contra la propia institución docente de la Ikastola. Se trata simplemente de un remedio judicial – inscrito en la legalidad vigente- contra medidas, como es el propio despido, adoptadas también al amparo de esa misma legalidad.

Su inteligencia y hombría de bien, que no admiten discusión, así lo habrá sabido comprender. Ello no obstante, le doy estas explicaciones y hago estas aclaraciones con sumo gusto como tributo a la amistad que nos une y a la confianza que hasta ahora me ha venido dispensando y que confío seguir mereciendo. Aprovecho esta oportunidad para reiterarle mi sincero afecto y enviarle un fuerte abrazo”

Epaileak 30.00 pezetako isuna jarri zizkion Jose Luis Iñarrari, normala den moduan Ikastolak ordaindu zituenak.

PARROKIAKO HILARRIAREN KASUA

Jose Luis Iñarraren bizitzan modu bereziz grabatu ziren, 1967 urtean Arrasateko parrokiaren eliz-atari nagusiko aurrealdean jarririk zegoen hilarriari buruzko gertaerak. Uneko giro politiko itogarriaren adierazlea izan zen errektorearen inguruan eraturako iskanbila eta, bat ere zalantzarik gabe, bote-rearen zirkuluetatik Iñarrari “itxoiten” ari zitzaiola esan daiteke, kasuak sortu zuen dokumentazioari bagagozkio.

Urte hartako martxoaren 6ko gauean hasi zen istorioa, 1936ko gerran Franco jeneralaren bandoan hildako arrasatearren izenekin ipinitako hilarria puskatu zutenean. Eliz-atariko orman zegoen harrizko plaka hura eta apurketaren egileek “ETA- Euskadi ta askatasuna” pintatu zuten tokian. Garaiko medioek bere biziko oihartzuna eman zioten gertaerari eta, gerra amaitu zenetik euren aldeko hildakoak omentzeko urtero egiten zuten ekitaldia hilaren 12rako iragarrita zutenez gero, aldez aurretik pentsatua zuten moduan Orion burutu beharrean Arrasatera aldatzea erabaki zuten frankistek, ekintza politiko eta erlijiosoak egitarautuz.

Prentsan irakurritakoak kezkatuta, Martxoaren 10ean parrokiako kabilidoak ondoko eskutitza igorri zion Manuel Valencia Remon Gobernadore Zibilari:

“Ante la noticia publicada en los periódicos de hoy, de la reposición de la lápida en los muros de la iglesia parroquial de San Juan Bautista de Mondragón, el Cabildo Parroquial de dicha iglesia se cree en la obligación de manifestarle respetuosamente:

Que teniendo en cuenta la naturaleza y trascendente de la Iglesia y su doctrina expresada en el Concilio y especialmente en la Constitución “Gaudium et spes” nº 76 que dice: “La Iglesia que no se confunde de ninguna manera con la comunidad política por razón de su oficio y competencia y que no se liga a ningún sistema político, es signo y juntamente defensa de la trascendencia de la persona humana”

Y que apoyando nuestro sentir en las declaraciones de S.E, aparecidas en la prensa guipuzcoana del día de ayer : “Que en nosotros y en nuestros

hijos aliente un espíritu que sigue pagando rencor con amor; que hace muchos lustros que en España no existen vencedores ni vencidos y que los que se enfrentaron en el campo de batalla reposan hoy en la Basílica de la Santa Cruz del Valle de los Caídos...”

1.- En el caso de ponerse una nueva lápida, se haga en ella referencia a todos los mondragoneses fallecidos en la guerra civil.

2.- Juzgamos que de hacerse alguna discriminación y ser repuesta la lápida en los muros de la iglesia parroquial, la Iglesia, Madre de todos los hombres, queda comprometida políticamente, ante lo cual, S.E, no podemos menos de mostrar nuestra disconformidad.

3.- En cuanto al acto religioso, teniendo en cuenta lo precedente, se aplicará en sufragio de todos los fallecidos en la guerra civil”

Eskutitza, Lorenzo Bereziartua Balerdi Gipuzkoako Gotzaina kanpoan zegoelako, eliz barrutiko bikarioaren onespenez eman zitzaion Gobernadoreari. Gotzaina itzuli zenean, bere egin zituen parrokiako apaizen erabakia zein eskutitzaren edukia.

Martxoaren 12an, kanpotik iritsitako ehundaka erreketek eta falangistek hartuta iratzarri zen Arrasate. Beste ameskaizto bat balitz bezala, herritarrak egun triste bat bizitzera prestatu ziren. Parafernalia faxistarekin bat ez zetozen askok herritik alde egin zuten goizean goizetik. Gehienak herrian geratu ziren, nahiz eta indarrezko erakuspen hark ekar zezakeenak beldur egon. Zurrunbilo haren erdian Jose Luis Iñarra zegoen, elizako ormen artean gertakizunen zain. Gobernadore Zibilak ez zion jaramonik egin kabildoaren eskutitzari eta hilarri berri bat inposatu zuen, bando bakar bateko izenekin. Gainera, Gotzainak erretorea meza ematera behartu zuen.

Juan Manuel Azkoaga Cano Arrasateko alkateak ongi etorria egin ondoren, Espainiako banderarekin eta Comunion Tradicionalistakoarekin azaldu ziren elizara agintariak eta euren jarraitzaileak. Bere kontzientziarekin zintzo jokatuz, erretoreak elizkizuna ahalik eta asepsiarik gehienarekin eman zuen. Hori dela eta, gobernadoreak faktura pasatuko zion handik gutxira. Hilarria estaltzen zuen espainiar bandera gobernadoreak deskorritu aurretik ere, begiekin iltzatu zuen Iñarra, errespontsua elizaren barne aldetik egin baitzuen,

lehen lerrora agertu gabe eta bere otoitzetan zein “erori”-rengatik ari zen zehaztu barik. Hori bai, alkateak aginduta, herriko txistulariek espainiar himnoa jo zuten, gobernadorearen “*¡Muertos por España!*” ozenari bertaratutakoek “*¡Presente!*” batekin erantzun ondoren. Frankistak ekitaldi politikorako Ideal Cinemara biltzen ziren bitartean erretorea parrokiaren geratu zen, bihotzean min. Berarenganaino iritsiko ziren, nonbait, zine aretoan Daniel Mugarza erreketen buruaren diskurtsoko azken hitzak: “*¡Aún no se nos ha mojado la pólvora!*”

Baina hilarri berriak ez zuen osorik luze iraun, izan ere apirilaren 9an, igandea, hilarria osteratxikua agertu zen eta alkatearen aginduz zenbait enplegatutak zatiak Udaletxera eramane zituzten. Biharamunean Jose Luis Iñarra guardia zibilen kuartelera deitu zuten galdeketa bat egiteko eta handik bi egunetara Lurralde Epaitegitik igaro behar izan zuen, guardia zibilei adierazitakoa berresteko. Hilaren 13an berriro ipini zuten hilarria udal enplegatuek eta lau egun beranduago Gipuzkoako Udalek kanpaina bati ekin zioten, hilarriaren oinetan lore koroak jartzeko. Bergarako izan zen lehena, 17an, eta Luis Laskurain alkateak bidalitakoaz gain, Bergarako Karlisten Elkarteak eta Falangisten Tokiko Agintaritzak ere lore sorta bana igorri zituzten.

Hori ikusita, erretorea Arrasateko alkatearekin elkarrizketatu zen 18an eta tira-bira baten ondoren eta alkateak jaramonik ez ziola egiten ohartuta, erretoreak berak kendu zituen loreak hilarriaren azpitik. Loreen desagertzea eskatzeko erretorearen argudioa, halako ekintzek herritarren arteko gorroto, ikusi ezinak, zatiketa eta bortizkeria ekar zitzaketela zen.

Apirilaren 20ko “Voz de España”-ren kronikan, Arrasateko korrespondentzaren zutabearen “Arcipreste irascible” titulupean honela irakur zitekeen:

“... El señor arcipreste ha reaccionado de manera airada ordenando retirar dichas ofrendas florales.... Las flores fueron retiradas del pie de la lápida airadamente, actitud que es objeto de comentarios, prevaleciendo los de repulsa y desagrado, tanto en Mondragón como en los restantes pueblos de la comarca”⁶⁵

65 Handik zenbait egunetara, Arrasateko korrespondentzaren Iñarra erretore eta artzapezari adierazi zionez, berak ez zuen kronika hura idatzi, ezta egunkariko zuzendariak ere. Urte hartako azken egunean La Voz de Españako zuzendaria bera joan zitzaion etxera erretoreari, notaren jatorria gobernu zibilean zegoela adierazteko.

Parrokiako apaizen kapituluak 20ko datarekin eskutitz bat igorri zion alka-teari, “como cabeza de la comunidad municipal que debe ser el tutor de la paz y del bienestar”, begirune berdina eskatzen zuten gerran eroritako guz-tientzat. Halaber, beste eskutitz bat idatzi zioten apaizek Gotzainari:

“Las dimensiones que han alcanzado los hechos sobrepasan el ámbito parroquial y ante los muy fundados presentimientos de que el problema se va a agudizar y extender, convirtiendo a la iglesia parroquial en campo de batalla con renovación de violencia, rencores y viejas heridas, y recordando que el silencio de la Iglesia en esta materia es interpretado por los fieles como un compromiso de Ella con una opción política, creando en los mismos graves problemas de conciencia, Suplica a V.E.R adopte una acitud resuelta ante la autoridad competente de acuerdo con la situación creada”

Baina erabakia, nonbait, hartua zegoen: Gobernadoreak isuna jarri zion hilak 22an Iñarrari, *“por retirar por sí mismo, pese a la prohibición reiterada del Sr. Alcalde de esa Villa, las flores depositadas al pie de la sencilla lápida que recuerda a los Caídos por Dios y por España... y, en fin, por poner en riesgo con su conducta, justamente, esa paz pública y convivencia social por las que dice velar”* Zigorraren diru kopurua: 25.000 pezeta.

Uhina gero eta handiagoa egiten ari zela ikusita, erretoreak eta Gipuzko-ako Gotzainak bisita egin zioten Gobernadoreari, probintziako Elizak Arrasa-teko erretorearen jokaera ontzat ematen zuela adierazteko. Bestalde, Donos-tiako Eliz-Barrutiko Apaizen Batzordeak, Gotzaina buru zelarik, agiri bat kale-ratu zuen, apirilaren 30eko meza guztietan irakurtzeko. Zazpi puntu zituen agiriko bi azkenak honako hauek ziren:

“6.- Aurreko irizpide ta oiñarri auek aintzat euki-ta, uste du Batzordeak Mondragoiko Artzipreste Jaunaren jokabidea ta ortarako izan dituan arrazoi-bideak, bere artzai-lanari dagozkion bezelakoak izan dirala eta zuzenak, bera eliztar guztien aita ta elizaren zainzaille delako.

7.- Azkenik, Donostiako Eliz-Barrutiko Apaiz Batzordeak, auzi au elizba-rnuti bateko mallen gañetik dagola ikusirik, Gotzai-Batzarrera eramatea eraba-ki du, ark auziari dagokion mallan aztertu ta erabaki dezan”

Maiatzaren 9an Arrasateko erretoreak errekurtsioa jarri zuen isuna ezabatzeko eskatuz. Gobernadorearen erantzuna ez zen luzez berandutu, hil bertsoko 27an igorri baitzion Iñarrari ebazpena. Bitxia da, oso, izan ere Valencia Remon jaunak agerian jarri zituen gordeta zeuzkanak, eta erregimenaren estilo propioaren bitartez, martxoaren 7ko jazoetaraino igo zen bere azalpen luzean, zazpi urte lehenagoko gertaerak ere aipatuz. Merezi du idazki luzearen laburpena egiteak:

“RESULTANDO que el referido día 12 se celebró la misa indicada... no teniendo Vd. la menor muestra, no ya de respeto sino de la más mínima deferencia hacia las Autoridades Provinciales y Locales allí presentes, ni haciendo alusión alguna a la intención por la que se celebraba la Misa, que era ni más ni menos que por el eterno descanso de los muertos por Dios y por España en guerra que por boca del Cardenal Primado fue calificada de Cruzada.

RESULTANDO que siguiendo la costumbre establecida tuvo lugar en un teatro de la localidad un acto patriótico de recuerdo y afirmación de ideales, siendo silenciado al público que atestaba el local, por parte de los oradores, la actitud parcial y harto significativo de Vd, al objeto de no aumentar la indignación existente, lo que hubiera promovido una hostilidad manifiesta, dada su significación política, de antiguo conocida.

CONSIDERANDO que con una pretendida habilidad, reduce Vd. los hechos al acto aislado de la retirada de unas flores, hecho que como todos está relacionado con los anteriores... y dadas la ocasión y circunstancias en que los hechos se produjeron, una adhesión y un propósito plenamente congruentes con su destacada actuación en anteriores ocasiones, entre las que se puede citar el ser uno de los más significativos firmantes de la titulada “Carta de los sacerdotes vascos” del año 1960, que dio lugar a repulsas que no son de este lugar... Propósito perseguido y realmente conseguido por los activistas pertenecientes a la “E.T.A” organización clandestina, repetimos, cuya actividad subversiva es notoria y sin duda la más destacada no sólo en esta provincia sino en las limítrofes, que inició su actividad con el pretendido descarrilamiento de un tren de excombatientes con motivo de la celebración del 18 de Julio... Y así mismo la solidarización que supone el repetido escrito, entregado al que suscribe en vísperas de la celebración de los actos indica-

dos, escrito absolutamente inoportuno y que provocó por mi parte la más severa crítica al revelar en aquella inmediata y cercana coyuntura una solidaridad y adhesión consciente hacia unos grupos subversivos y clandestinos cuya actividad atenta contra la Unidad de España. Y es esta adhesión la que convierte en gravemente punible una actuación que en otra ocasión y circunstancias no revestirían la importancia simbólica de los hechos ahora enjuiciados.

CONSIDERANDO que la acción arciprestal ha resultado “compañera de viaje” de otras más violentas y al propio tiempo más en consonancia con otras actitudes arciprestales más políticas que pastorales.

CONSIDERANDO que el hecho de que la Iglesia eleve preces por todos los fieles difuntos no se compagina con el de evitar que se rinda homenaje a algunos de ellos, tanto por parte de sus familiares como de entidades, cuya actitud patriótica coincida, sin escándalo de la religión, con la de los muertos que se conmemoran en las lápidas... Porque los católicos son muchos y no todos, ni mucho menos, se hallarán de acuerdo: unos, con la actitud ideológica subyacente, otros con la prudencia arciprestal, otros con su actitud de afirmar algo parecido a “La Iglesia soy yo”

Gobernadorearen arrazoiak irakurrita, garbi dago ez ziotela isuna kendu. Jose Luis Iñarrari Gobernazioko Ministerioaren aukera geratzen zitzaien eta bertara ere errekurritu zuen, esperantza gutxirekin, noski. Eta hala izan zen, datarik ez duen idazkian atzera bota baitzuten erretorearen argudioa, *“porque el hecho material de haber retirado unas flores no es más que una de tantas circunstancias concurrentes en la lamentable actitud no pastoral adoptada por el sancionado”*

Isunaren istorioak bide luze izan zuen, 1973ra arte iraun baitzuen prozesuak. Errekurtso berri bat jarri zuen, oraingoan Juan Mari Bandres abokatuaren laguntzarekin. Baina dena alperrik gertatu zitzaion.

Jacinto Argaya Donostiako Gotzainak honela idatzi zio Iñarrari, 1973ko ekainaren 24an:

“Mi querido amigo: Leo, con sorpresa, que por el Supremo ha sido confirmada una sanción gubernativa de 25.000 pesetas que le fue impuesta el año j;1967!! Lo siento de verdad. Nosotros pensaremos en el asunto. Vd. ¿Qué me aconseja?”

Iñarrak, umore puntu batekin, honela erantzun zuen bere kolkorako karta irakurri ondoren : *“Zer aholku? Isuna pagatzea, besterik ez!”* Baina pentsamendu hura ez bide zen luze joan, erretoreak berak ordaindu behar izan baitzuen isuna bere poltsikotik.

Arrasateko herritarren baieztapen borobila da, Iñarra erretoreari ez ziotela inoiz pulpitutik edota bere hitzaldi arruntetan politikaz aritzea entzun. Eta mehatxuak jaso zituenean ere, isilean eraman zuen kezka, barruko sufrimendua iger bazekioken ere.

Hilarriaren kasua zela eta, Jose Luis Iñarrak dozenaka eskutiz jaso zituen mundu guztitik. Atzerriko komunikabideek auziaren berri eman zuten eta denetarik mezuak iritsi zitzaizkion erretoreari. Gehienak, anonimatoan ezkutatuta, irainka zetozkion. Izan ziren ere, noski, aldekoak. Baina frankismoari beldur, nonbait, kontzientziarik gehien isilpean geratu ziren. Erretoreak gutun guztiak gorde zituen. Horietatik bi aukeratu ditut:

Edur Arregi, Juan Jose Etxabe, G. Goitia, Xabin Arizabaleta, L. Ozaeta, Ander Barrutia eta Felix Likiniano, Iparralden erbesteratutako arrasatearrek izenpetzen zuten ondoko hau:

*“Baiona’n 30-4-1967
Mundraueko parrukuei, Baionako mundrauetarrak
Agur*

Ez da gure asmue, zuri idea barrixak emutie, edo zure kontsientzian influirutie, edo gure pixu kaxkarra burueretxikeriz dan baiño gorau jartzie. Mundrauetar bezela – eta mundrauetarrez- geure iritxi bat emutie bakarrik gure degu. Ona emen gure iritxi au:

Onartzen degu, eta txalotzen degu, bene-benetan, zuk artu dozun postu-

ra. Ez dozu milagro aundirik egiñ. Bier-bierrezkue zan egiñ dozun dana. Bierrezkue eta bidezkie. Beste batzuk be, zure ejenplu ederra jarraitu bierrien agertzen dire. Arro eta oso pozik gagoz geure erriko bat lenengokue izan dala-ko. Jarrai beti aurrera.

Baiña gure ustez inportantiena da, egintza eder ori, erdira baiño berau jatxi ez daiñ, ez oiñ, ez gero, ta ez beiñ be, multa ori pagatzia. Gizon eta abade zuzen moduen jokatu dezu, beraz ez dauketzu ezer pagau bierrik. Puntu au, izen leike bier bada, etaparik zaillena. Normala da aspijanezko presiñuek eukitie. Baiña balixo badau edo ez badau balixo, gure eretxixe au da: EZ PAGAU. Zorion eta agur bero batekiñ”

Gaizka Barandiaranek ere Austriako Insbrucketik eskutitz bero bat idatzi zion erretoreari 1967ko apirilaren 14an. Hona hemen zatirik mamitsuenak:

“.. Emen jakin genuen Donostiko Gauleiter (nazitarren gobernadorea) cruzadoak zuri ipiñitako diru zigorra.... “Sine sanguine nulla redemptio” Zure aurreko parroku jaunak - gizon zintzorik izan bada, bera izan zan- eta beste biyek bidea erakutsi ziguten edozeiñ Erri bere jabe izateko, suz eta urez erditu behar dala. Cruzadoek garratzatuta daude, dena eskuetan 30 urtez idukita, dena galtzen ari direlako. Gorantziak eta aurrera”

ARRASATEKO SEMEKOTZAT

Hazten zihoan herria zen Arrasate. Ondoko laukian⁶⁶ parrokiako eliztarren bilakaera ikus daiteke:

Urteak	1941	1945	1950	1955	1960	1965
Eliztarrak	5.966	6.198	7.012	8.429	10.951	15.630

Eta zenbait elizkizuni dagokionez, ondoko hauek dira datuak:


	1941-45	1946-50	1951-55	1956-60	1961-65
Bataioak	548	737	741	1.287	1.800
Ezkontzak	189	220	246	298	368
Hilak	308	277	293	335	364

Jose Luis Iñarra Arrasatera heldu zenetik hogetabost urte betetzen ziren 1966an eta une hartan parrokiako apaizak, erretoreaz gain, Jose Maria Arizmendiarieta, Tiburzio Sagasta, Javier Etxebarria, Jose Maria Bergara, Pedro Aranegi ziren. Eta hogetabost urtetako tarte hartan Arrasateko parrokian lehen Meza eman zuten herritarrak honako hauek ziren: Facundo Sampedro, Jesus San Miguel, Pedro Iturbe, Pablo Barrena, Jose Plazaola, Jesus Berezi-bar, Tomas Iturbe, Juan Bautista San Miguel, Victoriano Aranburu, Jose Maria Sarrionandia, Pedro Salaberri, Ibon Aperribay, Mario Sarrionandia, Alfonso Astaburuaga, Juan Garay, Jose Maria Mendizabal, Javier Mendizabal, Felix Ormaetxea, Jose Antonio Markaide eta Javier Zubizarreta.

Euren lehen meza parrokian ere eman zuten ordena desberdinetako erlijiosoak, aldiz, hauek ziren: Felipe Otaduy (kaputxinoa), Juan Arregi eta Pedro

66 1966ko apirilean Parrokiak Iñarrari eta Arizmendiarieta eskaini omenaldirako argitaratutako dokumentazioetik atera ditut datuak.

*“Iñarra eta
Arizmendiarieta Jauna
ematen, Arrasateko Herriko
Semekotzat hartuak izan
ziren eguneko Meza
Nagusian, 1966ko
apirilaren 24an”*



Beltran (kanonigo erregularak), Salvador Barandiaran eta Armando Garcia (josulagunak), Roke Mendizabal eta Jose Luis Ezkurra (biatoristak), Leandro Abarrategi (frantziskotarra), Miguel Elices (agustinoa) eta Angel Velez de Mendizabal (trinitarioa)

Apaizgai diozesanoak hogeita lau izatera heldu ziren urte haietako arrasatearrak eta ordena erlijiosoetan beste hamarren bat⁶⁷.

Arrasaten lanean hogeita bost urte zeramatzatelako, 1966an Arrasateko Udalak Semekotzat hartu zituen Jose Luis Iñarra, Jose Maria Arizmendiarr eta eta Mariano Briones sendagilea. Urte hartako otsailaren 25ean, Udal pleno batean, Juan Manuel Azkoaga orduko alkateak, herriaren garapenarekin hertsiki erlazionatuta zeuden pertsona horiek Arrasaten mende laurdena zeramatela gogoratu zuen omenaldi bat zor zitzaieela adieraziz, herriko biztanleen alde burutu lan moral eta materialarengatik. Plenora bildutako zinegotziek, aho batez onartu zuten proposamena eta ekitaldi publiko bat antolatzea erabaki zen, omenduei zilarrezko ezteingatik opariren bat eskaintzeko. Saio hartara agertutakoak, alkateaz gain, Emilio Mujika, Julio Gorroñogoitia, Agustin Maidagan eta Antonio Garate alkate ordeak izan ziren, Dionisio Laspiur, Luis Mendarozketa, Rafael Amozarrain, Ignazio Balzategi, Jose Mari Uranga, Jose Arregi, eta Juan Mari Olalde zinegotzi bokalekin.

Omenaldia 1966ko apirilaren 24an eskaini zitzaien. Omenezko ekitaldi hura aitzakia hartuta, Arrasateko parrokiak egitarau berezi bat eratu zuen. Parrokiako Astea deitu zitzaion 1966ko apirilaren 18tik 24 bitartekoari.

“Este homenaje que la familia parroquial os dedica no significa el final de vuestras tareas; es en primer lugar para agradecer esos veinticinco años consagrados al ministerio sacerdotal; es también una ocasión propicia para renaudar el diálogo de sacerdotes y seglares acerca de los problemas que a nuestra Comunidad parroquial se le presentan”

Garbi dago Iñarrari dagokionez, hogetabost baino urte gehiago zirela apaiztu zenetik. Arrasaten, ordea, bai Iñarrak berak baita Arizmendiarrietak ere mende laurden bat zeramatela, eliz pastorelean.

67 Urtarrilaren 6an ospatzen zen Arrasateko Apaizgaiaren Eguna. Eta elizetan diru bilketak egiteaz gain, apaizgaiek eurek emanaldi artistikoak prestatzen zituzten.

“Briones, Iñarra eta Arizmendiarrjeta, Azkoaga alkatearekin, Udal Urrezko Liburuan sinatzen, beraien omenaldi egunean”




Eta asmoaren azalpen horretan, ordurako parrokiako apaizen artean zen tentsioaren islapena irakur daitekeela iruditzen zait. Vaticanoko II. Kontzilioaren ikasgaiak pil-pilean zeuden, apaiz gazteak ikuspuntu desberdinekin zetozen eta horrek guztiak urduritasun puntu baten lehen agerpena adierazten zuen arrasatear parrokiako apaizen artean.

Parrokiak hitzaldi ziklo bat antolatu zuen Gurea zine aretoan, apirilaren 19, 20 eta 22an, hizlariak Ricardo Alberdi, Juan Azpitarte eta Jose Maria Setien izan zirelarik. Igandean, 24, izan zen egunik printzipalena. Goizeko 9etan ekin zitzaion, gazteen meza batekin. Handik ordubete batera, hurrek jarraitu zuten, eta 11etan Meza Nagusia, bi omenduek gidatuta eta azken hogeita bost urteetan apaiztutako arrasatearrek lagun. Jesus San Migelek egin zuen homilia. Eta parrokiako abesbatzak Te Deum kantatu zuen.

"Hiru Arrasateko Semekotzat-en
eskaintzak"

Los 25 años de nuestra llegada
a este incommensurable mundo -
gin, con el más vivo agradecimiento
por todas las facilidades encon-
tradas, y en la promesa de ser
nos a la Villa y sus habitantes en
permanente servicio.


Gracias a todos
firmas prominentes


Como uno de los individuos más grandes
que he conocido a lo largo de mi vida en
que he conocido de esta villa.



MONDRAGOEKO PARROKUA

“Nire haurtzaroko Arrasate” liburuan ondoko esaera hauek idatzi nituen:

*“Behin edo behin galdetu izan diot neure buruari, nola arraio ihardun zeza-
keten elkarren ondoan, hain izaera desberdinetako bi apaiz haiek... Izan ere,
diferenteak oso genituen. Don Jose Luisek – Arrasateko elizaren burua eta
anarko samarra zerbitzuen eraketari zegokionez- badirudi askatasun osoa
eman ziola Don Jose Mariari, honek giza pastoralari ekin ziezaion. Biek erres-
peto handia zioten elkarri eta – arrazoi horrengatik, nonbait- nor bere espa-
rrua landu zuen bestearenera sartu gabe. Eliza-kontuetan, beraz, banaketa
informala eman zen bi apaiz ahaztezin haien artean, inolako menpekotasun
eta baldintza jerarkikorik gabe”*

Garbi dago eta onartua, oro har, egun bateko diferentziarekin Arrasatera heldu ziren bi abade haien jarduna osagarria izan zela herriaren zerbitzuan. Nortasun desberdineko bi gizonen bikain egokitu zituzten euren lanak, kontzientziak agintzen zizkien helburuetara. Iñarrak, Arizmendiarietaren nagusi hurbila eliz kontuetan, askatasun guztia eman zion bere laguntzaileari, eliz ardura ahaztu gabe beste zereginetan ere ari zedin.

“Iñarra eta Arizmendiarieta, horietako bat bakarrik ez zen Arrasaterako onik izango” dio herritar batek, garai hartan apaizgaia zelako biak oso ongi ezagutu zituena. Eta segitzen du: *“Iñarrak bat-batekoaren pastoralara egiten zuen. Berarentzat eguneko aringarria zen garrantzitsuena. Arizmendiarietak etorkizunerako ereiten zuen. Iñarra joaldiko apaiza zen. Arizmendiarieta, berriz, luzerako korrikalaria. Erretorearen hitzaldiak oso beroak ziren, hurbilak, ulerterrazak, nahiz eta ez zitzaion sobera berba egitea gustatzen. Arizmendiarietaren homiliak soziologiako klaseak ziren”*

Bi apaizekin lankidetzaz zuzenean aritu zen Javier Etxebarriaren iritziz:

“Jose Maria Arizmendiarietak bere bizitza egiten zuen: askatasun osoa izaten zuen bere lanean. Arizmendiarieta kapitulu aparte zen. Itzal handia zuen erretorearentzat eta honek Arizmendiarietarentzat. Erretoreak Jose Maria Arizmendiarieta, elizako zereginetatik aparte, bere gauzetan “libre”

ibiltzea nahi izaten zuen, Arizmendiarieta sarritan parrokoaren “kontzientzi kritikoa” bait zen. Elkar maite zuten eta begirune handia zion batak besteari, une berezietan eta garrantzizkoenetan bata bestea defenditzen bazekiten.”

Bi abadeekin harreman sendoak izan zituen Jesus Larrañagak bere “Don Jose Maria Arizmendiarieta y la experiencia cooperativa de Mondragón” liburuan oso deskribapen ederra egin zuen Jose Luis Iñarra eta Jose Maria Arizmediarietaren arteko harremanari buruz. Eta hona aldatzea iruditu zait egokiena, nortasun handiko bi gizon haietaz apur bat gehiago jakin dezagun:

“D. José Luis Iñarra, nuevo párroco, informal, espontáneo y liberal, orienta sus pasos por otros caminos pastorales. D. José María roza temas que, en buena ortodoxia clerical, podían ser estimados de laicos y ajenos a la misión de la Iglesia. La divisoria de lo espiritual es línea siempre sutil y fuente de equívocos. Sin embargo, los tiempos corren a favor de la inserción de los cristianos en la vida terrenal y las incursiones reflexivas de D. José María apelan al terreno socio-económico, que podrían ser materia vetable en manos de un párroco más estirado y dado a esquemas más mecánicos y rituales.

Pero no es así D. José Luis. En cada actitud o comportamiento hay algo de misterioso, de insondable que, de conocerse, explicaría no pocos de los comportamientos. Cada personaje interpreta su papel, sin que conozca las motivaciones todas, pero parece que hay algo de común en todos: el deseo de ser estimado, valorado. En este caso, el protagonismo de uno puede afectar y hasta enturbiar el espacio personal del otro, y es normal que cada uno trate de buscar campo, espacio natural, en aquello que le va.

Estos dos hombres, con visiones diferentes de su cometido, conciertan espacios vitales, quizá sin decírselo tácitamente, delimitan las áreas funcionales y evitan fricciones. Conviven cinco años en una misma casa, en intensa relación, y quizás este paréntesis de intimidad acuña sentimientos de estimación y respeto que les ayuda a superar las dificultades de relación a lo largo de los 35 años de convivencia.

Este dato no es baladí. La libertad de gestión de D. José María pasa por D. José Luis Iñarra y hace posible la evolución de una experiencia que se sale del marco convencional de la acción pastoral.

D. José Luis Iñarra es un poeta que se adentra sin dificultad en los pliegues de los hombres, en sus enfermos, que se debaten entre la vida y la muerte. Anárquico y exuberante, orilla los valores formales y se derrama en la penumbra de lo existencial del otro ser, con exquisita humanidad.

Organización e institución quedan fuera de su perspectiva existencial y las cosas y los logros, por muy espectaculares, apenas taladran su sensibilidad, afinada en percibir los balances finales del ciclo vital. El es receptor de ultimidades. Su vida, despegada e inorgánica, le cuesta un buen susto, sus compañeros de curia se quejan de falta de medios, de buen desorden y el Obispo Font i Andreu está a punto de sustituirle. Alguien intervino en el último momento, quizás D. José María. Cae años más tarde en una nueva crisis, que se apaga con los primeros brotes de choque político. El rubrica un escrito de denuncia del estado de despotismo del régimen franquista y se apagan las voces recriminatorias.

Desprendido, apenas siente el escozor de las cosas, ni le aprietan ambiciones particulares. Su lenguaje, entre poético y esperanzado, se enriquece de ese coloquio ininterrumpido con la muerte, que le ayuda a calibrar con mesura las ilusiones humanas, obsesas por entronar las cosas por encima de los hombres. Palpa la miseria humana y sabe como nadie de la blandura de tantos empeños que se esfuman al menor soplo de cambio o de moda. No le excitan las conquistas y avances, no los desprecia pero tampoco se entusiasma.

El vive a discreta distancia de las andanzas de D. José María y desprecia todo orden y previsión, son sus enemigos viscerales. Desconoce la labor de conjunto y huye instintivamente de planear, como de la peste. Su muerte es todo un poema de encanto y belleza espontánea, que llega hasta coquetear con su muerte.

Escucha el primer aviso cardíaco, ligero cosquilleo que pasa, y confiesa a su coadjutor D. Javier Echevarría el secreto: "Tengo que entregar los pape-

les del matrimonio in extremis de José Añibarro. Tengo prisa” El, tan habituado a diagnosticar muertes, quizá intuya su propio final, protagoniza su sarcástica parodia de sentarse en la delantera del coche⁶⁸ y, pañuelo a ventanilla, pide paso preferente como si de un enfermo grave se tratara. Fue su última epopeya, pues, para más sarcasmo, ni los médicos aprecian nada anormal y retorna a la iglesia y, en los últimos momentos de misa, cae fulminado y sin vida.

Cual personaje mítico, muere el 2 de octubre de 1976, en medio del escenario que quizás jamás hubiera soñado, es el altar de sus ceremonias, el cenáculo de sus meditaciones, el foro de sus charlas, lugar de su definitiva entrega al pueblo que tanto amó”

Horixe da Larrañagaren mugaketa, ziur aski Arizmendiarrietaren gerizpetik hark ezagutu zuen gizonaren gaineko ezagutzatik burutua.

HAIN HUMANO... ALDREBESEZKO HERRIAN!

Ez da zaila egitea Jose Luis Iñarraren gain Arrasaten geratu den sentimendu eta iritzien laburpena. Edozeinengana jotzen dugularik, erretore zenak bere eliztarrengan utzitako gogorapenez galdetzen denean, antzerako berbak jasotzen dira. Hiztegiko hitzak banaka batzuetan kontzentratzen dira arrasatearrok Iñarraren gain duten irudia mugatzeko orduan. Horretaz jabetuta, hiritarron sentimendua modu antzeratsuaz bereganatzen zuela esan liteke, zentzu zorrotzean.

Berdin da, adina, sexu edo gizarte maila. Arrasatearrok, oro har, era igotxoaz definitzen dute 1941eta 1976 bitartean euren erretore izandako gizona. Gizona idatzi dut, izan ere horixe zen Jose Luis Iñarra bere ihardunean, ezer baino lehen. Pairatzen ari zen pertsonarekiko hurbiltasuna zen Iñarraren nolakotasunetako bat. Ez zen harritzekoa, ohean zetzan gaixoarengana heletzen ikustea... izozki bat eskuan zeramala, gizagaixo haren gorputzari plazer puntu bat emateko, sarritan azkena. Beste batzuetan bizarra egiten zion gai-

68 Gero ikusiko den bezala, sudur zapia ez zuen ospitalerantz zihoanean atera, handik irienda gero baizik eta etxerako bidean.

xoari edota haizemalearekin gozarazten zuen, sukar putz batean hiltzear zegoen emakume adindua.

Jose Luis Iñarrari konfidantza zerion, goitik behera. Pertsona nagusiekiko eta batez ere apaiziekiko garai hartan ohi zen begirunezko beldurra ez zen Iñarrarekiko antzematen. Naturala zen, jatorra. Eta abegikorra guztientzat. Ume zalea zen, goitik behera. Gai zen edozein etxetan haur koxkorra bere kantuz eta ipuinez loak harrarazten jartzeko. Loben seme-alabekin hondartzan denbora tarte luzeak eman zitzakeen jolasten.

“Aita bat bezala zen apaizgaiantzat” dio, 1945 inguruan Apaizgaitegian ikasten ari zen arrasatear batek. *“Langile porrokatua zen, edozein ordutan edozeinen zerbitzurako prest zegoena”* baieztatzen du bere beste lagun batek, erretorearen etengabeko joan etorriez ongi dakiena. *“Batez ere herri lanari atxiki zitzaion, kontuan izan gabe lagun hurkoaren nortasuna”* azaltzen du, gau askotako esna-aldian Iñarrarekin kafe bat konpartitu zuen arrasatearrak. *“Poltxikoan zuloak zituen”* esaten du, haren eskuzabaltasuna deskribitu nahi duenak. *“Humanitate izugarrizkoa zen”* diosku, bere senarra gazte-gazterik galdu zuen alarguntsa batek, erretorearengandik jaso zuen laguntza azpimarratu nahian. Ondokoa Jose Luis Iñarrarekin eguneroko harremana edukitzera iritsi zen herritarraren iritzia da: *“Hain humanoa zen... aldrebeseko herrian!”*

Gizon aszeta samarra izan zen Iñarra. Jan gutxi⁶⁹ – baina ez zion ezeri muzin egiten- edan gutxiago. Kafea zen, neurritz hartuta, lan erritmo biziari segitzea ahalbidetzen zion suspertzailea. Urte luzez Urionabarrenetxearen gozotegian gosaldutako zuen, goizeko meza eman ondoren. Hura hil ostean, Rosa Aranburuk – Victor Arriaranen emaztea- prestatzen zion almorzua. Gorputzak eskatzen bazion, ordea, ez zen kokiltzen eta lagun baten etxera igo zitekeen *“Urlia, egingo al didazu tortilatxo bat?”* eskatzeko. Zigarroak erretzen zituen. Eta ahal zuenean “bixaua”ri –bere egunerokoan idazten zuen moduan– eskaintzen zion tartetxo bat bazkal ostean. Baina lo gurak etxetik kanpo harrapatzen bazuen, ez zen lotsatzen tokiko nagusiari lo kuluxka arin

69 Domu Santu egunean barakuiluak jatea atsegin zuen. “Ez esan, gero, Pakitari” erregutzen bide zuen. Arbigarak ere zituen laket.

bat egiteko ohea eskatzeagatik. Txantxa zalea zen, oso, izan behar zenean. Eta serioa, oso, berak bakarrik zekien moduan.

Iñarraren alde jator eta herrikoia darakusan ondoko bere ateraldi hau gogoratu nahi dut: Dorletako Ama Birjina txirrindularien zaindari gisa 1958ko urriaren 26an aldarrikatu zuten. Hori dela eta, Leintz Bailarako artzapeza zelako Iñarrarengana jo zuten antolatzaileek eliz funtzioa gertutzeko. Norbaitek Font i Andreu Gotzaina ere deitu nahi zutela esan zion artzapezari. *“¡No jodas!”* garbi batekin ihardetsi zion Iñarrak.

Iñarraren herritartasuna modu askotan erakusten zuen. Adibide gisa jar daiteke ondoko hau: Konpostelako Santiagora joan zen arrasatear talde batekin 1965eko abuztuan. Hilaren 20an honela idatzi zuen bere eskuko kua-dernoan, Salamankan zeudela:

“9’30etan meza Residencia Vedrunan. Aurrez deitu det urrutizkiñez, Milagros Garmendia an zegoan galdezka. Baietz erantzun. Ta danok an izan gera. Gero meza euskera garbi garbian esan degu. Mojatxoa zorutzen, ez baitzaan euskeraz mezarik ematen gaur arte ikusi. Tertuli aldia ta biotzean pena... Katedral zarrea genbiltzala Robustiano Zarraoa, Fermin, Nikolas ta Sergio topo. Bazkal ostean gurera etorri dira, ta azken putz gabiltzanak akeita ta txola ta errekinaz konbiratu. Bejondaizula Robus!”

Ezaguna izan zen herri osoan bere motorrean egiten zituen joan etorrien-gatik. Behin berebil bat erosi nahi izan zuen, Justino Uribesalgo apaizkidearekin batera, Seat-600 bat, gaixoenganako bidaiak erraztuko zizkiolakoan. Baina apaizkideetako batek ideia kendu zion burutik, gehiegizko luxua izango zelakoan. Beste behin, hirurogeigarren hamarkadaren lehen urteetan Arrasaten eraikitzen ari ziren etxe berrietarako aberatsen eskabideek espekulaziorako itxura zutela adierazi zuen publikoki. Hitz haiek berarekin ere joan zitezke-ela pentsatu bide zuen herrikide batek aurpegiratu zion: *“Diotenez, apaizak gaizki bizi dira... Zu oso ongi bizi zara, ordea”*

Baina, jakina, apaiza zelako bidali zuten Arrasatera eta ofizioan aritu zen gau eta egun. Ez zen ulertuko, bestela, haren jokaera. Horrela ere definitu digute ezagutu zutenek. *“Gorputz osoko abadea zen eta denak kristau sentimendu berdintsuarekin atenditu zituen”* aitortzen digu, bere lehen mezan Iña-

rra laguntzaile izan zuen arrasatear apaiz batek. *“Lan liturjikoan nabarmendu zen baina batez ere gaixoen apostolatuan. Bere emaitza bikaina izan zen alde horretatik”* dio, adinez urtetan etxetik atera gabe gurasoak izan zituen hiritar batek. Seigarren hamarkadako hasieran herriko fraideen lkastetxean zuzendari izandakoaren ustez *“Ongia egin zuen, gauza guztien gainetik. Gizon eta apaiz bezala. Giza ikuspegi batetik, mende osoan Arrasatetik igaro den pertsonaiarik inportanteena izan zen Iñarra. Etsipen eta oinaze sakoneko herri hartan ukendu gisa aritu zen erretorea, norekin ari zen galdetu gabe. Apaiz bezala, aparta genuen. Joria zen komunikatzeko eran. Maitekorra, bere eskaintza zabalean”*

Komunikatzeko modu horien artean, ezagutu genuen guztion baitan geratu zen – adibidez- gai zela elizako aldarean buelta erdi emateko eta izkinaren batean txatxaran ari zitezkeen haurrei zuzenduta *“Urlia, sandia eta berendia... kalera!!”* ozenez, hiruak elizatik ateratzeko. Metodo zigortzaile hori ere erabili zuen behin baino gehiagotan adineko nardatzaileak kanporatzeko. Edota, zer esan daiteke, eskuan hiruzpalau ostia eusten zituelarik Jaun hartzea emateko modu berezi hartaz? Eta bere motorrean zihoala, edozeini agur egiteko erabili ohi zuen keinu nabarmen haietaz?

Bere laguntza izpiritualarekin, elizarekin erlaziorik ez zutenengana ere helitzen zen Iñarra. Eta esan behar da ez ziotela sekula inongo etxeko atea itxi. Erretorearen ustez, hiltzear zegoen pertsonarengana maitasunezko keinua eramatea gizabidearen oinarrizko erakuspena zen, kristau ala ateo ote zen begiratu gabe. Iñarrari buruz galdezka elkarrizketatu ditudan lagun guztiek kontatu didate Jesus Balanzategi “Clavel” sozialistaren kasua, oso entzute-tsua egin baitzen herrian. Tenplua ezertarako zapaltzen ez diren horietakoa zen arren, gaixotu zenean lagunak zirelako erretorearen bisita jaso zuen eguner⁷⁰. Honetaz eta hartaz mintzatzen ziren, lasai asko, bat ere aurreiritzirik gabe. Clavel-ek, erretoreak ahalbidetzen zion giro lasaigarri hartan eroso, bere ondoan azken unera arte egotea eskatu zion Iñarrari.

70 “Clavel” eta Luis “Luxiano” Egidazu etxe berean bizi ziren, Erdiko Kaleko Urizar tabernaren gainean; biak min biakiak jota zeuden eta biak bisitatzen zituen Iñarrak. Egunen batean erretorea atzeratu egiten bazen bisitan, “Clavel”-ek norbait bidaltzen zuen “Luxiano”-ren etxera, erretorearen atzerapenez galdezka.

AC-ren urrezko eztaiak 54-03-19. Zuzendaritza eta hizlaria Rodriguez de Yurre jauna.



“Ekintza Katolikoaren Zentroko Zuzendaritza Batzordea, Rodriguez de Yurre hizlariarekin, 1954ko martxoaren 19an, elkartearen urrezko eztaietan”

Babes eta adorezko hitzen faltan herriko ospitalean bizi ziren behartsuez era bereziz arduratzen zen. *“Hauetako bat hiltzen denean Haendel-en aieluya jotzen dute zeruan. Eta Haendelek bezala, lagun horren aurrean nagoenean nik ere ikusten dut paradisu eder bat eta Jaungoikoa bere tronuan eserita, aingeruek inguratuta”*

Irekia, apala bere diskurtsuan, beroa harremanetan. Horixe zen, gehienen iritzi, Jose Luis Iñarra. Batengana eta bestearengana ailegatzen zen, lagun hurkoaren kolore edota jatorriari erreparatu gabe. Esan dudak bezala, kristau betebeharreran nabarmentzen ez zirenak ere atenditzen zituen zintzo, ilusio

berdinarekin bisitatzen zituelarik. Erretorearen heriotzarekin herriak lider bat galdu zuen. Alde horretatik esan behar da, Arrasateko parrokia, askoren ustez, bi polorekin aritu zela hogeita hamabost urtetan zehar: Iñarra eta Arizmediarrieta. Auskalo zer gertatuko zen horietako bakar batekin!. Gauzak ez ziren berdinak izango. Horrek adierazten duen guztiarekin.

Nola uztartu ahal izan zuen Iñarrak bere herri sentimendua, elizaren ministro izateak inposatzen zion zorrotasunarekin? Hitz batekin muga daiteke hori: obedientziarekin. Esanekotasuna zen Iñarraren nolakotasunik nabariena eta beste ezertan baino elizaren postulatuaren barruan aritu zela beti azpimarratu behar da. Ez zitzaion samurra gertatu, noski. Eta egundo pairatu zuen, herriaren ibilbidearen logika elizaren jokaeratik gero eta urrunago ikusten baitzuen. Iñarra abade izateko jaio zela diote batzuek. Eta beste hainbaten iritziz, Iñarra ez zen inoiz Gotzain izango, horretarako bokaziorik ez zuela garbi asko zegoen eta. Oinarrizko ekintza pastorala maite zuen, herriarekin kontaktu zuzenean egotera behartzen zuena. Gainerakoak ez zuen berarentzat garrantzirik.

Carrero Blanco 1973ko abenduaren 20an hil ondoren eragileen artean arrasatearren bat – adiskidea, gainera- egon zitekeela jakin zuenean lur jota geratu zen. ETA-k 1974ko abenduaren 17an Luis Santos Hernandez « Txino » eta Argimiro Garcia herriko kuarteleko guardia zibilak hil zituenean eta Iñaki Etxabe 1975ko urriaren 5ean ustez guardia zibilek erail zutenean, Arrasateko erretorea depresioak gainezkatu zuen.

Zer esanik ez, bere bizitzaren azken hamabost urteotan – bortitzak, oso, euskal gatazkaren zurrunbiloan- denetariko mehatxuak jaso zituen Iñarrak. Eta bere bizitza arriskuan egon zitekeela pentsatu zuen maiz. Baina, agi denez, mingostasun haren kaliza ez zuen inorekin konpartitu nahi izan. Eta barru-barruan eraman zuen sufrimendua.

Iñarraren azken urteak ez ziren samurrak izan, herriko eliz sintoniari – oro har- dagokionez. Leintz eta Oñatiko artzapezgoa galdu zuen 1974ko urtarrilaren 31n – apaizek Oñatiko erretore Sabino Zuazabeitia nahiago zuten kargurako- eta samindura puntu batek jo zuen oiartzuarra. Dena den, esan behar da artzapez berriarekin ez zirela gauzak hobetu Arrasateko eliz Mankomunitatean, izan ere – artzapez gisa herriko komunitatearen koordinazioa zegokion- herriko pastoralean modu arinean hartu zuen esku.

“Arrasateko Makomunitatea amets eder bat izan zen. Baina ez geunden preparaturik. Gauza bat da gogoia eta beste bat gogoia errealitate bihurtzea. Arrasate handitzen zihoan auzoetan - San Andres, Makatzena, Musakola, Santa Teresa, Erguin, eta abar- eta horietan parrokiak berriak eraiki ordez, beste lekuetan bezala, “Kultu eta Ebangelizazioko Zentruak” moduan eraiki ziren; ez ziren parrokiak, bere autonomiarekin, “sukurtsalak” baizik. San Juan Bataiatzailea Parrokia legez zatitu gabe eta parroko bakar batekin eraiki zen arrasatear eliz azpiegitura. Asmo ona, baina ez geunden horretarako prestatuta. Ez gu, ezta fraideak ere. Denok geure nortasun eta eskubideak gorde nahi genituen. Arautegi eder bat egin genuen, baina dena bertan bera gelditu zen⁷¹”

Iñarraren azken oporrak – 1976ko abuztuan Torreveijan Arrasateko sendiarekin emanda- bere gainean nabarmentzen zuen presiorako aringarria gertatu ziren. Baina bihotzak etxera itzuli behar zuela diktatzen zion, distantzian arrotz sentitu izan balitz bezala.

Iñarrari bere kudeaketa moduan anarkia eta, aldi berean, dena kontrolatzeko apeta leporatzen bazitzaion, Zuazabeitiak ere zail izan zuen herriko zentro – eliza-desberdinetako apaizekin konektatzeko. Urte gaitzak ziren, dudarik gabe, frankismoaren azkenetakoak, eta gizartearen sektore guztietan – zibilak, erlijiosoak, kulturalak...- iraganarekin eteteko nahia nabarmena zen. Noski, arrasatear giza kolektibitatean sentimendu berdina burbuileztatzen zen, indar handiz.

Jose Luis Iñarra eliz kolektibitatearen egoera hartaz kezkatuta eta gazteei bidea libre uzteko badirudi asmoa zuela 70 urterekin erretiroa eskatzea.

“Ez dut uste Arrasatetik irteteko asmo serio inoiz izan zuenik. Gogoratzen naiz, 60 hamarkadan, horrelako eztabaida eta kritika txiki batzuk izan zituenean nola esan zidan: “Jabier, fango gaitxuk bixok Aramaixora...?” Txantxa hutsa. 70 urte betetzerakoan, gauzak gero eta gogoragoak zetozen, batez ere, berarentzako: dinamika berrien premia zetorren...helburu eta ekintza berriak eratzea eta ez zitzaion horrelako lana ondo jausten. Giro hartan, bes-

71 Javier Etxebarriaren adierazpenak

teak bezala bera ere jubilatzeke gogoa izatea gauza normaltzat hartu behar da eta bere "gauzak" (euskara, adibidez) landu ahal izateko kargua utzi nahi izatea logikoa zen⁷²

Iñarra hil eta lau egunetara, Eliz Mankomunitateko Talde Koordinatzailea bildu egin zen, Sabino Zuazabeitia buru zutela, eta bertan erretore zenaren heriotza zela eta Arrasateko klero eta herriak izandako jarrera aztertu zen. Iñarraren desagerpenak inpaktatu egin zuela zioten, haren herritartasuna hileta elizkizunetan nabarmendu zela baieztatuz. *"Gazteek ere – kopuru handi batean- euren sentsibiltatea erakutsi dute"* irakur daiteke bilera hartako aktan. Eta herritar askoren iritziz hildako erretorea ordezkatzeari ez zela helburu samurra izango ere jaso zen idazkian.

Iñarraren ondorengoa zein izango zen erabaki ahal izateko Jazinto Argaya Gotzainak eta Jose Maria Setien Gotzain laguntzaileak informazio ikerketa bat irekiarazi zuten, 1976ko amaieran, eta bertara oso iritzi argigarriak bildu ziren, hirurogeita hamargarrenetako hamarkadaren erdialdeko arrasatear eliz giroari dagokionez. Txostenean esaten zenez, herriko zentroetako ekintza, kultukoa ezik, oso apala zen, laikoen partaidetza hutsaren hurrena zela azpimarratuz. Eta San Juan Bataiatzailea parrokiak gainerako elizen lana moteldu egin zuela zioen idazkiak. *"Erretorea itzal luzeegia zen, nonbait"* irakur daiteke. Eta apaizek hurrengo erretorea Arrasateko apaizen bat izatea nahiago zutela baieztatzen zen txostenean.

Jose Maria Setienek berak zuzendu zuen informazio ikerketaren taldea, eta gaur bitxia dela irudi badakiguke ere, txosten hartan Arrasaten apaiz gehiegi zirela esaten dela dirudi, euren banaketa desegokia zela baieztatuz. *"Proporzionatua al da Hezkuntzan ari diren apaizen kopurua?"* galdetzen zuen talde koordinatzaileak.

Gotzainek agindutako txostenaren ostean, Arrasateko eliz kabildoa hone-la geratu zen 1977ko otsailean: erretore berria Jesus Zubillaga; laguntzailea, Javier Etxebarria; organu jolea Francisco Arrizabalaga; kolaboratzaileak, Pedro Aranegi eta Anton Markaide (Ikastolako Irakasleak); Uribarriko erreto-

72 Javier Etxebarriaren adierazpenak

rea, Ibon Aperribay; San Andreseko Zentroko arduraduna, Juan Bautista San Miguel; kolaboratzaileak, Pedro Salaberri (Kontzezinoko komentua eta Eskola Politeknikoa) eta Jose Maria Mendizabal (Eskola Politeknikoa); Musakolako Zentroko arduraduna, Pablo Barrena; kolaboratzailea, Pablo Letona (Bedoña eta Eskola Politeknikoa); Santa Marinako Zentroko arduraduna, Jesus Elorza frantziskotarra; San Frantziskoko Zentroko arduraduna, Ildfonso Alustiza; laguntzailea, Francisco Beristain.

Harrez geroztik, beste aldaketa ugari ere eman dira Arrasateko apaizen kopuru eta konposaketari dagokionez. Eta San Juan Bataiatzailea parrokiatik titular gehiago igaro dira azken urteotan. Baina guztiontzako begirunetik esan daiteke, Iñarra dela “Mondragoeko parrokoa”, hil zenetik hiru hamarkada eman ondoren ere. Irudi hori bizirik dago, hura ezagutu zutenen baitan, behintzat.

KULTURA

Frankismoaren garaian Manuel Lekuonaren bitartez Kardaberaz Bazkune-ko lehengo kide batzuekin harremanetan jarraitzen zuen Iñarrak eta noizean behin ezkutuko dokumentuak heltzen zitzaizkion erretoreari. Bibiano Larramendi mediku tolosarrak ere zerbait laguntzen zuen ahaleginean, Meliton Manzanasko polizia inspektoreak Gipuzkoan izua hedatu zuen garai ilun haietan. “Imperativos de mi conciencia”-ren banaketaz arduratu zen Bibiano probintzian, eta salaketa bat medio Manzanasek atxilotu egin zuen. Torturatu ondoren Ondarretako kartzelara sartu zuten. Eta epaira azaldu orduko, Mateo Mujika Gotzaina Zarautzen bere etxean bizi zen, poliziak ongi zainduta baze- goen ere. Epaian erruduntzat hartu zutenean ospetsua izan zen Bibianoren lagunen arteko erreakzioa: *“Ni kartzelara naramate, dokumentua zabaltzea- gatik... eta egilea Zarautzen aske!”⁷³*

Bazkunak 1970ean berrekin zion lanari, Manuel Lekuonaren buruzagitza- pean, Donato Arrinda, Anastasio Albizu, Domingo Irigoyen, Pedro Berrondo eta beste batzuekin. Iñarrak ere lotura zuen Bazkunarekin eta 1976an bere heriotza gertatu zenean erretorea Arrasateko historian galdutako abizenen gaineko ikerketa lan bat burutzen ari zen Bazkunarekin argitaratzeko. Juan Jose Garmendia tolosarra - Kardaberaz Bazkune-koa bera ere- arduratu zen Jose Luis Iñarraren lan haren argitarapenez, baina amaitu gabe utzi zuelako Juan Mari Lekuonak eman behar izan zion bukaera eta hitzaurrea jarri, in- pri- matu baino lehen.

“Lekuona´tar Manuel jaunaren omenezko idazki bilduma” II (1977) Horre- la zeritzan, Iñarrren lana bildu zuen liburua. Kardaberaz Bazkunak argitaratu- ta, hiru tomotan, Manuel Lekuonaren jarraitzaileek eskainitako ekarpen ede- rra ian zen. Besteak beste, Jesus Mari Leizaola, lokin Zaitegi, Augustin Zubi- karai, Juan Thalamas Labandibar, Madre Arrazaola eta Manuel Estomba idazle eta ikerleen izenak ageri dira, “Iñarra´tar Jose Luis”- aren ondoan. Iña- rraren ekarpena *“Arrasateko apellido-abizen zaarrak”* izan zen. Pazientzia

73 Mateo Mujikaren laguntzailea Zarautzen Benito Nafarrate abade aramaioarra izan zen, 1961etik Gotzaina 1968an hil arte.

handiz eta apaizgai batzuen laguntzaz, erretoreak elizako bataio eta heriotzako agiriak aztertuz pilatzen joan ahal izan zen fitxategiaz baliatuta burutu ahal izan zen lan hura.

“D. Juan Antonio de Beistegui y Arrospide (*Un insigne bienhechor de la Parroquia de Mondragón*)” tituluarekin 1958ko ekainean artikulu interesgarri bat idatzi zuen, eliza nagusiari 1855ean zilarrezko kustodia, kalizak eta kopoia oparitu zizkion herriko seme horren oroitzapena eginez. Testua H.I.J.K batekin sinatu zuen: Horkaizagirre. Iñarra. Joseba. Koldobika⁷⁴.

Mondragonek bere zazpigarren mendeurrena bete zuen 1960 urtean, lehenago Arrasate deitzen zen tokian Alfontxo X errege gaztelarrak hiri berri bat sortu zuenetik. Efemeridea behar den bezala ospatu ahal izateko, batzorde bat sortu zen herriko zenbait pertsonarekin. Honoko hauek osatu zuten talde hura: Andres Bidaburu alkatea, Jose Luis Iñarra erretorea, Jose Ramon Mendizabal alkate ordea, Valentin Carrillo eta Jose Mari Uranga zinegotziak, Jose Letona eta David Arzamendi herritarren izenean eta idazkari lanetan Maria Urbana Juldain.

Egitarau intentsu bat osatu zen, maiatzean hasi eta urte hartako abenduan amaitu zena. Besteak beste, erretoreari eskatu zioten pregoia idaztea eta 1960ko maiatzaren 14an, Sortzezko Agiria izenpetu zen eguneko bezperan, udal bandoak ohi ziren herriko tokietan zaldi baten gainean zihoan pregoilari batek irakurri zuen. Amaitzeko, Udaletxeko balkoitik jakinarazi zuen mezulariak arrasatearrentzako adierazpen hura. Pregoilaria Emilio Lagunilla gaztea izan zen. Jai hura zela eta, herriko umeek Arrasateko historiarekin zerikusirik zuten bertsoak errezitatu zituzten maiatzaren 15ean. Jose Luis Iñarra izan zen parte hartzaileen kalitatea epaitu zuen batzordearen burua. Mari Cruz Uribarren, Maria Ester Azkarate, Ciriaco Sandoval, Jesus Mari Gonzalez, Elena Arrieta, Eugenio Garcia eta Jesus Garay izan ziren erretorearen eskuetatik saria jaso zutenak.

Hil hartan bertan, maiatzaren 22an, Iñarraren bitartekotasunaz Manuel Lekuonak hitzaldi bat eman zuen Ideal Cineman, “Mondragoe sutan” titulu-

74 Testuaren kopia bat daukat, baina ez du zehazten zein aldizkari den.



pean. Ekainaren 5ean, berriz, Jose Miguel Barandiaranek eskaini zuen beste hitzaldi bat, Ideal Cineman ere, “Tras el hombre primitivo en la región de Mondragón” gaiaren inguruan.

Ospakizun hartako punturik sonatuenetakoa Jesus Guridiren “Mirentxu” zartzuelaren emankizuna izan zen, ekainaren 11, 12 eta 13an. Egun haietan Iñarra erretoreak pergamino bat oparitu zion Guridiri, haren zuhaitz genealogikoarekin, izan ere musika konposagilearen aitona Arrasateko Munarreko baserri batean jaio zen.

“Iñarrak arrasatear mugimendu kulturean ere hartu zuen parte. Irudian Jesus Guridirekin, 1960ko ekainean”

Aipatua geratu da Iñarraren esku hartzea VII Mendeurreneko poesia txapelketan, epaile buru gisa. Eta aurrera baino lehen azpimarratu behar da berriro bertsoetarako erretorearen zaletasuna. Nolako enborra halako ezpala! Ondoko hauek berak konposatutako sorta luze baten lagina dira, hain zuzen Libe eta Eusebio bi loba txikik Telesforo euren aitonari abesteko, laugarren hamarkadaren amaieran:

*Ai, Telesforo, gure aitona
urtetan zoaz aurrera,
bruñaa aundia ekarri oi du
urak mendi goitikan bera.
Igarri gabe joan zaizkizu
urte sailtxoak beste etxera
al egin zazu gure artean
beste hainbeste igarotzera.*

*Usariyua ala oi da-ta:
eraman zazu urte askuan,
Jainko pakean ta osasunez
eusko txapela zuk kaskuan.
Seme alabaz inguraturik
billoba danok zure albulan,
zartzaro oberik ezin arkitu
lezake gizonak munduan.*

*Iturriotzen biotz txokoan
aukera zenduten kabiya,
aren izena Torre Goia da,
ospe aundiko jauregiya.
Antxe goxoki azi dezute
amar seme alaben aziya,
gure Jainkoak bedeinka beza
orren jator den sendiya.*

Delfina Velez de Mendizabal arrasatearra Mesedetako mojen maistra egin zuten egunean – 1945ko irailaren 20an- honako bertso hauek eskaini zizkion Iñarrak:

*Gorderik, ixil-ixil
ZUMARRA ondoan,
Delfinatxo gurea
antxe zegoan,
Yainkoakin izketan
Komentu txokoan,
iñork igarri gabe
azitzen zijoan:
sugarra kolkoan,
irriparra aoan,
ariña pausoan,
ortaraxe ziñan zu
Lekaimetara joan.*

*Olo kolkal txitoak
alboan ugari.
Moja gaiak ezitzen
ekin lanari.
Ba dezu nun eragin
buru ta eskuari,
eten gabe bearko
dezu, noski, ari,
yardesten denari:
Maitasuna AITARI
Naimena AMARI
Borroka etsaiari.
Hostian daukazute
Jesusa janari.*

Ondoko beste bertso hauek, berriz, Asteasun jaio eta Arrasateko udal langile izan zen Juan Bautista Usandizagari jarri zizkion 1953an. Juan Bautista oso gizon indartsua zen, eta parrokiako koruan abesten zuen.

*Erniyoren altzuan
- ollo kolka baitlitza-
goxoki arkitzen da
Asteasu errixka.
Antxe azi zan mardul,
emen dago Batixta,
antxe ikasi ere
Mondragoiko pixta,
Iparragirre aña
kantuan artixta.*

*Zortzi bat urte dira,
Zer zaratak koruan!
Perosiren Kitolis
kantatu zenduan.
Etzait aztuko egundo,
ain daukat goguan,
elizako orma zarrak
dar-dar egin zuan,
kantolari zu ziñan
Karuso'n moduan.*

*Astean etorri da
organu berria,
nola demontre dagon
koruan jarriya?
Bagendun iyotzeko
indarren premiya,
Batixtak konta beza
orduko komeriya.
Sanson ta eltzeondok
zure inbiriya!*

*Olako mutil ta...
Nola baña mutil zar?
Sasoya dan artean
egin oi da zirt ta zart.
Hainbeste neskatx liraiñ
dabiltz ortikan zear.
Tratuan asi zaite,
tratuan eta abar,
Udalan izan ezik
kalean topa bear.*

Ondoko beste bertso hauek ere, Luis “Luxiano” Egidazurentzat prestatu zituen Iñarrak 1960ko ekainaren 21ean, haren urtebetetze egunean kantatzeko.

*Irurogeita hamaika urte, ain zuzen gaur goizean
mutiko jaio berria, seaska biguñean,
“Arrue” izena duen baserri politean
egun artan bazan poza etxeko sukaldean.*

*Mutiko mardula zan, mardula ta biziya
eskolan eta dotriñan buruz argi-argiya.
Bazekien birigarruek non zeukaten kabiya
amurrain arrantzan bera danen nagusiya.*

*Ez da samurra aldatzea bakoitzak dakarren griña
Nork konta kuartel zarrean pasatako gose miña?
An emen, bazter guztitan, ala ere beti piña,
ez dago ikusi baño, salan dagon argazkiña.*

*Txoritxoak uda berriz, egin oi du kabia
ogeitaka urte izan, gizonen udaberria.
Amparo lagun arturik, egin zenduan sendia,
baduzu alaba eta, baita ere semia.*

*Biotzez agur egiñez, amaitzen det bertsoa
lenengoz ematen dizut zorion bero-beroa.
Jaunari eskeñi diot gaurko nere errezoa
osasuna eman bekizun, osasun oso-osoa.*

Bertsoak euren dimentsioan ulertzeko, esan behar da “Luxiano” ohean zetzala, gaixorik, eta lñarrak – gaixoa egunero bisitatzeko zuena- ilusioa eta maitasuna hurbildu nahi izan zizkion. Urtebetetze ospakizunerako Obduli sukaldari ospetsuari bazkari berezia enkargatu behar zutela adierazi zioten “Luxiano”-ren etxekoek bezperan lñarrari, beraiekin bazkalteko erregutuz. Erretoreak baiezkoa eman zien eta gauzez bertsoak gertu zituen. Baina “Luxiano” egun hartan bertan hil zen, 71 urte bete zituen goizean, hain justu.

Ez zen izan behin bakarrik eliz ospakizunetata bildutakoak erretoreak bertsoz agurtu zituela. Ikusi dugun bezala, alde zaureratik maitasunez prestatutako bertsoak oparitu zizkien sarritan, efemeride bereziren bat ospatzen ari ziren adiskideei. Hauexek izan ziren, 1976ko martxoan Bedoña auzoko Sologaisto baserriko Antonio eta Vitoriri eskainitakoak, bikotearen “ezkontz-uztarpe goxoenean 60 urte betetzean”

*Udaberriko eguzki epela
indartzen hasten danean...
zelai ertzeko elorri ta lar
lozez apaintzen diranean...
Sologaistoko Antoniori
- orlakorik uste gabean-
indar berri bat loratu zaio
biotz muñaren muiñean.*

*Irurogeitan pasiak dira,
- urte mordoxka benetan-
mutil gaztea urduri zegon,
dardarka, maite miñetan.
Bedoñatikan Arrasateruntz
begiak zabal, ametsetan...
Ta irudimenez Vitori ikusi
“Atxa” baserriko ateetan.*

*Antoñatikan Untillaraño
- ostroa aizeak bezela-
barreiatu zan bi gazte aiek
berbetan asiak zirela.
Beste bi mutikoren tartean
txinga berri bat sartu dela.
Naspil galanta sortu zan-eta,
ez zen paketu berela.*

*Iru aietan bat bereizteko
naiko lan Vitorirentzat
Untzillatarra mayorazgua,
Joxe Antoña be zan norbait.
Zelai ta baso ta etxe-inguruz,
Sologaisto geiago nunbait...
Miñ eman arren beste bieri,
Antonio artu zun beretzat.*

*Maitasunezko ezkontz bidean
famili ederraren jabe,
ez dira zortzi mukillak asi
neke ta buruausterik gabe.
Orain zortzirak – bata zeruan-
ondo enpleatuta daude.
Sologaistoko zugaitz sendoak
adar mardulik ekar dabe.*

*Benetan ondo bete dezute
elkarrereri emandako itza,
urtetan aurrera joanagaitik
oraindik sasoiko dabilta.
Zeruko Jaun Ark luza dezala
gure arteko zeuen egoitza,
ta gero eman zeru goietan
saritan betiko bizitza.*

Baliteke horiexek izatea Iñarrak idatzitako azken bertsoak.

Bertsoetarako zaletasuna dela eta, egoki zeritzon guztietan eta modu apal zein goi helbururik gabe bazen ere, bere trebezia erakusten zuen lagun-en artean. Horren adibidea da, 1971ko urriaren 12an Udalaitzeko tontorrean gurutzeak bedeinkatu zirenekoa. Angel “Erregetxo” Balzategi eta “Jan da lo” taldearen sortzailearen eta hildako mendigoizaleen oroimenez burutu zere-monian, Iñarrak meza emateaz gain bertsoak ere kantatu zituen:

*Mendizaleen kirola au da
mistika baten eredu:
Begiz ikusi, muñez ausnartu
ludiko ainbat edergailu.
Izar ta eguzki, mendi ta baso
izotz, elur ta iristu...
Goiko Jaunaren altasunaren
erakusgarri ditugu.*

*Gaurko Mez ontan ezin aztu nik
“Erregetxo”-kin batean,
Luis Zabaleta, Pako Azpiazu
illak mendi kirolean.
Bata Intxortan, bestea, berriz
joan zitzaigun Gorbean
Orain hiruok lagun ditugu
Jaungoikoaren aurrean.*

*Iru lagunen mendi kirola
iru lagunen erio-otza,
oiekin nasi artu zuk, Jauna
mendizaleen otoitza.
Gurutz aurrean egiten degu
iru lagunen oroitza
aien antzera, mistika baten
murgil gaitezen bakoitza.*

*Ona hemen Jauna, gure eskeintza
ogi ta ardo bizigarri,
Zuk gau batean egin zenduen
oparien oroigarri.
Gure eskeintz au biurtuko da
-zer aldakuntz arrigarri-
ogia GORPUTZ, ardoa ODOL
gure gogo asegarri.*

Jose Luis Iñarrak hildako hiru mendigoizaleak ezagutzen zituen, eta hiruekin landu zuen adiskidantza. Luis Zabaleta eta Pako Azpiazu mendiko istripuz hil ziren eta Angel Balzategi minbiziz, bere omenezko gurutzea jaso baino hilabete erdi bat lehenago. Iñarrak lagundu zion gaixoaldian eta bere heriotzan honako bertso hauek eskaini zizkion Udalaitzera jai eta igande guztietan igotzen zen lagunari. Gurutzean inprimatu ziren bertsoak:

*Jai ta igandero
-ez jan ta ez lo-
tontorrik tontor
Udalatx puntaraño-
Orain gorago
Zeru gaillurreraño
igorik dago
Gure "Erregetxo"*

Urte hartaz geroztik ere Jose Luis Iñarra, arnas estuka eta neka-neka eginda iritsi arren, Udalaitzeko tontorrera igotzen zen ospakizunetara. Eta hildakoenganako oroitzapena eta otoitzaz gain bertsolaritzarako bere artea ere eskaintzen zuen hara bildutakoen aurrean. "Udalaitz Zaleak" taldearekiko Iñarraren atxikimendua erabatekoa izan zen. Areago, taldearen himnoa izatera heldu zen abestia Iñarrari zor zaio, egilea bera ez bada ere. Manuel Lekuonak idatzi zuen bertsoa, Arrasateko erretorearen eskariz.



“Pako Azpiazu Gorbeian hil zen istripuz 51/08/15ean, eta urtebetera otoitz egin zioten bertan bere ahaide eta adiskideek, Iñarrak lagun”

Lehen ere adierazi dut, Iñarrak musikarako zaletasuna bazuen ere, ez zela pentagramako ezkutuetan oso trebe. Mutikotatik solfeoko arauak zekizkien arren, ez zen nabarmendu bere iaiotasun musikalarengatik. Baina ez zitzaizkion errekurtsioak falta izaten musikaren arloan ere eta bere ekarpentxoak utzi zigun. Aipatua geratu da bere lehengusu Hilario Gaztelumendirekin egokitu zuen melodia.

David Arzamendi izan zuen musika laguntzaile paregabea, eta Eusebio Iñarra loba eta Eugenio Etxebeste garai bateko apaizgaia ere. Horietako batengana jotzen zuen maiz *“Aizu, jarri melodía hau pentagraman”* eskariarekin. Nahiz eta batzuetan, bera ausartzen zen lan hori egitera eta melodiari Iñarrak berak idatzitako letra jartzen zion. Horrela, Eguberriko Kanta, Lo Kantak eta Eliza Kanta batzuk idatzi zituen. Sentsibiltatea zuen eta euskal musikaren ezagutza nahiko aberatsa. Aipatutako laguntzailearen baten ustez, Iñarrak batez ere *“tonu txikia”* erabiltzen zuen berak asmatutako melodietarako. Bere izaera sentimentalari zor zion hori, nonbait.

Iñarrak utzitako kanta guztietatik, bat ere zalantzarik gabe, ospetsuena *“San Isidoren eresia”* titulatu zuena da. Bere maisu Manuel Lekuonarekin batera idatzi bazuen ere erretoreari zor zaio himnoa, bera izan baitzen eragile zuzena eta kantaren dibulgatzailea:

*“Gure zaindari Isidro deuna,
arren gure alde otoi Jainkoari.*

*Udalaitzeko mendi sendoak
sakon dauzka sustrainak.
Sakon sakonago sinistez
euskal kristauak bere zainak.
Ludi onetan sinismen gabe
gauzik onena aizuna.
Sinismen zoruna,
maiteren deguna,
eutsi daiogun berari
Isidro dala gidari”*

Musika, kasu honetan, Aita Donostiak bildutako euskal ereserki batean oinarritzen da. Eresia 1945eko maiatzaren 15ean kantatu zen lehen aldiz, orduantxe bedeinkatu baitzuen Jose Luis Iñarrak berak Musakolako eliza.

Betiko Manuel Lekuonak sortu bertso sorta bat erabili zuen Iñarrak askotan, berak hainbeste maite zituen haurrak loak harrarazteko. Arrasateko herri-tar askok oroitzen dute oraindik kanta hori, Iñarrari berari entzunda. Berez Eguberri konposizio bat da⁷⁵ Arrasateko erretoreak Lo Kanta bihurtu zuena:

*Belengo aur ederrari
estalpe zartxo batean,
Aingerutxo bi kantari
Ama etorri artean:
Bunbullun, bunbullun, bunbullunera
Bunbullun bat eta bunbullun bi,
Aurtxoak munduan seaskarik ez
Zeruan urrez amabi.*

*Aurtxo txikia lo dago
Aingeru biren erdian,
Aingeru biren erdian eta
Millaka inguru guztian.
Bunbullun...*

“Gabon eta Urteberri on”, “Urte zarraren eguna”, “Urte berriaren eguna” “Eguerri eta Urteberri”, “Ogi bizi” dira erretoreak 1948 eta 1971 bitartean idatzitako beste kanta batzuk.

Hitz neurtuz ez ezik, prosan ere idatzi zituen euskaraz. Ipuingintza maite bide zuen. Eta bere paperen artean ipuin labur batzuk daude, berak eginda umeei kontatzeko. Narrazio labur horien nolakotasun bat, erretoreak eskainitako tokikotasuna da, Arrasaterako hurbiltasuna, alegia, ondoko zatietan ikus daitekeen moduan:

“Aspaldi aspaldi batean, ume zurtz bi, Kattalin eta Martin, bizi ziran Aus-

75 “Lekuona’tar Manuel Idaz Lan guztiak” (54 orrialdea)

OGI-BISI.

J.L. Iñarra. Ama DAVID ARZAKUNDI.

Os-ti-an zau-de Zu ja-nari egiñik. Ja-ten ez du-na il zo-ri-an da-bill. Ez det
nai, Jauna, a-rris-ku or-tan bi-zi nik.
Ni nais BI-ZITZ -O -GI Ni-ga-na da-to-rre-nak ez du go-se-rik. Ni-gan sinis-ten
da-a-nak ez da e-re se-cu-la e'-ga-rrri-rik.
Mo-i-sen Ma-na u-ra ez zan Ze-ru-ko o-gi Na-re Ai-tak bai e-ca-ten di-zu-e-la
Ze-ru-ko O-GI - BI- ZI.

“Noizean behin musika
ere sortzen zuen
Iñarrak, eliza eta haur
kantak, batez ere”

paltz baserrian. Ume-umetatik geratu ziren gurasorik gabe. Biok bakar-bakarrik bizi omen ziran baserri artan... Martinek bere baitan: “Badakit zer egin! Ugaztegiko mendi bizkarrean jaiotzen da eguzkia...”⁷⁶”

...

“Urre gorrizko printzaz jantzitako eguzkia, geldi geldi, mendi ostean gal-tzen, itzaltzen. Oian beltzean, pago artetik bere egalak zabaltzen... Altzaurtin bera, mar-marrean dijoan ibaiaren otsa... Bidean bera, Udalatx puntan-pun-tan dagon ermitan aspalditik bizi dan Arbant abade pizkor ta jainkozko ura, neka-neka egiña.... Etxaldebarrin atea jo du”⁷⁷”

...

“Kontuak kontu, kontu guztiak ez dira... ori amets-asmakizun bakarrik iza-

ten. Aspaldi-aspaldikoa da Mondragoen dragoiaren ipui zarra... Eriosuar, takarrada bizian igo zan osaba Olandixora berriz, artu zuan Olandixoko labean, sutan gorri-gorri egin-ta burdin aga luze bat, eta gain-bera bruñaa guztian etorrira, sartzen dio biotz gain-gañean dragoiari burdin gorritua... Guzti onen berri zabaldu zan, aguro zabaldu, inguru guztian. Agintari eta erri-gizonak osabarekin batera erabaki zuten dragoi ura Leze Txikiko amildegian lurpean sartzea. Eta ara eraman zuten erriko kalegarbitzalleak, Dongi ta Arbe ertzain prestuak gidari zirala...⁷⁸

Iñarraren ospea Arrasatetik Euskal Herrira hedatu zen, batez ere euskal apaizen 1960ko eskutitzaren bitartez eta baita 1967ko hilarriaren kasua zela eta. Baina Euskal Herritik kanpo ere hitz egin zen asko Arrasateko artzapezaren gain. Horren lekukotasuna ematen digu ondoko anekdota honek. Joan Manuel Serrat abeslariak – bere ospearen uhineko erpinean zegoela- Arrasateko “Idoia” jai aretoan eskaini zuen emanaldi bat 1970ean. Antolatzaileen harridurarako, katalandar artista Arrasatera iritsi zenean herriko erretorea ezagutu nahi zuela aitortu zuen. Iñarrarekin jarri ziren kontaktuan haiek, eta bi gizonen arteko elkarrizketa “Naroki” kafetegian burutu zen. Serratek bere miresenten eta begirunea azaldu zion erretoreari, askatasunaren borrokalaritzat hartu zuena. Iñarrak, ordea, ez zion publizitaterik eman nahi izan topaketa hari.

Honez gero garbi asko adierazi da senitarte zeukan Manuel Lekuonarekin lotzen zuen adiskidantza, elkarri zioten begirunean oinarritua. Lekuona Euskal Herritik atera zuten 1941an, erbesteratua, eta Kalahorran jarri zuen egoitza. Hala ere, zigortuta zegoen bitartean ez ziren bat edo bi Iñarrari Arrasaten egin zizkion bisitak. Eta erretoreak gustura hartzen zuen bere etxean, nahiz eta bazekien erbesteratze zigorra hausten ari zela. Bien artean Arrasateko zenbait kultura ekarpen burutu zuten. Eta Iñarrari esker On Manuel ahaztu ezinaren izena arrasatear herriarenarekin itsatsita geratu zen.

Ondoko eskutitz hau, Manuel Lekuonaren artxiboan aurkitu dut. Iñarrak Manuel Lekuonari, 1972ko ekainaren 26an bidalitakoa da, eta bien arteko konfiantzaren lekukotasuna ematen digu:

76 “Zatorra itsutu” ipuinetik

77 “Lamiñak” ipuinetik

78 “Olandixo bideko egan-sugea. Dragoia” ipuinetik.

“Atzo Madriletik Alikantera egazkiñean netorrela – ain bait dira zaratatsu San Juanak Mondragoen eta nire lumari ere deskantsu apur bat eman bear nion- lengo Mondraueko arzipreste D. Joaquin Arinen iloba batek konbidatuta- egazkiñan zebilen andereño batek ABC eskaini zidan. Irakurtzen asi ta Jose Ramon Aznar'en artikulua, lenengoa. Ta... zu, iruimenaren indarra- etorri ziñan nere burura, ta nere kolkorako esan nuen, “artikulu hau Manuel-eri biali bear zioat” Zuk ere maite bait dituzu “urre gorrizko aingeruak” eta abar. Noizpait zerbaitetarko artikulu horretaz baliatuko bazina... Ni pozez. Aste au ementxe pasako det. Urrengoan Mondragoira alleatuko naiz. Agur, Manuel, ta beste bat arte. Teodoro”

Jose Luis Iñarrak burututako ekimenen arteko bat - bitxia izan arren erre-tore zenaren nortasunarekin zeharo bat zetorrena- Arrateko Irratiari eskaini zion lankidetzeta da. Hirurogeigarren hamarkadako lehen urteetan Iñarraren ahotsa entzutetsua egin zen emisora hartatik uhinak iristen ziren tokietan. Lan sistema garaiko teknologiarri zegoen lotua. Gramofono batean bere ekarpe-nak grabatzen zituen etxean. Zein nolako grabazioak ziren? Iñarraren pape-ren artean gai sozialak, erlijiosoak, kulturalak, lokalak eta ipuin antzekoak aur-kitu ditut. Baina bere betebeharrak horretan zuzeneko grabaketa musikalak ere egiten zituen gramofonoarekin, irratitik eskaintzeko.

Autobusez zinta bidaltzen zion Arrate Irratiko zuzendariari eta horrek aste-an behin eguerdiko txokotxo bat eskaintzen zuen egitarauan Iñarraren ahotsa entzunarazteko. Euskaraz egiten zuen eta grabazioak oso estilo partikularre-an burutzen zituen. Batzuek diotenez, pulpituari zegoela ematen zuen. 1963 eta 1964ko kronika batzuk aurkitu ditut. Horren lagina da ondoko hau:

“Mondragoetik. Gaur zortzi, biaramonean etxe errearen alde⁷⁹, Zineman egingo zan jairen berri emanez amaitu gendun gure irratsaioa. Ederra izan zan benetan igande eguerdiko pesta, bete-betea izan zan jai. Baño aurrera jarrai-tu aurretik, eskertu ditzagun, lenengo, parte artu zuten guztiak: eratzalletatik asi ta pesta artan parte artu zuten guztietaraño: Oñatiko Irrintzi, Mondragoe-ko Eliz-kantoreak, Joxe Zubiaurre gitarra jotzalle bizkorra, Baxarri eta Uztapi-deren orde zatorri zen Laxarte bertsolariak. Danoi zorionak eta biotz mami-mamitik eta ao batez, ESKERRIK ASKO. Gizon biotzak itzari eman lezaioken berotasun ta garra ezartzen diogu gure espāñetan gaurko gure eskerrik asko oneri. Eta besterik gabe, entzun itzatzute an kanta ta jo ziran doñu ta bertso

batzuk... Eskerrik asko jaun andreak, eta gehiago denborarik ez galdu. Ikusi arte anai arrebak, eta ondo ondo bazkaldu”

Eta baita beste hau, askoz gai unibertsalago batekin, “Emakume langillea Van der Meerch-ek eskribitutako liburuetan azaltzen da” titulupean:

“Lenengo, emakume langille auen bizitzeko era samingarria azaltzen digu. Emakume auen lan eta nekeak, gizonarenak beziñ gogor eta zaillak dira. Nagusiaren esan guztietara eta lan danetara egotean beartzen ditu beren ezjakintasunak. Oso gutxitan biltzen dira arazo edo problema auek konpondu eta zuzentzeko. Itz batean, batasunik gabe arkitzen dira.

Gañera emakumeak diranez, beste zer-egitiñ askok lotzen dituzte: olako lanak... etxeak... eta ama izateak dakarzkizkienak, eta abar... Bizikera onek abere edo animali baten antzera jartzen ditu emakume langilleak, beste bide-rik ez paitzaie gelditzen”

79 Iturriotz kalean 1964ko azaroaren 9an erre zen etxeari dagokio. Aurreko urteko uztailaren 6an Zerka Ostetako beste bat erre zen, baina horren aldeko diru bilketarik izan ez zenez gero kaltetuak kexu agertu ziren Iturriotze-koari eskainitakoa ikusi ondoren. Ideal Cinema-ko jaialdia abenduaren lehenean izan zen.

BERE HERIOTZA

1976ko Urriaren 2an, larunbata, Iñarra ez zen onik esnatu. Estualdi bat izan zuen goizean elizara joan aurretik baina ez zion Pakita arrebari ezer adierazi, kezka ez zedin. Eliz ofizioen ostean, ohi bezala, Rosa Aranbururen etxera gosaltzera joan zenean ere ez zuen ezer aipatu. Eta gaixoen bisitak egitera abiatu zen. Bazkaldu etxean egin zuen, Libe lobaren seme-alabekin. Eta haiekin mahaian, badirudi berea eta txikitxoek jolasean ahora eramaten ziotena ere jan zuela. Lo kuluxka egitera joan aurretik aspirina bat hartu zuen, pisutsua igertzen baitzuen gorputza.

Arratsaldeko laurak aldean arriarandarren etxera itzuli zen eta Rosari *“Estualdi latza pasau jonat gaur goizean”* aitortu zion. Rosak medikuarengana joatea aholkatu zion eta orduan Erdiko Kanean bertan bizi zen Eusebio lobarengana jo zuen erretoreak. Lobak Zentro Asistentzialera eraman zuen bere autoz. Bartolucci medikuak elektrokardiograma egin ondoren ezer susmagarririk antzeman ez zionez gero etxera bidali zuen ostera.

Erretoreak, etxerako bidean, autoaren leihatilatik sudurzapia atera zuen, autoan gaixo bat eramaten ari zela iragarri nahi izan balu bezala. Txantxarekin jolasten ari zen. Arratsaldeko seietako meza Iñarrak berak eman ondoren Mertxe Trojaola lobaren sendiko etxera jo zuen ostera eta bertan bizi zen Clara Altuna amandeari diosala egin zion kantuz, ohi zuen modu alaiatz: *“Arratsaldeon Clara, euskaraz Argia!”* Lobak lagunduta parrokiara jo zuen handik gutxira, zazpietako mezan lagundu behar zuen eta. Elizpezaharreko ate txikitik sartzen ari zirela Mertxeri adierazi zion: *“Zure senarra beldurtixea da. Medikura eraman nau... eta ez daukadala ezer esan dit. Eta bihar Oiarzunera noa, kintoen bazkarira!”*

Juan Bautista San Miguelek emandako mezan zehar, ordea, Iñarra ez zen ondo sentitu eta eskua zenbait aldiz eraman zuen burura eta bularraldera. Hala ere, Jaun Hartzzea eman zien bertaratutakoei, ohiko bere estilo lasaiarekin. Meza amaituta eta San Miguel sakristiako bidea hartzen ari zela erretorea aldareko gauzak batzera prestatu zen. Orduan zerraldo erori zen aldare-

aren aurrean, bihotzekoak jota⁸⁰. Eta mediku laguntza aurki iritsi arren ez zuten ezer egiterik izan: hila zegoen, bere roketek eta estola berdearekin. Parrokian zeuden eliztarren artean Pakita arreba eta Mertxe loba zeuden.

Albistea bolbora bailitzan hedatu zen herrian. Konmozioa itzela izan zen. Eta hilotza Abade Etxeko erretorearen bizilekura eramane zuten. Gaueko 10'30etan herriko apaizak eta Mankomunitateko Koordinatzailea bildu ziren bertara eta erretore berria izendatu bitartean Javier Etxebarria aukeratu zuten ordekora. Herriko alkatea – Jose Antonio Altuna- ere agertu zen eta senitartekoei planteatu zien biharamuneko lehen orduan hil kapera Udaletxean jartzea, herritarrek azken agurra eman ziezaieten, hogeita hamabost urtez euren erretore izandakoari. Onartu egin zen proposamena baina hil kapera igandeko arratsaldeko 2etan parrokia aldatuko zela adostu ondoren.

Urriaren 3ko goizeko 9etan jarri zen hil kapera Udaletxeko Gela Nagusian eta milaka arrasatearren desfilea hasi zen aurki. Emozioa hunkigarria izan zen. Hilikutxaren oinetan Arrasateko bandera zegoen eta dozenaka lore sortak inguratzen zuten erretorearen gorpua.

Eguerdiko 12etan Udalaren Ezohiko Pleno Bilkura izan zen. Jose Antonio Altunak ireki zuen saioa, “Y con la promesa de servir a la Villa y sus habitantes, en permanente servicio” Iñarraren 1966ko hitzak gogoratu ondoren, Udalak onartutako mozioa irakurri zuen:

“Es evidente el cumplimiento de aquella promesa hecha a nuestro pueblo, porque D José Luis nos ha dejado como ha vivido: sirviendo. Nos deja un Pastor, un Maestro que ha sido humano y humanista. Sus 35 años en Mondragón no sólo le hacen conocedor de las generaciones de esos años, sino que también de las anteriores. El conocía como nadie las vicisitudes y los problemas del pueblo.

Vamos a notar su falta. Ha sido ejemplo en todos los órdenes de la vida y ha sido ejemplo en el sacerdocio. Ejemplo de pasado y de presente y guía de futuro para todos, sacerdotes y seglares”

80 Badirudi aspirinaren eraginak balizko bihotzekoaren sintoma ikustea zailtzen duela

Jarraian Udalak bere sentimendu eta samintasunaren aitorpena egiten zuen idazkian, hogeita hamabost urtez San Juan Bataiatzaileko erretore izandakoa kristau eta herritar jatorraren adibidea zela adieraziz.

Arratsaldeko ordu biak aldera, alkateak Iñarrari agur hunkigarria eskaini ondoren, zinegotzien lepoan eraman zen hilkutxa parrokiara. Eta meza baten ostean hil kapera ireki zen bertan arratsaldeko seiak arte.

Hasiera batean hileta elizkizunak parrokian bertan ematea pentsatu bazen ere, aurki ohartu ziren eliz agintariak hori ezina izango zela, hurbilduko ziren lagun guztientzako tokirik eza zela eta. Beraz, herriko plazara aldatu zuten zeremonia. Sei apaizek eraman zuten hilkutxa plazaraino. Jazinto Argaya eta Jose Maria Setien Gotzain eta Gotzain Laguntzailea, hurrenez hurren, izan ziren elizkizunetako buruak. Laurogei apaizek betetzen zuten plazako kioskoa, eta plazan zein ondoko kaleetan... milaka herritar, Arrasatekoak eta kanpotik etorritakoak⁸¹. Parrokiako abesbatzak Perosiren Meza kantatu zuen.

Argaya Gotzainak *“Iñarra, bakea bilatu zuen gizona”* zela esan zuen homilian, ez galtzaile ezta garailerik ere nahi ez zuen pertsona zela aitortuz. *“Sakon maite zuelako, sakon sufritu du”* adierazi zuen ere bere hitzetan. Hileta amaitzean emozioak goia jo zuen, hara bildutakoengandik *“Agur jaunak”* kanta sortu zenean. Eztarriak korapilatuta eta begiak malkoz beterik esan zion agur Arrasateko herriak Jose Luis Iñarrari, bere parrokoari. Hantxe zeuden ere, heriotza gertatu izan ez balitz ordu hartan Iñarrarekin Oiartzunen bazkaltzen egongo ziren bere kinto kideak.

Egun haietako kronika batzuetako lagina dira ondokoak:

“... A la hora de cerrar esta información dentro de la tristeza nos sirve de consuelo comprobar que esa manifestación jamás conocida, nunca vista en Mondragón, ha sido testimonio de todo cuanto le queríamos a quien tantas veces hemos llamado en estas a “nuestro querido y dignísimo Párroco”⁸²”

81 Erretorearen arimaren alde mezak ateratzeko batu zen dirutan, berrehun mila pezeta bildu zen. Eguneko balioan, bi milioi pezeta inguru edo 12.000 euro.

82 Diario Vasco (196-10-5) Chema berri emaila



“Arrasateko plaza jendez bete zen 1976ko urriaren 3an, Iñarrari azken agurra emateko”

“... El corazón se paró y con él se nos llevó a uno de los hombres más grandes que ha tenido Mondragón.”⁸³”

“... Es difícil hacer su semblanza, cuanto que toda ella constituía una ininterrumpida misión evangelizadora... Se nos ha ido un hombre, Padre de todos, sin excepción de ideas ni conductas”⁸⁴”

Urte hartako azaroaren 5ean Oiartzungo Udalak adostu zuen, aho batez, korporazioaren sentimendua adieraztea “Arrasateren eta Euskal Herriaren alde hainbeste egin zuen On Jose Luis Iñarra Orkaizagirre artzapez eta Oiartzungo Ibarreko semearen heriotzarengatik”

83 Correo Español-Pueblo Vasco (1976-10-05) Raf berri emaila

84 Voz de España (1976-10-03) Azcarate berri emaila

IÑARRA ERRETOREARI BURUZ ESAN DA

PARROKO ZANARI

1976ko azaroak 6

“Nekez badaere” (Joxe Manuel Arriola⁸⁵) 1981

*Zor nizkiola gogoratzean,
Ona emen nekez baten,
Alaia ez da, baiña olako
Gai asko ez da izaten.
Ain mingarria berez izanik
ezin asi naiz esaten
zer naigabea igaro bear
izan degun Arrasaten.*

*Bera zanantzat naiz gutxi izan,
itzegin nai nuke umil,
nire barruan orretarako
asmoak artuta nabil.
Norbaiten billa gure artean
eriotza noiznai dabil
Urrilan bian, altaran bertan,
parroko jauna zaigu il.*

85 Joxe Manuel Arriola herriko kalezaina eta erretorea oso lagunak izan ziren. Begirunea zioten elkarri, bakoitzak bere betebeharetik. Behin, Font i Andreu Gotzaina Arrasateko parrokiaraino etorri zela, eliz atarian utzi zuen aparkatuta autoa. Joxe Manuelek hura ikusita isuna jarri zion autoari. Hori jakin bezain laster, erretoreak kale-zainarenganaino iritsi zen eta eliz ataria bere jurisdikziokoa zela esan zion. “Bai, On Jose Luis, horrela da, baina berorrek ongi daki hara heltzeko espaloia zeharkatu behar dela... eta espaloia Udalarena da” erantzun zion Joxe Manuelek lasai asko bere arrazoibide zintzotik.

*Erri guztian zuzendari ta
serbitzari izan da-ta,
ogeitamabost urtean etzan
bere tokitikan palta.
Zalantzarikan gabe ba-zuan
gizonak zerbait aparta,
Mondragoi ontan utzita joan da
behintzat naigabe galanta.*

*Erakutsita utzi du ondo
buruz etzala baldarra,
eskuz ta oñez berri ba-zala
izan alean azkarra.
Esan nezake alakorikan
bera ote zan bakarra,
danon aurrean, bere tokian
il zan Jose Luis Iñarra.*

*Nola beartsu, ala aberats,
guztiok bere bearrez,
bidezkoa zan gu gelditzea
umezurtz gisa negarrez.
Don Jose Luisek egin duanik
egitea ez da errez,
izan ezean ark egin duan
giza-maitasun indarrez.*

*O! Don Jose Luis, ari natzaitzu
zeru alderuntz bertsotan,
goxotasuna sortu zenduna
hainbeste toki otzetan.
Esan nezake testigu izan
naizenez urte batzutan,
on egiten zu aberatsena
aberats, aberatsetan.*

*Onegilleak bertan izanik
atseden itxaropena,
nire fedea ez du zalantzik
zu zeruetan zaudena.
Gure Jainkoak izan zaituna
mundutikan eramana
eskatzen dizut zerutik ere
oroi zaitezen gugana.*



Eskerrikasko Iñarra Jauna! **(G.B)**

Pedro Berrondo oiartzuar euskaltzale eta abadea, gazteagoa izan arren, oso laguna zuen Iñarrak. Kardaberaz Bazkuneko taldekideak izan ziren. Honelako bertsoa eskaini zion Voz de España egunkarian, 1976ko urriaren 10ean:

Jakin dut berria

*Gaur goizean jakin dut berria, garratza berria,
atzo arratsaldean Meza Santuan ari ziñala
il-ta gelditu zerala... erio zitala...
Erio Ta Bizi aldarean bein ta berriro ari zirala,
Aldarean Jainkoa ta zu. Apaiza ta erria...*

Gogoan dut

*Oiartzunen jaioa (Postakoa ziñan) Gasteiz aldera...
Jainkoaren deiarri, bai ta baietz erantzun ematera...
gaztetan Gasteizen eta gero Arabako Miñanora
Elizako baratzen, atxurlaritza ikastera...
Jaunaren artaldeak, artzai gazte, bazkatzera.*

Mondragoe-aldera

*Izanak ziran or negua ta ekaitzak, negar malkoak minkatzak,
izanak ziran eriotzak, ain beltzak eta illunak eriotzak.
Nolaz txukatu begiak, nola sendatu eta berotu biotzak?
Eta... zure biotza miñaren miñez asi zan taupada ixilka
gero-ta motelago eta minberago eta aulago... ezinka.*

Aldarean bertan

*Bai! Aldarean bertan il zera... "Au da au Berri Ona!"
Eriok berak zaitu illa. Bizik berak emango bizimena!
Eskerrikasko Iñarra Jauna, eskerrikasko apaiz geranak...
ez da ez dana berri txarra, ba da ta izango-ere berri ona,
leial ta zintzo, tinko ta zutik, illa, apaiz euskalduna!*

Ara or Don Pio⁸⁶

*Bere fede-lekuan illik, Mondragoeko apaiz jauna!
Entzun zazu Don Pio, nik emen esango dizudana:
ez da, zuk uste bezela... Monleongoa... or daukazuna,
ez dizu itzik erantzun, ez zan zu bezelako iztuna,
baiñan ara or Aldaretik, illik diona: "Au dugu au Berri Ona!"*



86 Pio Barojari dagokio noski, "El Cura de Monleon" nobelan islaturiko eliz giroa gogoratzuz.

“Arrasaten “artzai ona”-ri agurra”
(Goiz Argi.1976-10-16. Jesus Gaztañaga)

“... Ez dugu jakin miraririk egin duanik. Nork egiten ditu mirariak? Baiña zerbait onik egin du errian eta erriaren alde. Bestela erriak ez du ala erantzuten. Ez du bere bizitzan jakinduri arrigarrik azaldu; ez du liburu mardulik idatzi; ez du “politika-talderik” sortu; politikan ez du “protagonismorik” azaldu; ez du “ezkertiar moda” jarraitu beharrik izan; ez du ain modan dagon “sasi-sozialismu” merkerik ez eskatu ta ez ezarri nai izan”



IN MEMORIAM

On Jose Luis Iñarra

(Zeruko Argia; 1976-10-17. Josemari Velez de Mendizabal)

Ez zaitugu ostera gure artean ikusiko. Ez dituzu beste behin herriko kaleak igaroko zure motorraren ganean, gaixoren bati laguntza eramaten. Ez duzu aurrerantzean mezarik zuzenduko, hain zurea zen era hartaz.

Hogeita hamabost urtetan zehar ihardun duzu gure herriaren bizitza izpirituala zuzentzen. Eta aro horretan, gizaki guztioi gertatzen zaigun bezala, zorion eta zoritxar asko aurkitu duzu zure bidean. Baina dena jakin duzu zure

gainean eramaten. Herriaren onarpena erdietsi zenuen urte horietan. Igandean, azken agurra eman genizunean, era guztietako eta ideologia desberdinetako jendeak ikusi ahal izan genituen zure inguruan. Asko eta asko, begiak malkoz beterik. Gehienok, eztarria korapilatua.

Joan zara, ez baitugu uste utzi gaituzunik. Eta joan zara zuk hainbeste maite zenuen aberria burua jasotzen hasten denean. Baldin abertzale sutsurik bazen, zu izan baitzara handienetako bat. Ez zaigu inoiz ahaztuko, dela gutti zurekin edukitako elkar hizketa, Torrevejan egin zenituen oporraldiei buruz: "... Han ondo, baina abestiak deraukun legez... bihotzak dio zoaz Euskal Herrira" izan ziren zure hitzak.

Ez duzu ezkontza gehiago egingo. Ez duzu zuk hainbeste atsegin zenituen haurren bataiorik eratuko. Ez diozu beste inori bere azken uneetan lagunduko. Baina ezagutu zaituen edonork zutik edukiko du zure irudia, betiko. Zu herriaren lekuko eta eragile zuzena izan baitzara.

Ez dizkiguzu inoiz, zure mahaiaren gainean behin utzi genizkizun galderak erantzunen. "Beste egun batean" zen, ematen zenigun erantzuna. Egun hori ez da iritsiko.

Joan zara guztioi gustatuko litzaigukeen eraz: bakoitzak maite duen ihardunaldian, alegia. Bizitzak mesede hori, behinik behin, eman nahi izan dizu. Herriarentzat bizi izan zara eta horrek ez zaitu ahantziko, zure ezagun harek zioen bezala erreakzionarioa bakarrik hiltzen baita.

Igandean abestu genizun "Agur Jauna" itxaropenezko abestia bihur dakigula. Agur On Jose Luis. Egun Hori arte.



1976ko Udalaiz Egunean ere – urriaren 17an- omenaldi beroa eskaini zioten mendizaleek Jose Luis Iñarrari. Ordukoak dira ondoko bertsoak:

*Hizki batzuek agiri ditu
aitz gaineko gurutziak,
ta irakurtzen ari naizela
malkoz busti zait begiak.
Agur ein gabe alde-egin digu
idatzi zituen artzaiak,
non da Joxe Luis galdetutzen du
etsi ezinda herriak.*

*Gure izatea nola dagoen
Jaungoikuaren eskuan,
alde beharra dago hemendik
Berak agindutakuan:
Guk sinismenez begiratzian
zer bizitz eraman duan,
lasaitasunez esan genzake
Joxe Luis dago zeruan.*

*Zure laguna zan gaztetxea
berdin sasoiko ta zaharra,
zenbait alditan entzuna zera
estu dagonen dearra.
Uste izan arren guk bagendula
bere laguntza bearra,
goian lekua gertatzen dabil*

guri Joxe Luis Iñarra.

*Parrokuarentzat dira mezako
gure eskari garbiak,
goi gaillurrean gorde dezala
zeru ta lurren jabiak.
Gaur aho batez hau eskatzen du
Arrasateko herriak:
eriotzean arren Joxe Luis
zabaltzen guri atiak.*



Jose Luis Iñarraren sendiak gomutagarriak argitaratu zituen, haren lagun eta ezagunenenganaino helarazteko. Juan Mari Lekuonaren ondoko bertsoek apaindu zuten tarjeta.

*Udalaitz gerizan
dagoen elizan
ogeitamabost urte dituzu
apaiz lanetan eskaini bertan.
Arindu dituzu,
leial eta sutsu,
zure elizpean bizi zirenak
neke-penetan.*

*Gure Artzai Onak
zeruan dagonak,
argi zabalez osabete du
egun aundian zure biotza.
Goza dezazula
galtzeke sekula
erriarentzat bizi izanak
dakarren poza.*

Bertso hauei Julian Lekuonak musika ipini zizkien.

n

Eusebio Erkiaga euskaltzaleak honela idatzi zuen, 1976ko azaroa-abenduaren T.U aldizkarian, “D. Jose Maria lankide” monografikoan:

“Abade egin eta arik laster: “Arrasatera noa; ango parroko jaunaren laguntzaille izendatu nau obispuak.” Alantxe gerta ere, Iñarra jauna izan zan aren nagusi aldioro, eta misteriozko zerak, don Joxe Luis agurgarriak lur onetatik aldegitean, bertatik, aren ondorik joan jatzue Aritzmendi... Lehen ere, apaiz onak pasatu izan dira or zehar: Arin eta Markiegi, gerratean esku gogorez garbituak; eta arrezkero, Iñarra zintzoa”

OROIPEN BAT

(Kilometroak 81. aldizkaria)

“Urriako aurreneko jaiak, KILOMETROAK 81 Arrasateko ingurua oinkatzen ari dan bitartean, gizon atsegin baten oroipen bizia gogoraziko die, noski, hainbat mondragoetarrei, MONDRAUEKO PARROKUAREN gogorapena.

Nork ez du gogoratzen Don JOSE LUIS IÑARRA? Gizon alaia, bizia eta atsegiña, anaikorra. Apaiz xea, gozoa, gertua, bihotzabal eta emankorra. Hogeitamabost urte luzeetan Arrasateko kaleak maiz eta sarritan ikusi zuten, bai egunez bai gauez, bere ibilkera bizian dei baten atzean.

Mutikuak, euskeraz!!! Hots egingo zien Eliz inguruan jolastean erderaz ari ziren mutil kozkorrei. Euskalduna zen alde guztitik. Olerkaria. Maite zun bere jaioterriko mintzaira, baina etzun baztertzen Mondraueko “berbetia”. Askotan entzungo zaizkio honoko herriko esaera hauek: “Hori inda jak” “Ingo juau” edo beste ura: “Hola ok pa”

Ez da, ba, bat ere arritzekoa Ikastolak, bere jaiotzean, Don Jose Luisengan bere aitarik jatorrena aurkitzea. Adorez eta kemenez bizkortuko ditu Ikastola bat sortu nahiean dabiltzanak. Eta besterik ezinean, bera jarriko da Ikastolaren buru Eliz-babesa eta aterpea eskainiaz. Abade etxean jaio zan Arrasateko Ikastola 1967ko udaberrian, Apirilean. Katekesiko Gela Nagusiak jaso zitun lehenbiziko 18 ikasle haien oihu, par eta negarrak. Arrasateko San Franzisko Xabier Ikastolak hantxe eman zitun bere lehen pausoak Arantza Barrutia irakaslearen eskutik.

Izaki bat, izate bat, biziera bat krisiak, ekaitzak, zorigaitzak sendotu eta indartu ohi du sarritan. Arrasateko Ikastolak 1972ko Urrian izan zun horrelako ekaitz edo zurrunbiloa. Hamazazpi irakasleetatik hamabost kalean gelditu ziren. Ordu estuak. Irakasleak tiran, batzordekoak tinko, gurasoak ere. Azkenean, Parroko gauxa epailearen aurrean. Trinko eta garbi aurpegi emango du, baina ondorioz bere ondasun apurrak bahituak geldituko dira. Geroztik hori izango du azken ordu arte, bere bihotz-ondoko Ikastolarekin lotuko dion ziliboreste bero eta maitea. Hori, bere saria eta bere koroia.

Arrasateko Ikastolaren Historia

(Kilometroak 81. aldizkaria)

“San Frantzisko Xabier Ikastolaren jaiotza 1967ean bilatzen dugu. Beste ikastola guztien antzeko jaiotza apala, elizaren babesean eta bere arduradun gizon jator eta leial, apaiz nekazina izan zen D. Jose Luis Iñarra. Hain zuzen urriko lehenengo astean, KILOMETROAK 81, oso bere ikastola izan zenen jaietan, bere irudia behin baino gehiagotan gogoratzen dugu, bere heriotzaren 5. urtebetetzea dela eta. Guk ere positiboki jakin dezagula erantzun jator bat ematen apaizaren baldintza gabeko laguntza hortara bultzatu zituen sentimenduei eta ikastolaren hasieran jasan behar izan zituen sufrimendu eta nahigabeei”



Ez dugu agerpen publikoen zerrenda hau itxi nahi, Jose Luis Iñarraren heriotzaren hogeita bosgarren urtemuga izan zenean, Maritxu Kajoi Komisi-
ñuek egindako oroitza-pen ekitaldiko bertsoa jarri gabe. Uste dugu oso ongi
datorkiola zerrendari, Iñarra erretorea gu guztiongana heldu zela berriz ere
adierazteko:

*Bizirik daude gure artean
zure genio ta indarra,
mondrautar denoi on egitea
izan zenuen iparra.*

*Maritxu jaia martxan jartzeko
zure laguntza ederra,
gure agurra eta omena
zuri Jose Luis Iñarra.*

